goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2015-07-24
EGUBAKOITZA
649. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS

TOKIKOM

Asier Altunaren 'Amama' filma Zinemaldiko sail ofizialean lehiatuko da | 25

Filmaren fotograma bat. | TXINTXUA FILMS

Bideo bat egin du Txirrinkak oinezkoen eta bizikletadunen elkarbizitzarako | 7

Simon Arrietaren ondorengoen erakusketa Laboratoriumen | 25

Lorentxo Altube zenak arrastoa utzi du Arrasaten | 8

Erabat ireki duten autobidearen zatia atzo, eguena, airetik hartutako irudian.

Lanak erabat amaitzeke, baina autobideko errei guztiak zabalik daude Eskoriatzan

Lau hilabete eman dituzte luiziak eragindako kalteak konpontzeko eta mendi maldari eusteko lanetan | 5

ARTEMAN KOMUNIKAZIOA

Fagorrek ekoizpena handitu eta lanpostuak sortuko ditu

Nagore Bonilla Fagor CNA Group-eko bozeramailea elkarrizketatu du GOIENAk, talde horrek Fagor Etxetresnen aktiboak eskuratu zituela urtebete egitera doanean. Dio "gauzak ezin hobeto" doazela eta lanpostu berriak sortuko dituztela abendura arte. | 2

Eibar eta Real Union aurrez aurre Bergaran gaur | 23

IRAILAREN 4RA ARTE, PARENTESIA

Hurrengo GOIENA papera irailaren 4an, egubakoitza, argitaratuko dugu. Ondo izan!

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Debagoieneko hiru modeloren ibilbidea
- Oporrak prestatzeko jarraibide praktikoak

HURRENGO 'PUNTUA' ABUZTUAREN 28AN

314 milioi euroko akordioa egin du Ulmak inbertsioetarako

Indar finantzarioa eskuratzea lortu du Oñatiko taldeak | 2

ABUZTUAN ZABALIK

ABUZTUAREN 1etik 14ra
Astelehenetik ostiralera
09:00-18:30
Larunbatak 09:00-13:00

ABUZTUAREN 17tik 31ra
Astelehenetik ostiralera
09:30-17:30
Larunbatak 09:00-13:00

Bixente Ferrer, 1 Arrasate Tel.: 943 79 52 17
www.lirainestetika.com

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA

Ez da osasun zentroa
RPS: 48/14

SINADURAK

Ardiak eta txakurrak | 6 MARIA AGIRRE

Denbora laburrean, asko | 6 GOIATZ ARANA

Nire zalantzak | 8 OSCAR RODRIGUEZ

Kartografiak | 13 AINHOA NEGERUELA

Kolore primarioak | 14 PEDRO GARITANO

Herri bizia eta berritua | 16 BEÑAT ZAMALLOA AKIZU

Konponbidearen bidean | 32 AGURNE BARRUSO

DEBAGOIENA 2 | IRITZIA 6 | HERRIAK 7 | KIROLA 22 | KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 26 | ZORION AGURRAK 27 | IRRATI-TELEBISTA 28 | EZKONTZAK 28 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30

Nagore Bonilla | Fagor CNA Group-eko bozeramailea

"Ekoizpena handitu eta lanpostuak sortuko dira"

Bada ia urtebete CNA talde katalanak Fagor Etxetresnak izan zena erosi zuela, eta orain arteko balorazioa eta aurreikuspenak oso onak dira

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Uztailaren 29an beteko da urtebete Fagor Etxetresnen aktiboak CNA taldeari adjudikatu zizkiotela. Fagor CNA Group-eko bozeramaile eta Komunikazio eta Marketin zuzendari Nagore Bonillaren esanetan, "gauzak ezin hobeto doaz".

Jorge Parladek esan du, orain berriz erosteko erabakia hartu behar izango balu, berriz gauza bera egingo lukeela... Gauzak ondo joan diren seinale?

Gauzak ezin hobeto doaz eta orain dela hilabete batzuk Fagor marka eta enpresarentzat erronka polit bat zena, gaur egun, errealitate sendo bilakatu dela esan dezakegu.

Hilabete hauetan lortutakoa ikaragarria dela uste dugu; Industria Planeko mugarriak bete ditugu eta Estatu mailan akordio komertzialak ere sinatuak ditugu jada. Nazioartean, hainbat hitzarmen sinatu ditugu dagoeneko, beste batzuk sinatzear daude eta beste zenbait negoziatzen ari gara oraindik.

Era berean, aukera komertzial berriak hauteman ditugu eta horrek negozio aukera berriak ekarriko ditu. Berrikuntza plana ere abian dugu, eta, horri esker, laster produktu berriak aurkeztuko ditugu.

Bi lantegi bakarrik izango ditu Fagor CNA Groupek; zergatik hartu duzue erabaki hori?

Zenbait fabrika alokairuan ditugu eta horrek kostu altua dakar; hori dela-eta erabaki da bi lantegi mantentzea. Hemendik aurrera, Garagartza izango da gure fabrika nagusia eta bulego zentralak ere bertan kokatuko dira. Horrek, guretzat, baditu hainbat abantaila; aipagarrienak: estruktura kostuak murriztea eta langile ia guztiak leku berean kokatzea, lan harremanak sendotuz eta fabriken arteko lekualdaketak ekidinez.

Garbigailuekin maiatzean hasi zen Fagor CNA eta hozkailuak ekoizten hasteko asmoa dago urte bukaerarako. Hasiera baten, marjina txikienak ematen zituzten negozioak ziren. Ze aurreikuspen dituzue bi negozio-lerro horietarako?

Garbigailuen salmentak uste baino hobeto doaz, urrirako ekoizpena bikoiztea dugu helburu eta produktuen ingeniaritza eta garapen lanetan dihardugu datorren urteari begira. Hozkailuen kasuan ere, produktua Europako zuzentarau eta eskaeretara moldatzen ari gara, eraginkorragoak izan daitezen eta berme guztiak bete ditzaten; gure produktuak irizpide horien baitan merkaturatzea baita gure nahia eta xedea.

Eta urte bukaerarako?

Lantegien ekoizpena bikoiztuko dugu; horri esker, lanpostu berriak sortuko dira, eta urtea amaitzerako Fagor CNA Groupen 620 langile inguru izango garela aurreikusten dugu. Eta ordurako Geyser-Gastech Garagartzara lekualdatuta egotea espero dugu.

Salmentei dagokienez, oraindik ezin dugu jakin urtea nola bukatuko dugun. Urte hasiera nahiko motela izan da, batez ere tokiko merkatuari dagokionez, inplementazio lanetan egon garelako bereziki, baina martxotik hona salmentek oso martxa ona hartu dute eta pozik gaude, beraz, lortutako kuotekin. Tradizioz, urte amaierako salmentak onak izan ohi dira, eta horrek gure alde egin dezake.

Nagore Bonilla. | AXOMA KOMUNIKAZIOA

"Martxotik hona, salmentek oso martxa ona hartu dute; pozik gaude"



Ulma Piping-eko langilea, jardunean. | ULMA

Hazten jarraitzeko 314 milioiko akordioa egin du Ulma Taldeak

Inbertsioak egin eta nazioartean gehiago zabaltzeko erabiliko du, batik bat, diru hori

GOIENA | OÑATI

Ulma Taldeak 314 milioi euroko akordioa lortu du datozen urteetarako. Horrekin, indar finantzarioa eskuratu eta Plan Estrategikoari beste bultzada bat eman ahal izango dio; inbertsio eta proiektu berriei ekin ahal izango die eta nazioarteko hedapena sendotu ahal izango du. Hain zuzen, aurten salmenta bateratuak 719 milioi euroraino handitzea aurreikusten dute –%8ko hazkundea–, eta haietatik 565, hau da, guztirako salmenten %80, nazioarteko merkatuetatik etortzea espero dute. Horrela jakinarazi du kooperatibak prentsa ohar bidez.

Akordio horrek bi zati ditu: batetik, 150 milioi euroko mailegua, sei urterako; eta, bestetik, zirkulatzailea finantzatzeko lerro batzuk, 164 milioikoak, bi urterako. Eragiketa "izugarrizko laguntza" da talde kooperatiboarentzat.

Santander, BBVA, Popular, Sabadell, Caixabank, Laboral Kutxa, Bankinter eta Caja Rural de Navarrarekin lortu du akordioa eta N+1 entitatearen aholkularitza izan du horretarako.

Krisi aurreko maila

Ulmaren arabera, taldeak kudeaketa "bikaina" egin du: "Ulmak krisiaren aurreko negozio mailak berreskuratu ditu, eta, horrekin batera, asko txikitu du zorra: Zor Finantzario Garbia/EBITDA ratioa, 2014/12/31n, 1,58 baino txikiagoa zen". Egungo koiunturaz baliatuz, 2017an mugaeguna zuen mailegu bateko 91 milioi euro kitatu ditu.

Euskadik %15eko langabezia-tasarekin bukatu zuen ekaina, martxo bukaeran baino 1,5 puntu gutxiago

EAEko langabezia tasa %15,1 izan da ekain bukaeran, aurreko hiruhileko bukaeran baino 1,5 puntu gutxiago. Landunak 889.300 izan dira, aurrekoan baino 8.400 gehiago. Eustat erakundeak egindako inkestaren emaitzak dira. Adierazle guztiak hobetu egin dira joan den hiruhilekoa ezkero: okupazioa, oro har, emakumeen eta gazteen okupazioa, kontratu mugagabeen kopurua handitu izana eta kide guztiak langabezian dituzten familia-kopurua txikitu izana.

AUTOBERRI San Andres Kalea, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - GIPUZKOA www.autoberri.com

Alokatu orain
ETA EZ ORDAINDU
azarora arte

Eta, gainera, *AlquilaFácil*
abantaila guztiekin



***Abalik gabe**
1 hilabeteko fidantza soilik
Etxebizitza margotu berria
eta askoz ere gehiago

Etekina atera etxebizitzari abuztuaren 21a baino lehen alokatuz

Servihabitat

Servihabitat.com · 902 15 01 02 · zure "la Caixa"-ko bulegoan

Sustapen bakoitza www.servihabitat.com helbidean "AlquilaFácil + Ez ordaindu azarora arte" kanpainaren mende dagoen etxebizitzarako eta 2015-7-letik 2015-8-21era arte (baik barne) eskaintzen diren eskuratzeko, haren alokairu kontratuak 2015-8-31ra (barne) arte gauzatzen badira behere. Diskotasunak 2015-10-31ra arte sortutako errentak eragiten dir bakarrik, eta zergak, hitartekotza-gastuak eta fiantzaren ahalak ez dira aplikagarriak, errentarien kaugura izango baliza bakik. ARALIK GABE, ez da berrio ezagarrik eskatuko errentariak jabeak eskatutako kaudimen-eskakizunak betetzen badu. Eskaintza ez-metagarria beste deskontuen edo ustapenei. Informazio gehiago www.servihabitat.com helbidean edo 902 15 01 02 telefono-zenbakian.

Aretxabaletako alkatea da Mankomunitateko burua

Unai Elkoro eta Maria Ubarretxena dira erakundeko presidentea eta presidenteordea, baiak ere EAJkoak

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitate berria eratu da. Eguaztenean egin du lehen batzarra. Eta presidentea eta presidenteordea izendatu ditu. Unai Elkoro Aretxabaletako alkatea da presidentea eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea presidenteordea. Biak ere EAJkoak. Izan ere, maiatzaren 24ko hauteskundeetatik eratorritako udalbatza berrietan EAJri ordezkari gehiago eman dizkiote EH Bilduri baino. Orain arte erabateko gehiengoa zeukan Bilduk Mankomunitatean; oraingoan, EAJ da nagusi.

Bederatzi ordezkari dituzte jeltzaleek, EH Bilduk bost, PSE-EEk bat eta Leintz Gatzagako Hautesleen Elkarteak beste bat. Eskualdeko zortzi herriek dute ordezkaria Mankomunitateko Gobernu Batzorde berrian: Arrasateko lau zinegotzi daude; Bergara eta Oñatiko hiruna; Aretxabaletako bi, eta Eskoriatza, Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako zinegotzi bana. 16 kide dira.



Mankomunitateko Gobernu Batzorde berriko kideak. | ENEKO AZKARATE

Gainerako batzordeak irailean

Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Batzordea lehenbailehen eratu eta agintariak izendatu nahi izan ditu EAJk, irailera arte itxoin barik. Horregatik batzartu da lehenekoz oraingo astean, ordu laurdeneko batzarra izan bada ere, bozketa bidez buruak izendatzeko. Joan zen astean batzartu zen azkenekoz jarduneko aurreko gobernu batzordea. Unai Elkoro presidente berriak ilusioz hartu du kargua, eta esan du hondakinen kudeaketa izango dela helduko dioten lehenengotako gaia. Gaineratu du oporren ostera arte ez dutela zehaztuko zeintzuk izango diren Udalen elkarteak izango dituen batzordeak ezta hauetako batzordeburuak ere. Irailerako utzi dute hori.

Ez Mundumirarik eta ezta haren ordezko jairik ere

Mundumiraren ordezkoa antolatzeko azken eskaintza baztertu egin du Mankomunitateak

E.A. | ARRASATE

Ez Mundumirarik eta ezta haren ordezkorik ere. Gaur-gaurkoz ez da Mundumira ordezkatuko duen jairik egingo aurtengo urrian Bergaran. Bilduren agindupeko Debagoieneko Mankomunitateak azkenera arte egin du ahalegina. Horretarako hiru deialdi ere egin ditu. Baina azkeneko bi deialdietan eskaintza bana aurkeztu diren arren, eskaerak ez dira egoki ikusi. Azkena, "kaudimenik eza eta akats teknikoak" direla-eta. Joan zen astean hartu zuen erabakia jarduneko Mankomunitateko Gobernu Batzordeak.

Gobernu berriak heldu beharko dio. Juanje Alberdi Bergarako alkateak ez du baztertu ahaleginarekin jarraitzea. Zaila da aurten egitea, urriaren 25eko asteburua gertuegi dago-eta.



Kiko Veneno Arrasaten. | GOIENA

2005ean lehen aldiz

Apiriletik hona hiru bider egin du deialdia Debagoieneko Udalen Elkarteak eskualdean jaialdi bat diseinatu, antolatu eta garatzeko. Lehena, apirilean, urteko 37.100 eurotan, eta beste urtebetez luzatzeko. Bigarrena, maiatzean, urteko 50.000 eurotan. Eta, hirugarrena, urteko 58.000 eurotan. Azkeneko bietan eskari bana aurkeztu diren arren, Mankomunitateak eskaintzak ez ditu egoki ikusi.

2005ean egin zen lehen aldiz Mundumira Arrasaten Mankomunitatean EAJ buru zela. Urtero egin da, 2013an izan ezik. Eskualdeko herri guztietatik igaro da. "Debagoiena ezagutaraztea, eta formatu handiko eta kalitatezko jaialdiak antolatzea" izan zen sorrerako helburua.

UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: *blogak.goiena.eus/argazkiak*

Baita hemen ere: *udakoargazkiak* *udakoargazkiak*

NEREA MENDIOLA .
2014ko Sari Nagusiaren irabazlea.

XABIER URTEAGA.
2014ko bigarren sariaren irabazlea.

ITXASO KALBANO.
2014ko hirugarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!

Oinarriak*

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
- Egilearen izen-abizenak eta herria.
- Harremanetarako telefonoa.
- Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
- Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.

- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 10etik irailaren 20ra arte (biak barne).**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**
- **Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.eus* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, Arrasate
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 9an jakingo dugu, Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez**, @udakoargazkiak helbideari aipamena eginda argazkia bidalita, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez**, facebook.com/UdakoArgazkiak orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitaterik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: *ttiki.com/70956*

Sariak

1. saria: Nikon D3200 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Aretxabaletako Begira argazki-dendaren eskutik.
24 megapixel / Full HD bideo-grabazioa / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatze sistema, 11 puntukoa / ISO 100-12.800 sentsibilitatea / Integratutako edizio funtzio ugari.

2. saria: Orioko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaiak-en eskutik.
3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
Herritarren saria: Amazon Kindle liburu irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.
Boto emaileentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

Begira argazkilaritza

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua EROSKI zurekin karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

Autoak arazo barik dabiltza AP-1eko Eskoriatzako tartean

Atzo, eguena, ireki zituzten bi erreiak, baina lanekin segituko dute zirkulazioari ahal den gutxien eraginda

TXOMIN MADINA | ESKORIATZA

Atzo goiza ezkero zabalik daude AP-1 autobideko Eskoriatzako bi erreiak. Modu horretan, Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak nabarmendu duenez, "errepidea normaltasunez" erabili ahal izango da abuztuko oporren irteera operazioaren bezpera egunetan.

Erabiltzaileak gustura agertu ziren atzo goizean erreiak zabaldu izanarekin, eta lanok luze jo dutela agertu zuten askok: "Hilabete askoan ibili gara hala nola; hortaz, txartelaren prezioa merkatu egin behar zuten". Lanok oraindik guztiz ez dituztela bukatu ere kexu zen baten bat: "Hobekuntza handia da, baina oraindik erreiak estu samarrak dira".

Martxoa ezkero itxita

Martxoaren 13an itxi zuten AP-1 errepidea, Gasteiz-Irun autobideko 120,450 puntu kilometrikoan –Eibartik–, Gasteizerako noranzkoan galtzada pareko ezpondan izandako luiziaren ondorioz. Martxoaren 26an *bypass*-a ahalbidetu zuten, eta zirkulazio noranzko bakoitzean bide bana ireki zuten, Eibarrera doan galtzadan.

Luizia egonkortzeko obrak martxoaren 17an hasi zituzten. Gipuzkoako Foru Aldunditik adierazi dutenez, "erritmo onean" doaz eta "mendi hegaleko goiko aldean aurreikusitako egonkortze lanak burutu dira dagoeneko". Lau bideak udako irteera operazioa hasi aurretik zabaldu ahal izateko, errepidearen plataforman zeuden lurrak kendu, behin-behineko saihesbidea ahalbidetu eta babeserako hesi dinamikoa jarri dute.

Lanekin jarraitu

Itxita zeuden bi erreiak dagoeneko zabalik izan arren, lanekin jarraituko dute, "zirkulazioari ahalik eta gutxien eraginda". Obrak behin betiko gauzatu ahal izateko, ordea, bide mozketak egin beharko dituzte. Aldez aurretik emango dutela horien guztien berri jakinarazi dute.

AP-1 autobideko Eskoriatzako tartean bi errailak zabalik, eguen goizean. | TXOMIN MADINA

Martutenera eraman dute Bergaran atxilotutakoa

M. TXINTXURRETA | BERGARA

Labanarekin eraso egin zion gizonezko batek amari joan den martitzenean Bergaran, eta atxilotutakoa, epailearen aurretik pasatu eta gero, kartzelara bidali dute. Martutenen dago atzo goiza ezkero, Ertzaintzatik adierazitakoaren arabera.

Martitzen eguerdian

39 urteko gizona hilketa saiakera egotzita atxilotu zuen Ertzaintzak martitzen eguerdian. Ustezko erasotzaileak harekin bizi den amari labanarekin eraso egin zion 13:30 aldera, eta bizilagunek, oihuak entzunda, poliziari deitu zioten. Ertzainak tokira bertaratu eta gizona komisariara eraman zuten atxilotuta.

Labankada ugari

Biktimak labankada ugari zituen gorputzean, eta, hain zuzen ere, Arrasateko ospitalera eraman zuten larri zaurituta. Handik, gero, Gasteizko Santiago ospitalera bideratu zuten.

'Fracking'-aren aurkako protesta egingo dute Urbian hilaren 31n

Fracking ez! aldarrikapena Oñatiko Urbia belardira eroango dute, iaz legez, uztailaren 31n, Fracking Ez taldeko kideek. 12:30ean, fondaren aurrean egingo dute elkarretaratzea. Gasa ateratzeko erabiltzen diren haustura hidrauliko teknikekin kezkatuta dauden guztiei dei egin gura diete: "Gure herria, gure lurra, ez dezaten kutsatu, ez dezaten txikitu eskatuko dugu ozen. Zenbat eta jende gehiago bildu, orduan eta indartsuagoa izango da gure aldarrikapena".

14.000 eurotik gora jaso dituzte Nepalgoei laguntzeko

Euskal Herriak Nepalgo Herriarekin Elkartasuna izeneko taldeak orain arte egindako lanaren berri eman du, eta eskerrak eman gura dizkiete laguntza emandako guztiei. 685 lagun inguruk egin du bat taldearekin eta guztira 14.000 eurotik gora lortu dituzte. Diru horren zatirik handiena kanpin dendak eraikitzeko toldoak erosteko erabili dute; 11.700 euro 900 toldo erosteko. Taldeak ateak zabalik dituela jakinarazi du, proposamenak eta ekarpenak jasotzeko.

Hartz hezurrak eta tresneria topatuta esan diete agur Lezetxikiko indusketa lanei

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Bukatu dituzte aurtengo Lezetxikiko indusketak. 20. urtez jardun dute Arrasateko koban lanean Alvaro Arrizabalaga EHUko Historiaurreko irakasle eta Aranzadiko kidearen gidaritzapean, eta aurten 200.000 urteko hartz hezurrak eta tresneria topatu dituzte. Hala jakinarazi zieten lanean jardun duten hogei bat boluntariok –euren artean arrasatear bi eta oñatiar bat– Maria Ubarretxenari, Arrasateko alkateari, eta udalbatzako hainbat kideri. Urteroko txangoa egin zuten astelehenean eta alkateak berak balioan jarri gura izan zuen indusketa-gunea, "gutxi" ezagutzen delako.

Aztarnategi oparoa

Aztarnategi oparoa da Arrasatekoa; nabarmentzekoak dira han topatutako Behe Paleolitikoko gizaki baten humeroa eta Homo Sapiens baten baraila pusketa. Eta ikusteko dago oraindik ere gehiago arakatzerik dagoen. Hain zuzen ere, hondoa jo den edo harpearen azpitik miatzen segi daitekeen jakin gura dute. Arrizabalagak uste du egungo mailaren azpitik egon daitekeela beste ganbara bat.

Arrasateko udalbatzako kideak Lezetxikin astelehenean. | AMAIA TXINTXURRETA

Lurren jabeak Eskoriatzako Apotzaga auzoko elkartean elkartuta. | J.BEREZIARTUA

Aizkorri-Aratz parkea eremu berezi izendatzearekin kezkatuta lurjabeak

JOKIN BEREZIARTUA | ESKORIATZA

Debagoieneko hainbat lurjabe oso kezkatuta daude Aizkorri-Aratz natura parkea Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeak "ondorio kaltegarriak" izango dituelakoan. Eremu horri dagozkion kontserbatzeko neurriak onartzen dituen dekretu proiektuari alegazioak aurkezteko epea abuztuaren 13a arte dago zabalik, eta horren gainean jarduteko bilera egin dute Eskoriatzako Apotzaga auzoan. Natura parke osoaren %47 inguru Debagoienari dagokio: Oñatin daude 4.237 hektarea; Eskoriatzan, 1.573; Aretxabaletan, 994; eta Leintz Gatzagan, 784. Jabe horietako 85 elkartu ziren Eskoriatzako bileran.

Epea atzeratzeko eskaera

"Izendatu badute eremu berezi hori izan da gure arbasoek eta guk horrela mantendu dugulako. Baina orain datoz inposizioak, debekuak…", adierazi du Juan Karlos Beloki eskoriatzarrak, eta kexu azaldu da, dokumentua oso teknikoa delako, eta ulertzeko zaila.

Hori horrela, bi erabaki hartu dituzte: batetik, Jaurlaritzako ordezkariren bati euren ikuspuntua adieraztea eta horretarako alegazioen epea atzeratzeko eskatzea; eta bestetik, alegazioak zehazteko beste bilera bat egitea. Azalpenak gura dituzte, debekuen gaineko azalpenak: "Jabeak berak ez daki-eta zer zaindu behar duen bere lursailean", dio Belokik.

ZABALIK

MARIA AGIRRE
goiena.eus/komunitatea/

Ardiak eta txakurrak

Arrasate igaro, saihesbidea utzi, eta Aretxabaletara sartzera noa betiko errepidetik. Bide zaharretik. Garai bateko irudia datorkit burura. Aretxabaletako sarreran, eskuinaldeko zelaian Joxe Bixente Etxaberen ardiak belarra jaten egoten zireneko argazki hura. Udaberrian espektakulua izaten zen. Zelai berdean, ardi zuriak lasai ederrean, eta ondoan bildotsak saltoka. "Ze irudi elegantea herri baten ongietorrirako!", pentsatu izan dut behin baino gehiagotan. Artista onenaren eskultura batek ere ez luke hobetuko. Ezta esaldi borobilena idatzita lukeen kartelak ere.

Aspaldiko partez ez dut ardirik ikusten zelai horretan. Autobidearen lanekin zatartu egin zen inguru hura, eta, noiz edo noiz behi batzuk bazkatzen egoten badira ere, azkenaldian, belar luzeak eta sasiak hartu ditu inguruak. Ze aldea! Asko galdu du Aretxabaletako sarrerak.

Kaletik zoazela, joan behar duzu lotuta zein ote doan eta zein ez begira

Donostian esperimentua egin nahi izan dute ardiekin. Zelaiak garbitzen finak direla eta, aurreko alkateak Ametzagaña izeneko parkean ardiak jartzea pentsatu zuen. Segituan, txakurzaleak gainera etorri zitzaizkion. Gune hura ezin zitekeela hesitu, eta txakurrak libre, korrika ibiltzeko gunea zela aldarrikatu zuten.

Nik gero eta ardi gutxiago eta gero eta txakur gehiago ikusten ditut; bai Donostialdean, behintzat. Gero eta arraza arraroagoko txakurrak, tankera edo tamainagatik, beldurra emateraino. Txakurrek eta haien jabeek hartu dituzte mendiak, zelaiak eta baita herriak ere. Eta kaletik zoazela, joan behar duzu lotuta zein ote doan eta zein ez begira. Eta adi, bi txakurrek tril egiterakoan hasten den borrokaldiak gertu harrapa ez zaitzan.

"No hace nada!", esan zidan jabeak, txakurrak kosk egin baino segundo batzuk lehenago. Eskerrak gabardinari heldu zion, bestela izterrean haginkada.

Ardiak eta txakurrak. Bikote banaezina orain arte. Artzain -txakurrak, baina, apenas ikusten diren, eta zelaietan ardiak, gero eta gutxiago.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.eus

Denbora laburrean, asko

Bilioika euro eta milioika lagun mugitzen ditu, baina ez nau erakartzen. Beste arrazoi batzuek Eibar taldeari buruz hitz egitera naramate, futbolean edozerk ez duela balio erakutsi duelako. Batetik, zelaian galdutako maila epaitegietan berreskuratu du: Eibarren mesederako, Elxek Bigarren Mailan jokatuko du, Ogasunarekiko zorra kitatzeko epeak ez betetzeagatik. Bestetik, Gaizka Garitanok, lehengo entrenatzaileak, Almerian emandako lezioa: hango kazetari baten haserrea zela eta, adierazpenak euskaraz egin ezin, eta ez euskaraz ez gaztelaniaz: mahaitik altxa eta prentsa aretoa utzi zuen. Beste askok urte luzez egindakoa baino gehiago da.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



GUTUNAK

Aramaioko herriari

Iker Elexpuru eta Jone Arriolabengoa
(Aramaioko EH Bilduren izenean)
Aramaio

Aramaioko EH Bilduk, udal hauteskundeen emaitzak bere egin eta ariketa demokratiko baten ostean, herriarengandik jasotako arduraz, gonbidapen zehatz bat egin zion Aramaioko PNV alderdiari.

Udaleko batzorde burutzak antolatu eta ardurak banatzeko orduan, hasieratik oso garbi izan du Aramaioko EH Bilduk herriak hauteskundeetan demokratikoki adierazitako nahia Udalean islaturik egon behar dela.

Hori dela eta, hiru zinegotzi lorturiko PNV alderdiari batzorde burutzak eskaintzea erabaki zuen.

Guztia errazte aldera, PNVri eskaintza guztiz zabala egin zitzaion, beraiek egokiena, errazena edo bideragarriena den edo diren batzorde burutzen ardura hartzea.

Horretarako, sei hilabetetan Aramaioko EH Bilduk herriko eragileekin elkarlanean landuriko programaren kopia bat eman zion.

Prozesua azaldu ostean, gure eskaintza zehatza eta zuzena izan zen: antzekotasun edo konbergentzia handiena erakusten zuen batzorde burutzen ardura beraien gain hartzea eta minimoen akordio programatiko bat zehaztea.

Horrek herriaren nahia Udalera eramatea bermatuko lukeelako.

Zoritxarrez, Aramaioko PNVk ardura horri uko egin eta batzorde burutzarik ez hartzea erabaki zuen.

Batzordeetan parte hartu bai, baina ardurarik ez zuela hartuko adierazi zigun.

Hau da, oposizioko jarrera bat hartuko zuela.

Aukera galdu baten aurrean, gure borondatearen kontra kokatu gaitu jarrera horrek.

Eta batzordeen moldaketa eta gutxitze bat egitera behartu gaitu.

Ditugun zinegotziek herriak dituen erronkei modu eraginkorrenean aurre egiteko erabakia izan da harturiko neurri hori.

Batzordeak eratu ostean, irailean parte-hartzean oinarrituriko proposamen bat egingo dio EH Bilduk Aramaioko herriari.

Guztion artean, aramaioarrok nahi dugun herria eraiki eta defini dezagun.

Bide honetan, berriz ere Aramaioko PNVri gonbidapena luzatu nahi diogu, aukerak dauden gai eta alorretan elkarrekin lan egin, eta Aramaioko herriak eman digun babes eta konfiantza mailari neurri berean erantzuteko.

Guk garbi dugu bidea elkarlanean eta Aramaioko herria parte izanda egin behar dugula.

Mila esker, berriz ere, Aramaioko herriari, EH Bilduri emaniko babesagatik.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.
Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 00
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

OÑATI

Oinezkoen eta bizikleten arteko elkarbizitza sustatzeko bideoa

▸ Txirrinka Bizikletazaleen Elkartearen eta Udaleko Ingurumen Zerbitzuaren ekimena da

▸ 'Denon onerako bizikleta' izeneko lanak bidegorria erabiltzeko gomendioak ematen ditu

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Denon onerako bizikleta. Izenburu hori dauka Txirrinka Bizikletazaleen Elkarteak Udalaren Ingurumen Zerbitzuaren laguntzarekin egin duen bideoak. Dagoeneko aurkeztu dute herritarren artean, eta Interneten ikus daiteke. Bernat Alberdik eta Ander Monederok egindako bideoak zazpi minutuko iraupena du eta gomendioak ematen ditu bidegorrian eta oinezkoendako diren kaleetan bizikletek eta oinezkoek elkarbizitza ona izan dezaten. "Bideoa ez da ordenantza bat. Elkarbizitza indartzeko gomendio batzuk ematen ditugu; besteak beste, oinezkoen guneetan oinezkoek dutela lehentasuna, espaloi gainean ezin dela bizikletan ibili, bizikletek dagokien abiaduran ibili behar dutela... Sen komunak esaten dituen aholkuak dira, baina, askotan, behin eta berriz, gogora ekarri beharrekoak direnak", esan du Txirrinka taldeko Agustin Otxoa-Aizpuruk.

Bideoko egileak eta parte-hartzaileak Euskadi etorbidean. | TXIRRINKA

Grabatzeko gertu, Torreauzotik Kasablankara doan bidegorrian. | TXIRRINKA

Herritarren kexuak

Hain zuzen ere, Txirrinkarena izan zen halako bideo bat egitearen ideia. "Herria alderik alde zeharkatzen duen bidegorria daukagu Oñatin eta hainbat kale oinezkoendako egokitu dituzte. Horrek guztiorrek bizikletaren erabilera handitu du. Dena den, hainbat herritar kexu agertu dira bizikletaren erabilera desegokia egiten dela esanez. Erabilera arriskutsu horiek erakutsiz hainbat bideo labur zintzilikatu genituen Interneten. Bideo laburren ostean dator *Denon onerako bizikleta",* dio Otxoa-Aizpuruk.

Interneten ikusgai

Txirrinkak eta Udalak elkarlanean landu duten bideoaren helburu nagusia elkarbizitza bultzatzea eta indartzea da. "Denok ditugu barneratuta zirkulazio arauak motordun ibilgailuetan goazenean. Bada, arau horietako asko erabili behar dira bizikletan goazenean. Kontzientziazio kontua da. Herritarrak badoaz apurka-apurka bidegorria modu egokian erabiltzen, baina asko dago egiteko, eta guk aletxoa ipini gura dugu bideoarekin", diote Txirrinkako kideek.

Bideoa bizikleta erabiltzaileekin grabatu dute, eta herriko hainbat puntutan ibili dira; besteak beste, Kasablankatik Torreauzora doan bidegorri zatian eta Euskadi etorbidetik Bidaurreta aldera doan zatian. Txirrinkakoek, udal ordezkariek eta egileek bideo hezigarria egin dute. "Herritarrendako bideo erabilgarria egitea adostu genuen. Gomendioak eta aholkuak ematen dituena eta arina dena. Laburra. Zazpi minutuan informazio asko sartu dugu", esan du Otxoa-Aizpuruk.

Bideoa grabatu eta aurkeztu ostean, hedapen egokia egitea dute helburu. "Herritarren eskura ipini gura dugu. Youtubeko gure kanalera igoko dugu, edonork erabil dezan. Era berean, uste dugu ikastetxeetan ere erakutsi beharko luketela. Gazteak asko ibiltzen dira bizikletan, patinetan eta patinetean. Kontu handiz ibiltzeko eta kontuan hartu beharreko aholkuak dituzte", diote Txirrinkakoek.

ESANAK

"Bizikleta egoki erabiltzeko gomendioak ematen ditugu bideoan"

"Youtubeko gure kanalera igoko dugu, herritarren esku egoteko"

AGUSTIN OTXOA-AZIPURU | TXIRRINKAKO KIDEA

Kontuz tuneletan

Oinezkoendako egokitutako kaleetan –Kale Zaharra, Atzeko kalea eta Kale Barria– eta bidegorrian lasai ibiltzeko gomendioa egiten du Txirrinkak. Modu egokian eta elkarbizitza bultzatuta. Era berean, gune horietako hainbat puntutan kontu handiz ibiltzea aholkatu dute. Batez ere, Kasablanka eta Zubillagara arteko bidegorriak dituen tuneletan. "Ez dute ikuspen onik, estuak dira, eta, aldapa behera daudenez, abiadura handia hartzen da", diote

DATUA

7

MINUTU

Horixe da *Denon onerako bizikleta* izeneko bideoaren iraupena. Txirrinka Bizikletazaleen Elkarteak eta Udalak elkarlanean egindakoa da.

Herritarren aurrean aurkeztu zuten

Hilaren 22an, eguaztenean, aurkeztu zuten bideoa herritarren aurrean. Ekitaldia kultura etxean egin zuten. Han egon ziren bideoaren egile Bernat Alberdi eta Ander Monedero, Txirrinka Bizikletazaleen Elkarteko ordezkariak eta bideoan parte hartu duten herritarrak.

Bideoaren helburuak zeintzuk diren eta bideoa egitearen arrazoiak zehaztu ostean, bideoa bera erakutsi zuten herritarren aurrean. Ondoren, eztabaida sortu zen. Bizikleta erabiltzen duten hainbat herritarrek eurek bizi izandako esperientziak kontatu zituzten. Bestalde, Txirrinkako kideek esan zuten Oñatiko bidegorriak dituen puntu beltzak zehaztu behar direla, eta horietan sortzen den arriskua txikitzeko baliabideak ipini. Hori lortu ahal izateko, Foru Aldundiaren eta Udalaren "konpromisoak ezinbestekoak" direla azpimarratu zuten.

Txirrinkako kide Aitor Ugalde aurkezpenean | MIREIA BIKUÑA

Lorentxo Altube, beste belaunaldi bateko "eredu"

Arrastoa utzi du arrasatear ezagunak hiru belaunalditan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ebakuntza bat konplikatu ostean, uztailaren 16an hil zen Lorentxo Altube arrasatearra, herrian oso ezaguna zen pertsona. Zaldibar kalean jaio zen 1933ko abuztuaren 10ean, eta gaztetatik izan zuen Euskal Herriarekin lotura zuen ia edozerekiko interesa eta inplikazioa. 1980ko hamarkadan EAJko zinegotzi izan zen, eta gero, EAren sorreran, parte-hartze handia izan zuen, zuzendaritzako kide izan zen urte askoan.

Gipuzkoako Guraso Elkarteko zuzendaritzan ere aritu zenbait urtez, eta erretiratu ostean ekin zion euskal musika tresnak egiteari. Tornu zahar bat hartu, konpondu, eta txalapartarako makilak zein albokak egiten hasi zen; gerora, Euskal Herrian eta Europan euskal instrumentuen *enbaxadore* aritu zen hainbat erakusketa eta ikastaro ematen.

Altube, 2012ko erakusketa baten. | GOIENA

Beste bizimodu baten isla

Lorentxo galtzear dagoen belaunaldi bateko kidea zen: "Astelehenetik zapatura lana, domekan mezetara joan beharra... Hortik aurrera, segundo guztiak aprobetxatu behar izaten genituen bizitzaz gozatzeko", dio Iñaki Muxika lagun-minak. Orduko gazte gehienen antzekoa zela dio: "Zaletasun handia basoan ibiltzeko, edozein lan egin behar zenerako beti gertu... Haren bizitzari errepaso bat eginez gero ikus daiteke zenbat lekutan hartu zuen parte, nekaezina zen. Gero, erretiratu zenean eta musika tresnak egiten hasi, nik sorpresa eraman nuen. Lorentxo ezagututa ez da harritzekoa, baina gogoan dut niretako sorpresa izan zela. Kuadrillako lagunok Etxaluzen egon ginen hitzaldi baten, eta harrituta geratu nintzen zenbat zekien ikusita". San Andresko Torrepe elkartean "ordu asko" egin zituen, afari kontaezinak kuadrillan: "Iktusa izan zuenetik gutxiago agertzen zen elkartetik; hutsune handia utzi du. Zerbait egin behar zenean egiten zuen horietakoa zen", gogoratzen du Muxikak.

Aitorpenaz hunkituta

Herrigintza zer den erakutsi ziela aitortu du alabak, Ikerne Altubek: "Ondarea, kultura, hizkuntza... gordetzeko ahalegin handia egin zuen. Beti egon zen herrigintzan". Txalapartarekiko *maitasuna* geroago etorri zitzaion, erretiratu zenean: "Anaiak txalaparta jotzen zuen eta bat falta zitzaiela enteratu zenean bere eskuekin egin zien. Lagunek ekarritako egurrak bildu eta horiekin hasi zen; gerora, txalapartaren kultura sustatzen aritu zen hainbat urtez". 2012ko abenduan erakusketa jarri zuen Santamas Komisiñuek haren tresnekin, Harresi aretoan: "Bere lana errekonozitzea oso polita izan zen aitarendako. Urte asko egin zituen musika tresnak ez ezik beste hainbat tresna gordetzen. Hori bai, arantzatxoa geratu zitzaion tresnok Arrasaten bertan nonbait ikusgai jartzeko aukerarik ez zelako egon". Eskoriatzako Ibarraundi museoan dago gaur egun Lorentxo Altuberen ondarea.

Bilobekin "eredu"

Hirugarren belaunaldi batek ere ez du ahaztuko eurendako "eredu" izan zen Lorentxo Altube: "Oso oroitzapen onak gordetzen ditut. Edozer egiteko prest zegoen beti, beti gure ondoan. Asko ikasi dugu, bai horixe. Musika tresnekin egin zuen lana oso polita izan zen; orain, guri dagokigu hori guztia ez ahaztea eta ondorengoei erakustea", adierazi du bilobak, Jokin Amozarrainek.

ESANAK

"Hutsunea utzi du; zerbait egin behar zenean egiten zuen horietakoa zen"

IÑAKI MUXIKA | ASPALDIKO LAGUNA

"Arantza geratu zitzaion tresnak Arrasaten ikusgai jartzeko aukerarik ez zelako egon"

IKERNE ALTUBE | ALABA

"Oso lan polita egin zuen; orain, guri dagokigu hori guztia ez ahaztea"

JOKIN AMOZARRAIN | BILOBA

Jokin Amozarrain, Iñaki Muxika eta Gotzon eta Ikerne Altube 1978ko eta 1990eko mus txapelketetako argazkiekin. | J.B.

NIRE USTEZ

OSCAR RODRIGUEZ

Nire zalantzak

PSE-EEk erabaki du koalizio gobernuak osatzea foru aldundietan PNVren eskutik, nahiz eta azken hauteskundeetan hiritarrek laugarren lekuan kokatu.

Emaitza duinak baino gehiago lortu ditu PSE-EEk Gipuzkoan, eta posizio erabakigarria dauka herrialde honetan. Baina Bizkaian emaitzak txarrak izan dira oso, eta Araban, trantsiziotik izan diren emaitza txarrenak, bosgarren alderdia izanez lurraldean. Horrez gain, gaur eta hemen euskal sozialismoak hiru erronka handi dauzka: eredu gizarte-ekonomiko alternatibo, berritzaile eta propio bat asmatzea; gizarte eragileekin eta gizartearekin orokorrean beste era bateko erlazio bat eraikitzea; eta Euskadiren eta Espainiaren etorkizun instituzionalaren gainean jarrera bat adostea, eztabaida ireki eta sakon baten ondoren.

Eta orain nire zalantzak. Lehena: PNV edo *eskuin abertzalea*-rekin koalizio gobernuak egiteak lagunduko al du euskal sozialismoak behar dituen bide berritzaileak, alternatiboak eta propioak aurkitzen? Bigarrena: gobernuko egunerokotasunean buru-belarri egoteak erraztuko al ditu PSE-EEk gizartearekin behar dituen konexio berriak? Eta hirugarrena: zeintzuk dira Euskadirentzako estatus berri bat bultzatuko dituzten gobernuetan, abertzaletasun eremutik, parte hartzearen abantailak?

Barkatuko nauzue, baina erantzunak ez ditut idatziko. Zuendako uzten ditut gaurkoan.

Udako lehen hilabetean 18.000 lagunetik gora Musakolako kanpoko igerilekuetan

J.B. | ARRASATE

Ekainaren 20an zabaldu zirenetik 18.000 lagunetik gora pasatu dira Musakolako kanpoko igerilekuetatik. Uztailaren 16ra arte egindako zenbaketan, ekainaren 30a izan zen erabiltzaile gehien egon zen eguna; 1.821 pertsona joan ziren Musakolako igerilekuetara, Udalaren arabera: "Aldiz, jende gutxien erakarri duen eguna uztailaren 12a izan zen, 335 lagun hurbildu ziren". Batez beste, eguneko 1.000 lagun inguru pasatu dira.

Bestalde, uraren kalitatea zaintzeko hilero egin ohi diren analisietan, Kirol Sailak ikusi zuen igerileku ertainean *pseudomona aeruginosa* deritzon bakterioa agertu zela: "Ondorioz, 742/2013 Errege Dekretua betez eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, igerileku ertaina itxi egin zen". Neurri hauek gomendatu dituzte bakteria hori agertzea ekiditeko: "Uretara sartu aurretik ondo dutxatzea, bainujantziaren azpitik galtzontzilo edo kuleroak ez janztea eta kirola egiteko arroparekin uretan ez sartzea". Bakterio hori pertsonek izaten dute, gorputzeko eremu hezeenetan; besteak beste, beso azpietan, belarri-zuloetan eta uzki inguruan.

Igerileku txikia eta ertaina jendez beteta uztailaren 6an. | J.B.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian
Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

Biktima "guztiak" aitortu ahal izateko Arrasateko 'argazkia'

Jaurlaritzak Udalaren esku utzi du 1960tik 2010era arteko erailketen memoria

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskal gatazkak Arrasaten eragin dituen biktimen gaineko agiri informatiboa eman zion astelehenean Jaurlaritzako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarrok Maria Ubarretxenari: "Biktima guztiek behar dute errekonozimendua. Oso gai sentsiblea dela jakinda, gurako genuke gai honetan aurrerapausoak egitea, talde politiko guztiekin", dio alkateak. 1960tik 2010era EAEn izan ziren 707 hilketen gaineko informazioa biltzen du memoria osoak, eta Arrasaten ETAk eraildako zortzi pertsonaren, GALek eraildako bost pertsonaren eta indar polizialek eraildako pertsona baten argazkiak jasotzen ditu agiriak. Gainera, "bestelako egile batzuek" eraildako pertsona bat eta argitzeke dauden hiru kasu ere jasotzen dira; *Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri* du izenburu.

Maria Ubarretxena eta Aintzane Ezenarro agiriarekin alkatetzan. | JOKIN BEREZIARTUA

Oinarria aurrerapausoendako

Ubarretxenak uste du badela garaia biktimen errekonozimenduaren gaian aurrerapausoak emateko: "Kooperazioan eta elkarlanean oinarritu behar dugu. Urratsak oso astiro egin beharko ditugu, eta denon arteko adostasunarekin. Agiri hau oinarri bat da, Arrasateko argazkia, eta hori garrantzitsua da. Oso biktima ezberdinak agertzen dira dokumentuan, baina argi utzi gura dut ez direla inorenak. Biktimak biktima dira, eta guztiek behar dute errekonozimendua. Bada garaia gai horren gainean urratsak egiten hasteko". Memoria osoa *www.irekia.euskadi.eus* webgunean argitaratuko dute laster.

Irailean irekiko dute Zalduspe eta Osinaga arteko pasabidea

J.B. | ARRASATE

Irailean irekiko dute Zalduspe eta Osinaga arteko oinezko pasabidea. Irekiera datak hiru atzerapen izan ditu: maiatzaren 8an lehena, maiatzaren 29an bigarrena eta uztailaren 10ean hirugarrena. Udalaren arabera, une honetan helburu nagusia obra "era egoki eta azkarrean" amaitzea da, eta behin obra bukatuta aztertuko dira izandako arazoetan egon daitezkeen erantzukizunak. Epeak luzatzeko arrazoiak askotarikoak izan dira: "Eguraldi eskasa, obran oraindik zenbait elementu egitearen falta eta, batez ere, material horniketan eta pasabidearen sostenguak gauzatzeko sorturiko eragozpenak", dio Udalak.

Horrez gain, azken lanak egiterakoan arazoak sortu dira, eta zubiaren segurtasuna bermatzearren zenbait lan errepikatu egin behar izan dira. Obra amaitzeko geratzen diren lanen artean daude, pintura ematea, ur hodien frogak egitea, zoladura hormigonatzea, barandak ipintzea eta azken karga froga egitea. Construcciones Morga enpresak dihardu lanean, 119.410 euroko aurrekontuarekin.

Festak domekan Ferrerias kalean eta ospakizun berezia gaztetxean

J.B. | ARRASATE

Uztailaren 26a egun berezia da Ferreriasko bizilagunendako eta hainbat arrasatearrendako. Urteroko ekintzak izango dituzte Ferreriasen; nobedade bakarra da domeka denez meza arratsaldean beharrean goizean dela.

Gaztetxean, azken urteetako ohiturari eutsiz, Kubako iraultza gogoratzeko festa egingo dute, honako ekintza hauekin: kubatar bazkaria (14:30), salsa ikastaroa (18:00), *karropoteo iraultzailea* (19:30) eta linbo txapelketa internazionalista (00:30).

FERRERIAS KALEKO JAIEN EGITARAUA

- **08:00** Suziriak.
- **12:00** Txistularien kalejira.
- **12:30** Meza San Juan Bataiatzailearen parrokian.
- **17:00** Haur jolasak eta txokolate-jana.
- **19:00** Erraldoien konpartsa txikia.
- **21:00** Herri afaria.
- **23:00** Dantzaldia Gau Alai taldearekin.

Bikain igaro ditugu udaleku irekiak

KOMUNITATEA GOIENA
TXATXILIPURDI | ARRASATE

Uztailaren 22an amaitu genituen udaleku irekiak, apar festarekin eta karaokearekin. Oso ondo joan dira, guztiok oso gustura ibili gara. Eguraldiak asko lagundu digu aurten, eta, horri esker, aurreikusten genituen ekintza guztiak bete ditugu. Ekintza asko umeek eurek proposatu dituzte; 2 eta 12 urte arteko 202 ume eta 26 hezitzaile ibili gara aurten.

JOKIN BEREZIARTUA

Abuztuko geldialdiaren ondoren, irailaren 19an bueltatuko da Seber Altubera baserritarren azoka

Azken baserritarren azokan, ohiko postuez gain, Garaion Natur Eskolakoek eskulanak egiteko aukera eman zieten umeei, betiere, sasoiko produktuen garrantzia azpimarratuta; bihotz erraldoi bat egin zuten sandia zatiekin. Udaleko Enplegu eta Garapen Saileko teknikari Marga Garmendia pozik azaldu zen uztaileko azokarekin. Abuztuan ez da azokarik egongo eta irailaren 19an bueltatuko da; azoka horretan tomatea izango da protagonista.

Zorionak denoi!

Hauek dira Goiena Klubeko uztaileko zozketetako irabazleak

MUSIKA-KATEA
Nerea Arizmendiarrieta Jauregi (Arrasate)

DENBORA BERE LEKURA (Gerardo Markuletaren liburua)
Irati Pagoaga Zaloña (Aretxabaleta)
Maria Lazkano Balanzategi (Arrasate)

LEIZE ZULO ipuina
Aitor Madinabeitia Goñi (Arrasate)

OTARRA
Jose Luis Aizpurua (Bergara)

PUNTUEUS-eko kamisetak
Gotzon Agirre Arregi (Arrasate)
Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)
Imanol Soriano Labrador (Arrasate)
Maixa Arozena Irastorza (Aretxabaleta)
Esther Merino Madariaga (Arrasate)

ETXE-AUNDI JATETXEA
Luis Azkarate Retolaza (Bergara)

MUJIKA GOZOTEGIA
Amaia Nuevo Perez de Galdeaga (Arrasate)

ERREKA JATETXEA
Larraitz Arabaolaza Landa (Bergara)

ARRIKRUTZ sarrerak
Jesus Mari Elkoro Iturriaga (Arrasate)
Idurre Arbulo Ramos (Aretxabaleta)
Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:
Arrikrutzeko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikrutzeko txarteldegian. Sarrerek 3 hilabeteko epe muga izango dute. ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) **Harreman dendako otarrak** Otarra jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Beste sariak**. Zatoz, GOIENAren egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otalora Lizentziaduna, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00. **Abuztuaren 24tik aurrera**.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Harearekin magia egiten duen artista, amestera gonbidatuz

Borja Gonzalez artista zuzendari duen ikuskizuna egongo da bihar Herriko Plazan, 22:30ean hasita

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udazabal ekimenaren barruan, Ytuquepintas konpainiako kide Borja Gonzalez artistaren eskutik –Borja Ytuquepintas da haren izen artistikoa– *Sueños de arena* ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da bihar, zapatua, Herriko Plazan (22:30). Euria egiten badu, Amaia antzokian izango da, doan. Diziplina askotariko ikuskizuna da, harearekin irudi magikoak, akrobaziak, txotxongiloak eta zuzeneko musika batzen dituena, besteak beste.

Artearen iragankortasunaz

Ikuslea amestera gonbidatzen duen ikuskizuna da. Eskuekin bakarrik eta kristalezko mahai baten gainean, artista ilustratzaileak mundu bat sortuko du ikuslearen aurrean, askotariko emozioak biltzen dituen istorioak kontatuta. Hala, ikusleak ilustrazio bakoitzaren sorrera zuzenean ikusteko aukera izango du, betiere, Roc Sala teklatu-jotzaile eta konpositorearen zuzeneko musikarekin lagunduta. Honako hitz hauekin deskribatzen du Borja Gonzalezek bere lan esparrua: "Ohituta gaude artea denboran irauten duen zerbait bezala ikustera, artista hilda badago ere bizirik dagoen obra baten antzera. Baina artea iragankorra ere bada, artea izan daiteke une jakin batez irauteko beharrik izan gabe".



Borja Gonzalez harearekin lanean. | UDALA

Josu Larreategi eta campuseko ikasle bat, ariketa baten. | OINTXE

Saskibaloia baino "askoz gehiago" Ointxe klubaren campusean

J.B. | ARRASATE

Ointxe saskibaloi taldeak laugarren urtez antolatu du campusa. Urtez urte hobetzen doan ekimena da; horren adierazle da, adibidez, iazko ume kopurua bikoiztu egin dela aurten. Laugarren edizio honetan 60 ume baino gehiagok hartu dute parte, bi txandatan banatuta. Uztailaren 6tik 11ra izan zen lehen txanda –12 urtetik 15 urtera artekoak– eta uztailaren 12etik 19ra –8urtetik 11 urtera artekoak– bigarrena. Bailara osoko neska-mutikoek hartu dute parte.

Orioko herri eskolan hartu dute ostatu, kiroldegi ondoan, eta, saskibaloiaz gain, beste hainbat ekintza egiteko aukera izan dute: "Campusaren helburua bada saskibaloia erakustea, eta horregatik ekarri ditugu elite mailako bi entrenatzaile, baina hori baino askoz gehiago da. Beste hainbat ekintza egin ditugu: eskalada, *rafting*-a, piragua...", dio campuseko arduradun Josu Larreategik. Hari esker Jota Cuspineraren bisita izan zuten lehen txandakoek eta Jon Txakartegirena bigarrenekoek.

"Oso esperientzia polita"

Larreategik oso balorazio positiboa egin du: "Oso esperientzia polita izan da eta dagoeneko martxan dago, errotu da". Larreategiri laguntzen lehen taldeko zenbait jokalari ibili dira bi aste horietan lanean.

Vigoko Transilvanians taldearen reggaea Arrasate tabernan

Vigoko (Galizia) Transilvanians taldeak joko du astelehenean, hilak 27, Arrasate tabernaren kanpoaldean (19:30). Talde galiziarrak reggae doinuak ekarriko ditu San Juan Bataiatzailaren parrokia ondora, Europan zehar egiten ari diren bira amaitzeko. *Echo, vives & fire* (Liquidator, 2014) diskoa aurkeztera datoz; 2004an sortu zen taldea eta reggae estiloaren munduan sona handiko taldea da. Zazpi musikarik osatzen dute taldea.

Zarugaldeko jaietako afarirako txartelak, uztailaren 31ra arte

Abuztuaren 29an ospatuko dituzte Zarugalde kaleko jaiak. Txupinazioa eta haurrendako jolasak (12:00), triki-bertso poteoa (13:00), mus eta partxis txapelketak (16:00), bonba japoniarrak (19:00), buruhandiak (19:10), txistulariak (19:30), afaria (21:30), erromeria (23:00) eta zezensuzkoa (00:00) izango dituzte, besteak beste. Afarirako txartelak salgai daude dagoeneko Branka tabernan eta Muxibar jatetxean, eta uztailaren 31ra arte egongo dira salgai.

Ferrerias kaleko jaiak

ondo pasau!

Egitaraua:
08:00 Etxafleruak.
12:00 Txistularien kalejira.
12:30 Meza San Juan Bataiatzailearen Parrokian.
17:00 Haur jolasak eta txokolatada.
19:00 Erraldoien konpartsa txikia.
21:00 Herri afaria.
23:00 Dantzaldia "Gau Alai" taldearekin.

Arrasate
UZTAILAK
26
domeka

ILEA
ILE-APAINDEGIA
943 79 87 62

Ferrerias 28
Tel.: 943 79 96 55

IRATI TABERNA
Ferrerias kalea 27
Tel.: 943 79 56 11

Mikropigmentazioa
Zilarra
Oparriak
AKER
Tattoo & Piercing
Tlfno: 943799284
Ferrerias 44 behea

GORKA ileapaindegia
Ferrerias 35
Tel.: 943 77 13 78

Konfiantzaren pedagogia izango dute Txantxiku Ikastolan

Haurraren ahalmenak errespetatzea eta sustatzea oinarri dituen sistema berritzailea lantzen hasiko dira Oñatiko Txantxiku Ikastolako Haur Hezkuntzan.

Haurrarengan sinetsi behar delako, haurrak konfiantza izan behar duelako bere buruarengan, bere irakasle eta ikaskideengan eta baita bere testuinguruan ere, konfiantzaren pedagogiaren alde egin du Txantxiku Ikastolak. Irakasleen eta gurasoen prestaketa egingo dute ikasturte berrian, eta proiektua 2016-2017an gauzatuko da.

EZAUGARRIAK

Txantxiku Ikastolako zuzendari Zigor Ibarzabalek azaldu duenez, lau ildo nagusi ditu sistema horrek: "Haurra norbanako bezala garatzea, umea bere osotasunean garatzea; adin ezberdinetako haurrak harremanetan jartzea, elkarrekiko interakzioan batzuk besteengandik ikas dezaten; espazioaren antolaketak umearen garapen integralean duen garrantziaz jabetzea eta ikastolan familiaren presentzia areagotzea".

Haurrak era autonomoan garatzeko duen gaitasunean konfiantza izatea da sistema horren ardatza

Umearen erritmo biologikoa, kognitiboa eta emozionala errespetatuko ditu, hiru dimentsioko espazioan

Familia eta ikastola elkarlanean aritzea garrantzitsua da, horrek ziurtasuna emango dio-eta umeari

Rafael Cristobal doktore, irakasle eta hezkuntza adituaren esanetan, "haurrak era autonomoan garatzeko gaitasuna du eta gaitasun horretan konfiantza izatea da pedagogia horren ardatz nagusia. Berezko gaitasun hori garatzeko, ezinbestekoa izango da mugimendu eta jarduera librean aritzeko baldintzak, baliabideak eta denbora eskaintzea". Hala, orain arteko gelak egokitu egin behar dira espazio zabal eta interesgarriak sortzeko. "Hau da, proiektu pedagogikoak eta proiektu arkitektonikoak bat egin behar dute. Hiru dimentsioko egiturak haurren eskura jarri behar ditugu esploratzeko eta esperimentatzeko", azaldu du Zigor Ibarzabalek, Txantxiku Ikastolako zuzendariak.

Pedagogia eredu horren beste gako bat da umearen erritmo biologikoekiko, kognitiboekiko eta emozionalekiko errespetua. "Haur bakoitza ezberdina da eta horren baitan dituen behar, gogo, interes eta bestelakoak umearenak propioak dira; hau da, norberaren beharretara egokitutako hezkuntza izan behar da", dio Cristobalek.

Horrez gain, haurrek duten berezko gaitasun hori garatzeko, behar-beharrezkoa da umeak elkar harremanetan jartzea. Adin ezberdinetako haurrek elkarri begira, nagusiagoak imitatuz, txikiagoak lagunduz eta jolas interakzioan ikasten baitute.

"Hori guztia aurrera eramateko oso garrantzitsua izango da familia eta ikastola elkarlanean aritzea. Umeari familiako kideekin duen atxikimenduak ziurtasuna ematen dio eta lotura hori ikastolako irakaslearekiko garatzea oso garrantzitsua da, umearen ikasketa prozesua ahalik eta egokien bideratzeko", dio Ibarzabalek.

TXANTXIKU IKASTOLA. Rafael Cristobal (esk.) eta Txantxiku Ikastolako koordinazio taldea.

EREMUA. Arizmendi Ikastola, Uribarri gunea.

HILEAN BEHIN GURASOENDAKO MINTEGIAK EGINGO DITUGU

Konfiantzaren pedagogian, haurraren ikas-irakas prozesua eraginkorra izan dadin, haurraren testuinguruak, inguratzen duen egoera eta espazio horrek garrantzi handia du. Familiak garrantzi handia du.

Hala, Debagoieneko guraso guztiei zabalik dagoen mintegia antolatu dugu Txantxiku Ikastolan. Zero eta urte bateko umeen gurasoei eta haurdun dauden gurasoei zuzenduta dago. Mintegiak hilean behin izango dira Txantxiku Ikastolan bertan, eta umeak bere beharrak komunikatzeko igortzen dituen seinaleak interpretatzen irakatsiko dute.

Mintegiek bi orduko iraupena izango dute, arratsaldeko bostetan hasita; lehenengo zatian ikuspegi teorikoa landuko dute, eta ondoren, aurkeztutako gaiaren gainean sortzen diren zalantzak, kezkak, esperientziak eta ideiak partekatuko dituzte, hausnarketa eran.

Mintegietan parte hartzeko izena eman behar da aurrez ikastolako idazkaritzan. Prezioa 20 euro da, bikoteko. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Irailak 18: Mintegiari sarrera. Gurasotasuna eta bikote krisia. Haurraren lehen sei urteen garrantzia
Urriak 23: Senaren edo instintuaren teoria eta konfiantzaren pedagogiaren oinarriak
Azaroak 20: Umearen erritmo biologiko eta intelektualak
Abenduak 11: Atxikimendu sena. Jatorria eta ontogenia. Atxikimendu neurgailuak
Urtarrilak 22: Banatzea, galera. Banaketa eskolatzean
Otsailak 26: Diadaren barne fenomenoa. Autoestimuaren jatorria
Martxoak 18: Atxikimendu instintuaren ikerketa. Atxikimendu motak eta ezaugarri familiarrak
Apirilak 29: Ustiapen eta garapen kognitiboa. Erritmo kognitiboak
Maiatzak 20: Ihes eta beldur sena eta horren agerpenak

Herritarren botoa jasotzeko epea zabalik, azalerako

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bi hilabete barru izango dira, gutxi gorabehera, aurtengo San Migel eta Errosaixo jaiak, baina jaietarako prestatzen den egitarauak iraileko lehen asteetarako antolatzen diren ekitaldiak ere jaso ohi ditu. Abuztua dela eta, uztailerako lotuta egoten dira ekitaldi gehienak. Aurten ere horixe gertatu da. Udaleko Kultura Sailarendako hilabete betea izaten ari da uztaila, eta jaietarako egitaraua betetzen doa.

Programa hori jasoko duen egitarauaren azal lehiaketa, esaterako, bukatu da. Bederatzi lan aurkeztu dituzte aurten eta irabazlea Kultura batzordean erabaki dute. Epaimahaiak bi lan oso parean epaitu zituen eta azken erabakia atzo, eguena, goizean egindako kultura batzordean hartu zuten. Bigarren saria emateko epea, baina, bihar, egubakoitza, zabalduko da. Herritarren bozka gehien jasotzen dituen lanak irabaziko du bigarren sari hori. Hala, irabazlea ez beste zortzi lanak jarri dituzte ikusgai kultura etxeko harreran. Datorren eguaztenera arte, uztailak 29, egongo da aukera botoa emateko. Gustuko lanaren zenbakia, izen-abizenak eta posta elektronikoa idatzi behar dira orri batean botoa emateko. 200 txantxi irabaziko ditu herritarren boto gehien jasotzen dituen lanaren egileak. Lehen sarituak, 300 euro eta 200 txantxi.

Artisauak

Bestalde, Herri Egunean unibertsitatearen klaustroan egingo den artisauen erakusketan parte hartzeko 40 lagunek baino gehiagok eman dute izena, inoiz baino gehiagok, Kultura Sailetik aditzera eman dutenez. Orain, aukeraketa egitea egokituko zaio Kultura Sailari; izan ere, plaza mugatuak ditu artisauen azoka horrek. Zortzi postu, gainera, herriko artisauendako daude gordeta.

Danborradei dagokienez, nagusien danborrada antolatzeko batzordeak hartu du bere martxa. Haurren danborradaren entseguak, berriz, irailaren 1ean hasiko dituzte. Oraindik erabaki barik dagoen arren, litekeena da umeen danborrada irailaren 26an egitea, 19an egin ordez.

Lehiaketara aurkeztu diren zortzi lan. | OIHANA ELORTZA

Umeen kategorian hiru lan daude

18 urtetik gorako kategorian bederatzi lan aurkeztu dituzte aurtengo azal lehiaketara. Umeen kategorian, berriz, hiru. Eta gaztetxoen lehiaketa irabazten duenak ere izango du bere saria; dirutan ez, materialetan eta sarituaren adinera egokitutako oparia jasoko du.

Umeek aurkeztutako marrazkiak. | GOIENA

'Euskal presoak Euskal Herrira' dioen banderatxoaren auzia Udalak irabazi du

O.E. | OÑATI

Carlos Urkixok, Espainiako Gobernuko ordezkariak, auzitara jo zuen Oñatiko udaletxeko fatxadan *Euskal presoak Euskal Herrira* zioen banderatxoa jarrita zegoelako. Donostiako administrazioarekiko auzietako auzitegiak atzera bota zuen. Prozedura okerra erabiltzea leporatu zitzaion eta zapia kentzeko Udalari eskatu barik auzitegietara jo izana aipatu zion epaileak. Urkixok Oñatiko Udalaren kontra azaldutakoak behar bezala ez zituela frogatu esan zion Estatuko abokatuari. Euskal Herriko Auzitegi Gorenak berretsi egin du erabakia, apelazio helegitea bertan behera utzita.

Arezzorako prestatzeko eta dirua biltzeko kontzertua dugu domekan

K OMUNITATEA GOIENA | GANBARA ABESBATZA | OÑATI

Abuztuaren bukaeran Arezzoko (Italia) nazioarteko kantu lehiaketan parte hartuko dugu, eta, kontzertu hori prestatzeko eta hara joateko dirua biltzeko, kontzertua egingo dugu domekan Santa Anan, 20:00etan.

Kontzertuaren oinarria izango da han abestuko dugun programa. Dirua batze aldera, bost euroko sarrera izango du domekako emanaldi horrek, eta, sarreraz gain inork aparteko laguntzarik eman gura izanez gero, borondatea jasotzeko kutxa egongo da, eta Ganbarako produktuak salgai.

Abuztuaren 28an eta 29an kantatuko dugu Arezzon, eta autobusez egingo dugu bidaia.

Kubako egun nazionala ospatzeko ekintzak egingo ditu bihar Acesmak

O.E. | OÑATI

Bihar, zapatua, ekintza ezberdinak egingo ditu Acesma elkarteak Kubako egun nazionala ospatzeko. Hala, 11:00etan iritsiko dira parte hartzaileak Foruen plazara. 12:00etan, haurrendako marrazki lehiaketa egingo dute. Bitartean, Joandry Maceo Almira pailazoak ikuskizuna egingo du eta ilean trentzak egiteko aukera ere egongo da. 13:00etan, latindar dantza erakustaldia egongo da Foruen plazan bertan eta horren segidan, festa latindarra.

Bi zozketetarako txartelak ere salduko dituzte. Sari bat izango da latindar produktuen saski bat. Bestea, berriz, Kubarako bidaia bat, urrian egin beharrekoa, bi lagunendako.

Olabarrietako pasabidea egiteko eraikina abuztuan botako dute

O.E. | OÑATI

Olabarrieta auzoan pasabidea egingo dute, GI-2630 errepidearen azpitik, bidegorria egiteko. Hala, herria inguratuko duen *erantzun berdea* osatuta geldituko da. Aiastui baserrira joateko bidegurutzean dagoen eraikin bat da botako dutena, ate urdinak dituena, hain zuzen ere. Teilatua kenduta du dagoeneko, eta, Mikel Biain alkateak adierazi duen moduan, abuztuan hasiko dira eraikina botatzen.

Bestalde, Olabarrieta herrigunearekin lotuko duen bidegorria egiteko lanak Gabika enpresak egingo ditu, eta, abuztuan ez bada, irailean hasiko dituzte.

Lehenengo Erregional Mailako taldea atera dezake Aloña Mendik futbolean

O.E. | OÑATI

Aloña Mendiko futbol sailak denboraldi berrirako Lehenengo Erregional Mailako taldea atera gura du, eta horretan ari da lanean. Neurri horrekin, bereziki Gazte Mailako taldetik igo diren hainbat jokalariri futbolean jarraitzeko aukera eman gura die Aloña Mendik, "eta horrela elkartearen etorkizuna sendotu. Horrekin batera, futbola utzita zutenek ere futbol federatuan jokatzeko aukera izango dute".

Bestalde, Ohorezko Erregional Mailako taldeak astean hasi ditu denboraldi berriko entrenamenduak. Talde teknikoan, Igor Serrano entrenatzaileak Xabier Agirre Agiriano oñatiarra izango du laguntzaile.

Uztailaren 19an egin zuten garbiketa. | IMANOL SORIANO

Araozko zabortegitik beste lau tona zabor atera dituzte

Etxetresnak, pilak, bateriak, plastiko zatiak, botilak... hondakinen artean

L.Z. / O.E. | OÑATI

Oñatiko Zero Zabor taldeak deituta, bigarren urtez egin dute Araozko kontrolik gabeko zabortegia garbitzeko deialdia. Iaz lau tona zabor jaso zituzten. Aurten beste horrenbeste atera dute.

Ardura

Joan den domekan egin zuten Zero Zabor astearen barruan egitekoa zen Araozko zabortegi zaharraren garbiketa auzolanean. Hogei bat lagun elkartu ziren, eta galtzak bete lan ibili ziren; izan ere, zabor asko dago pilatuta Araozko zabortegian. Etxetresnak, pilak, bateriak, plastiko zatiak, botilak... Polea baten laguntzarekin gora atera eta bi edukiontzi handitan eraman zituzten hondakin horiek guztiak. "Helburu bat baino gehiago ditu ekintza honek", azaldu zuen Imanol Biain oñatiarrak. "Alde batetik, gure ingurunea garbitzea; eta bestetik, kontzientziazio lana. Sasoi batean kontrolik gabeko zabortegiak erabiltzen zituen jendeak, baina gaur egun daukagun zerbitzuarekin ezin daiteke onartu. Auzo, kale, etxe edo baserri guztietara heltzen da hondakinak batzeko sistema. Zorionez, gutxi dira oraindik ere horrelako tokia, bide ertzak, toki ezkutuak, erabiltzen dituztenak, baina egon badaude, eta eskatuko genieke arduraz jokatzeko", gaineratu zuen Oñatiko Zero Zabor taldeko kideak.

Bigarren urtez egin dute garbiketa, baina ez dakite beste zenbat aldiz egin beharko duten, pilatuta dagoen zabor kopurua handia da-eta. "Sastrakak kentzen ditugun neurrian, geruzaka, zabor berriak agertzen dira eta konturatu gara asko dagoela. Beraz, oraindik ez dakigu beste zenbat urtetarako lana gelditzen den", adierazi zuen Biainek.

Ontziak

Bestalde, Zero Zabor astearekin batera aurkeztu zuten *Ontziratu zaitez* kanpaina, Udalak Kutxa Ekogunerekin batera prestatukoa. Herriko arrandegi eta harategietan ontziak, tuperrak, erabiltzen ohitzea da kanpainaren helburua. Hilaren 28ra bitartean ontziak banatzen jarraituko dute eta 30 euroko zozketa egingo dute hilean behin, sei hilabetez.

NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Kartografiak

Hegan egiteko abilezia izan eta hegan egingo bagenu, lainoek gure pisuari eusteko gaitasuna balute eta laino garaienean ahuspez etzango bagina, mapen iruzurraz ohartuko ginateke.

Inperioek kartografoak zerabiltzaten bereganatu nahi zituzten lurraldeak mapetan marrazteko, eta, behin paperean konkistatuta, fisikoki konkistatzeko. Kartografia lauso haietan, erdi-erdian inperioa irudikatzen zuten, handi eta boteretsu. Alboetan, desitxuratuta, jatorrizko izenik gabe, kolonizatuko zituztenak.

Kartografo garaikideagoek ere botere harreman eta ideologia jakinak kartografiatu dituzte. Oraingoan gu gara, beste askoren artean, inongo mapetan agertzen ez garenak, eta, ondorioz, zientziaren egiaren arabera, existitzen ez garenak.

Laino garaienetik askoz beheragokoan etzango bagina eta herri eta hiriei erreparatuko bagenie, adreiluzko kartografia iruzurtiak direla ohartuko ginateke.

Autoz dabiltzan gizon, zuri, diru-jabeek marraztu dituztela mapak. Beraiek eta beraientzat. Gure bizitzako eszenatokia diseinatu digute, iritzia galdetu gabe. Beraiek daude maparen erdian, boteretsu eta eredugarri. Alboan, hormigoizko enparantzetan eroso sentitzen ez dena, alboan, koskarik gabeko ibilbiderik aurkitu ezin duena, alboan, gauez farolen argi bila dabilena. Alboan, gu gehienok.

"Beraiek eta beraientzat marraztu dituzte mapak"

Abuztuaren 23an ospatuko dute aurtengo Lizargarate eguna

Trikitilariak iazko jaialdian. | LTE

O.E. | OÑATI

Lizargarate eguna abuztuaren 23an ospatuko da eta egitaraua prest dute. Hamaiketakoa egin ostean, herri kirol erakustaldia izango da eguerdian, 12:00etan, eta 14:00etan bazkaria. Aurreko urteetan bezala, aurten ere erromeria izango da bazkalostean eta erromeria horrek jarraipena izango du afari-merienda egin eta gero. Laja eta Lutxurdixo izango dira musika jarriko dutenak.

Bazkarirako txartelak salgai daude, 20 eurotan, Izarraitz eta Arrano tabernetan. Hamaiketako, bazkari eta afari-meriendarako balio dute. Txartela erosteko azken eguna abuztuaren 16a da.

ABIXARAN

Zabaleta bigarren Collaradan

Villanuan (Huesca) 2KV Collarada lasterketa jokatu zuten joan den asteburuan. Bi proba antolatu zituzten: 17 kilometrokoa bata eta 8,5 kilometrokoa bestea. Maite Zabaleta oñatiarrak (Abixaran) bigarren egin zuen ibilbide motzean; Joseba Molinerok, laugarren. Luzean, Puyar y Baxar lasterketan, Axier Alonsok zazpigarren amaitu zuen.

Farmaziak txandaka zabalduko dituzte irailaren erdira bitartean

Udako oporrak direla eta, herriko lau farmaziak txandaka zabalduko dituzte irailaren erdialdera arte. Hain zuzen ere, abuztuaren 16ra bitartean, Garate (Kale Barria) eta Amaia Igartua (Kale Zaharra) farmaziak egongo dira zabalik eta abuztuaren 17tik irailaren 16ra, berriz, Juldain (Kale Barria) eta Anduaga (San Lorentzo) farmaziak.

Aurre-inskripzioa egin daiteke gimnasioko kirol zerbitzuetan

Datorren ikasturtean, irailetik aurrera, Zubikoa kiroldegian antolatuko diren gimnasiako eta fitnesseko udal kirol zerbitzuetan parte hartzeko lekua erreserba daiteke dagoeneko, aurre-inskripzioa egin-da. Bestalde, gaur bukatzen da igeriketa ikastaroetako izen-ematea. Irailean beste aukera bat egongo da.

'ByPass' filma emango dute eguaztenean plazako frontoian

Zinema aire zabalean ikusteko aukera egongo da datorren eguaztenean, hilak 29. Patxo Telleriak eta Aitor Mazok zuzendutako *ByPass* filma emango dute, 22:15ean, plazako frontoian, Kalean egitarauaren barruan. Abuztuaren 14an kontzertu ibiltaria eskainiko du Ulysses Ensemble taldeak herriko kaleetan zehar.

'On line' egin daitezkeen ikastaroak ere bai KZgunean

Informatika arloa ezagutu nahi dutenentzat edo langabezian daudenentzat oso interesgarriak diren ikastaroak eskainiko dituzte KZgunean irailean. Horietako batzuk *on line* egitekoak izango dira; sare sozialen eta argazkien gainekoak, esaterako. 09:00etatik 13:00etara egongo da zabalik KZgunea.

Irailaren 1ean hasiko dira umeak entseatzen, danborradarako

Irailaren 1ean hasiko dituzte haurren danborradako entseguak, eta, hain zuzen ere, egun horixe izango da azkena izena emateko. Entseguak martitzenetan eta eguenetan izango dira, Eltzian, 18:45etik 19:30era. Izena emateko, helbide honetara bidal daitezke datuak: *oinatikotanborradatxikia@gmail.com*.

Irala kalea bete-bete eginda Santa Marina jaietako kontzertuekin

Jendetza gerturatu zen domekan Lord Witch, Idoia Bediaga eta Herzog anaien emanaldiak ikustera, aurtengo jaiei agur esateko jaialdian

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Oxirondoko Santa Marina jaiak agurtzeko kontzertu sorta berezia izan zen domekan Irala kalean. 20:00etan hasita, herriko Lord Witch heavy taldea aritu zen lehenik, arratsaldeko zortzietan, bertan bildu ziren rock gogorraren maitaleen gozamenerako.

Haien ostean, Idoia Bediaga bakarlariaren txanda iritsi zen, zeinek hiru abestitako kontzertu labur bat eskaini zuen. Bigarrenez izan da aurten bizkaitarra Santa Marina jaietan.

Azkenik, Herzog anaiak igo ziren jaialdirako bereziki prestatutako agertokira, eta haien aita Mikel Herzog famatuaren kolaborazioa izan zuten. Azken hori bergararra da jatorriz, eta Nekez, Orquesta Alcatraz eta La Decada Prodigiosa musika talde ezagunetan aritu izan da, besteak beste. 1998an Eurovision jaialdian parte hartu zuen.

Lord Witch taldeak dena eman zuen etxean. | IMANOL SORIANO

Herzog anaien arrakasta

Hain zuzen ere, Los Herzog bikotearen emanaldiak sortu zuen ikusmin handiena domekan. Mikel eta Ivan aitaren herrian aritu ziren kantuan. Telecinco telebista kateko *La voz* saioan parte hartzearren egin ziren ezagun bi gazteak. Ivan Herzogek adierazi duenez, "izugarri pozgarria" izan zen bergararren erantzuna. "Bihar bertan itzuliko ginateke", gehitu du haren anaia Mikelek.

Haiek azaldu dutenez, Mikel, anaia zaharrena, ume-umea zela eta Ivan artean jaiotzeke zegoela izan ziren azkenengoz Bergaran, eta ez zuten inondik inora ere horrelako harrerarik espero. Orain, 20 eta 17 urte dituzte, hurrenez hurren. "Aitak esana zigun jendea ez zela batere mitomanoa Bergaran, baina kontzertu ostean milaka argazki eta sinadura eskatu zizkiguten", dio Mikel semeak.

Mikel Herzog aitak, berriz, nabarmendu du "oso berezia" izan zela herrira itzultzea. Gaineratu du bera Irizar pasealekuan bizi izan zela, kontzertua eman zuten tokitik oso gertu. "Jende ezagun askorekin elkartu nintzen, duela asko ikusten ez nituenak". Nabarmendu du musika gustuei dagokienez aldaketa handia igarri duela bere herrian: "Lehenago, ia heavya eta rock gogorra bakarrik entzuten zen, nahiko itxia zen alde horretatik Bergara. Orain, aldiz, herritarrak beste estilo batzuetara ere hurbildu direla dirudi". Bergarak "modernitate lezio bat" irakatsi ziela aitortu du.

Toki aldaketa

Aurtengo berritasuna izan da aipatutako kontzertuak herriaren erdi-erdira, Irala kalera, ekartzea.

Orain arteko jaietan ekintza gehienak Matxiategi inguruan egin izan dira, baita aurtengo festetako gainontzeko ekintza gehienak ere. Domekako kontzerturako, baina, agertokia leku desberdin batean prestatu zuten.

Antolatzaile lanetan aritu den Mikel Murgizuk azaldu duenez, jaiak "gune desberdinetan banatzeko" asmoz egin dute hau. Iaz frontoian izan zen domekako kontzertua, eta datorren urtekoa, ziurrenik, Simon Arrieta plazara eramango dutela aurreratu du. Izan ere, azaldu du Santa Marina jaiak Oxirondoko barruti osoko jaiak direla, eta noizean behin jendea kexatu egiten dela haren etxe inguruan ez direlako ekintzak antolatzen.

Kontzertu handirako eguna eta ordua ere ez zuten nolanahi aukeratu. Murgizuk azaldu du domeka gauean egitea nahita erabaki zutela, asteburua kanpoan edo Antzuolako jaietan pasatu duen jendea ere erakartzeko. Jaien antolaketan parte hartu dutenak emaitzarekin oso pozik daudela adierazi du: "Jendeak zoriondu egiten gaitu kaletik". Adin eta gustu askotariko ikusleen presentzia ere nabarmendu du Murgizuk.

Herzog anaiak miresleekin. | LOS HERZOG

Herzogtarrak eta Bediaga. | IDOIA BEDIAGA

Tabernariak pozik

Irala kalea da Bergarako taberna gunerik garrantzitsuenetakoa, eta joan den astekoaren moduko ekitaldiek eragin positiboa izan ohi dute bertako ostalarientzat. Pol-Pol tabernako Dunixi Olabarriak azaldu du jende ugari ibili zela egun hartan.

Taberna horrek, Irala kaleko gainontzekoek bezala, Santa Marina jaiak antolatzen lagundu du. Olabarriak dio "kalean edozer gauza egonda" bertako tabernariak "pozik" daudela.

NIRE USTEZ

PEDRO GARITANO

Kolore primarioak

Jubilazioaren ostean, jarduten den afizioetako bat izan ohi da pintura artistikoa. Horretarako, beharrezkoak dira hainbat osagai; mihise zuria, pintzela eta hiru kolore primarioak maneiatzen jakitea. Laburbilduz, eta landu nahi dudan gai honekin lotuz, nire ustez, gizakiak jaiotzen garenean mihise zuri bat bezalakoak gara, non gure edukazioa eboluzionatu eta jorratuko dugun, eta horretarako beharrezkoak dira hiru kolore primarioak; Familia, Eskola eta Udaltzainak.

Hau esan ostean, zutabearen gaia da Bergara herrian nire ustez ikusgai dagoela zaborraren gehiegikeria herriko kale nagusietan. Bertan plastikoak, paperak, litxarrerien hondarrak… ageri dira –zaborrontzi nahikoa egonda ere.

Lehen pertsonan bizi izana dut ume batek plastiko poltsa bat lurrera bota eta nik "jausi egin zaizu" esanda, berarekin zihoan gizonak –aita?– esatea, oso zorrotz, niri kasu zipitzik ez egiteko.

Laburtuz, familiak, kolore horietako batek huts egiten badu, Eskolak ez badu ordezkatzen, eta Udaltzainak ere ez, koadroa ez da ondo aterako, zatarra izango da, gure herriaren egoeraren antzera.

Eta hau nik neronek konfirmatu dezaket, minez, nahiko argazki eta abarrekin.

"Bergaran ikusgai dago zaborraren gehiegikeria"

Santa Ana jaiak ospatuko dituzte asteburu honetan Bolua auzoan

M. T. | BERGARA

Santa Ana jaiak ospatuko dituzte asteburuan Boluan, Arruriagan eta Burdiñaten. Gaur bertan emango diete hasiera ospakizunei. 19:00etan trikitilarien kalejira abiatuko da Barrenkaletik Bolura, eta han, txupinazoa eta Santanatxoren jaitsiera izango dira, zortzietan. Gero, buruhandiak eta sardina-jana izango dira, eta gauean , 22:30ean, dantzaldia, Cafe Irlandes taldearen eskutik.

Zapatua ere ekintzaz beteta egongo da goizetik gauera arte. Goizeko hamarretan, dianak auzotarrak esnatuko ditu, etxafuego eta guzti. Goizean zehar, pintura eta marrazki lehiaketa egongo da, baita patata-tortilla lehiaketa ere, 11:00etan. Eguerdi aldera, berriz, umeentzako puzgarriak jarriko dituzte, eta Bolua otxoteak emanaldia egingo du.

Auzo bazkaria

Zapatuan, 14:30ean, mahaiaren bueltan bilduko dira auzotarrak. Bi aukera izango dira: bata, Bolua kalean, non oilaskoa patatekin eta entsalada jango duten; bestea Azpeitxi jatetxean izango da, eta menu berezia prestatu dute aurrez eskatu dutenentzat: bi lehen plater, arraina eta haragia.

Bazkalostean, trikitilarien musikak segituko du giroa alaitzen eta toka eta igel txapelketak egingo dituzte. Gauean, dantzaldia izango da Tsunami taldearekin.

Domeka, azken eguna

Asteburuarekin batera amaituko dira Santa Ana jaiak. Hala ere, domekan izango da azken eguna aprobetxatzeko aukerarik.

10:45ean diana izango da, eta segidan, hamaiketan, pilota partiduak frontoian. Lehenik, auzoko bikote gazteak arituko dira, eta ondoren nagusiak.

12:00etan meza izango da Santa Ana ermitan, eta ondoren pintxoak banatuko dituzte. Arratsaldean, berriz, mus txapelketa, umeendako puzgarriak, DJ Pinoren musika eta buruhandiak izango dituzte, besteak beste.

Azkenik, 20:00etan Santanatxoren igoerarekin, datorren urtera arte agurtuko dituzte auzotarrek Santa Ana jaiak.

Pol-Pol mendizale taldeak lokala erosiko du

M. T. | BERGARA

Gaur egun Udal Pilotalekuaren gainean egoitza duen Pol-Pol mendizale taldeak lokal bat erostea erabaki zuen joan den astean eginiko batzar orokorrean.

San Pedro kaleko lokal batera aldatuko du elkarteak egoitza, eskriturak sinatu eta beharrezko lanak bukatutakoan, Bittor Alberdi presidenteak azaldu duenez. Hala ere, gaineratu du ez daukatela "inongo presarik", eta ez dute toki aldaketarako datarik finkatu. Gisasola burdindegiaren alboan dago lokal berria.

Parte-hartze handia

Batzar orokorrean, adibidez, Pol-Pol elkarteak aurten izandako jardueraren balorazioa egin zuten.

Alberdik adierazi duenez, elkartekideak, oro har, "pozik" daude urtean zehar antolatutako irteerek izan duten parte-hartzearekin. "Beteranoetan hirurogei pertsonatik gora elkartu diren irteerak izan ditugu", dio presidenteak. Eta irailaren 12rako eta 13rako Pirineotara antolatu duten txangoan jada 44 pertsona apuntatu direla nabarmendu du.

Bidekurutzeta kaleko lanak, bide onean. | JOSU BILBAO

Bidekurutzetako lanak, abuzturako bukatuta

Oinezkoendako espazio handiagoa izango da, eta autoendako txikiagoa

JOSU BILBAO | BERGARA

Bidekurutzetako lanak abuzturako bukatuko dituztela espero du Bergarako Udalak. Obrak martxa onean doaz, eta gutxi gelditzen da kalea ibilgailuendako zabaltzeko. Oinezko eta ibilgailu ugari pasatzen diren kalea izanda, Udalak plataforma bakarreko kalea egin du espazioa hobeto ordenatzeko, eta espaloiak malda txikiko konexio batekin lotuko dira. Espaloi bat ia bukatuta dago eta bestean lanean dabiltza.

"Hasiera baten adjudikatutako epeak baino lehenago amaituko direla obrak uste dugu, abuzturako lanak bukatuta egongo direla aurreikusten da-eta. Obrak oso martxan onean doaz. Ezkerreko espaloia falta da bukatzeko, baina jada amaitzeko lanak egiten hasi dira. Abuztuan asfaltoa jarriko da, eta, orokorrean, obrak bukaera aldera daudela esan daiteke", azaldu du Edu Alvarezek, Bergarako Udaleko aparejadoreak.

Proiektua errespetatzen

Guztira, 757 m2 eraberrituko dituzte. Lehen, oinezkoentzako 214 m2 zeuden, eta, proiektua bukatutakoan, 353 m2 izango dira. Autoentzako espazioa, aldiz, 543 m2-koa zen, eta, obra amaitutakoan, 405 m2-ra murriztuko da: "Zirkulazioa etenda egon da, jendea errepidetik joateko ez dagoelako leku fisikorik. Proiektuarekin alderatuta ez da moldaketarik egin eta neurriak errespetatu dira", adierazi du Edu Alvarezek.

Basalgo auzoa jaietan murgilduko da aste bukaeran

J.B. | BERGARA

Gaur hasiko dira Bergarako Basalgo auzoko jaiak, 18:30ean, kanpai jotzearekin eta etxafuego botatzearekin. Ondoren, ohiko makal jasotzea egingo dute, Basalgoko 2015eko jaiei ongietorria emateko.

Bihar, Santiago egunean, meza nagusia izango da goizeko hamaiketan, eta ondoren, 12:00etan, Basalgoko 33. igoera jokatuko da. Ziklismoko igoera horretan, gura duten gaztetxo guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Txirrindularitza probaren ostean, 12:30ean, luntxa egongo da, eta ostean, erromeria eta igel txapelketa.

Bertso bazkaria

Zapatuan, 14:30ean, bertso bazkaria egongo da Xabier Amuritza eta Igor Elortza bertsolarien eskutik. Herritarrek bertsoekin eta bazkariarekin gozatzeko aukera paregabea izango dute, eta, gainera, soinujoleek bertso bazkaria musikarekin alaituko dute.

Domekan, uztailaren 26an, meza 12:30ean izango da, eta ondoren luntxa eta jolasak izango dira protagonistak. Jaiei amaiera emateko, 14:30ean, auzoko erretiratuen eta jai batzordearen bazkaria izango da. Bazkarira joan nahi dutenek izen-ematea domeka heldu aurretik egin behar izango dute, Basalgokoak elkartean bertan.

Agorrosingo langileek errespetua eskatu dute

J.B. | BERGARA

Agorrosingo langileek prentsa ohar bat kaleratu dute, kiroldegia eta bertako zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarrei errespetu handiagoa eskatzeko. Hain zuzen ere, aste honetan kiroldegiko langile batek jasan behar izan duen gorabehera salatu dute. Langile horri, autoan, giltza batekin marra bat egin diote, eta Agorrosindik Udaltzaingoari gertaeraren berri eman diote jada: "Udaltzaingoari berri eman eta egileak identifikatzeko eta zigortzeko ahaleginak egingo ditugun arren, badakigu zaila izango dela horiek identifikatu eta zigortzea", azaldu dute langileek prentsa oharrean.

Bergarako Agorrosin Ekintza Gunean, igerilekuan, harreran, tabernan eta gainontzeko jardueretan 30 bat langilek dihardute, eta guztiendako errespetua eskatu dute oharraren bidez. Gertakaria salatzeko eta "guztion elkarbizitzarako errespetua eskatzeko" kaleratu dute adierazpena: "Agorrosinera etorri ohi zareten herritar guztiei zuzenduta dago. Jabe gara gure lanak eragin zuzena eta berehalakoa duela herritarren bizitzan, eta horregatik, ahalegin handia egiten dugu egiteko hori ahalik eta hobekien betetzeko. Gauza da, aste honetan, bereziki, lankide bati autoan, eta giltza batez, marra bat egin diotela", adierazi dute bertako langileek.

"Herritarrei eskatzen diegun gauza bakarra da gugana zuzentzen direnetan errespetuz eta begirunez egitea. Kexatzeko bideak eta moduak daude, eta maiz, entzun eta ikusi behar izan ditugu zilegi ez diren hainbat jokabide", azpimarratu dute Agorrosingo langileek prentsa oharraren bitartez.

Elkartasun mezuak

Gertaeraren ostean, Agorrosin Ekintza Guneko langileek herritarrengandik elkartasuna eta animoak jaso dituztela nabarmendu gura izan dute, eta prentsa oharraren bidez jasotako mezu guztiak eskertu nahi izan dituzte: "Amaitzeko, elkartasun eta animozko hitzak eman dizkiguten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegula adierazi nahi dugu".

Horrelako gertaerarik berriro ez izateko, eta prentsa oharra bukatzeko, hitz eta lerro horiek "guztion arteko elkarbizitza eta errespetua sustatzeko" balio izatea espero dutela gogoratu dute Agorrosingo langileek.

Abuztuan kaleko kultura ekitaldiek jarraipena izango dute

Lau film eta ikuskizun ugari izango dira, adin guztietako herritarrendako

JOSU BILBAO | BERGARA

Bergaran udarako antolatu diren kaleko kultura egitarauak ez du atsedenik hartuko abuztuan. Aste honetan, martitzenean, *Maléfica* filma egon zen ikusgai seminarioko karpan; eguaztenean, Malas Compañias taldeak *Txatarra* zirku eta kale-antzerki ikuskizuna antzeztu zuen; eta atzo, Indonesiako dantza eta folklore erakustaldia eskaini zuten.

Bergarako Udalak uztaileko kultura ekitaldien balorazio positiboa egin du: "Orain arteko kontzertuen balorazioa oso-oso ona da. Oso giro polita sortu da Espoloian, eta, eguraldia lagun, jende asko hurbildu da maila handia eman duten kontzertuez gozatzera. Kale antzerkietara eta umeentzako ikuskizunera ere jende asko gerturatu da. Jendeak gozatu egin du emanaldiekin".

Antonio Linaza saxofonistaren jazz kontzertua iaz Bergaran. | GOIENA

Zinema aire zabalean

Abuztuan lau film egongo dira ikusgai San Martin plazan, gaueko hamarretan –euria egiten badu, Seminarioko karpan eskainiko dira–. Abuztuaren 4an, *Dinosaurioen artean ibiltzen* marrazki bizidunen filma proiektatuko dute, euskaraz. Abuztuaren 11n, *Trascendence* zientzia fikziozko filma, 12 urtetik gorakoentzat. Abuztuaren 18an, *Enderren jokoa* zientzia fikziozko filma emango dute, 7 urtetik gorakoentzat. Eta abuztuaren 25ean, *The Grand Hotel Budapest* Wes Anderson zuzendariaren azkenengo pelikula egongo da ikusgai.

Kontzertuak eta ikuskizunak

Abuztuaren 5ean, Antonio Linaza saxofonistaren jazz kontzertua egongo da, Oxirondo plazan –euria bada, Seminarioko karpan–, eta abuztuaren 12an, Tor magoak *Hator magiara* ikuskizuna eskainiko du Errotalde parkean –euria bada, osoko bilkuren aretoan–. Abuztuaren 19an, Jon Gurrutxaga & Banda taldearen blues eta rock kontzertua egongo da Oxirondo plazan, eta abuztuaren 26an, Elbi sabeliztunaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute ikusle guztiek.

Gainera, Aroztegi aretoan bi erakusketa egongo dira ikusgai. Gaurtik abuztuaren 16ra arte, Debagoieneko eta Debabarreneko pintore eta eskultoreen erakusketa eta abuztuaren 21etik irailaren 13ra arte Ana Abajo Lazkanoren erakusketa.

Andramaixak girotzeko zapiak eta kamisetak

Vendetta, Skakeitan eta Def Con Dos dira izarrak eta Los Filmaticos taldeak girotuko ditu kaleak hilaren 16an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ia hiru aste geratzen dira Andramaixetarako, baina egitaraua gertu dauka Kultura Sailak. Aurreko agintaldiko ordezkariek gertatzen hasitakoa oraingoek bukatu dute eta gustura agertu da emaitzarekin Kultura zinegotzi Joxe Migel Uribarren.

Ohiko ekitaldiek eta nobedadeek bat egingo dute abuztuaren 13tik 17ra. Ohikoen artean daude ikurrinari agurra eta pregoia; elizbira eta meza nagusia; txirrindulari lasterketa eta profesionalen arteko pilota partiduak; sokamuturra; eta paella erraldoia. "Banda etorriko da, baina Milagrokoa beharrean Sartagudakoa. Eta goizean bakarrik ez, arratsaldean ere egingo du kalejira", jakinarazi du Uribarrenek.

Umeendako jolasak izango dira hainbat egunetan –apar festa, egurrezko jolasak…–, eta gaztetxoendako ere bai: "Iralabarri plazan egongo dira *jumping*-a, zezen mekanikoa, autoak…".

Hainbat eratako kontzertuak

Gaueko ekitaldien artean, ostera, hainbat eratako kontzertuak daude. Abuztuaren 14an Amparo Velasco *La Negra*-k ekarriko ditu soul, flamenko eta pop doinuak eta hilaren 15ean Vendetta eta Skakeitan talde ezagunak izango dira Herriko Plazan. Horiez gain, erromeria giroko taldeak ere izango dira, baita mariatxiak eta txarangak ere.

Kaleko ikuskizunei dagokienez, egongo dira Charlot Dixie Jazz Band eta Los Filmaticos talde katalana: "Els Comediants-en adar bat da; etorriko dira hiru lagun eta bi metro eta erdiko tximino handi bat, baita lau metro eta erdiko hegazkina ere".

Txosnaguneko giroa

Gazte Ekimenak, ostera, txosnaguneko giroa berotuko du. "13 eguerdirako jai giroan izango gara, parrillak jarri eta han bazkalduko dugulako", esan du Ibai Zangitu kideak, eta gaineratu: "Egunero izango da zerbait hango oholtzan. Nobedadea da umeendako ere egongo direla kontuak guraso talde batek gidatuta". Horiekin batera izango dira gazte afaria, *playback* lehiaketa, boulder txapelketa… "Eta Mondragoeko zurito-basoen kontrako manifestazio nazionala hilaren 16an".

Musikak ez du hutsik egingo eta kontzertu izarra izango da Def Con Dos madrildarrek emango dutena hilaren 16an.

JOXE MIGEL URIBARREN | KULTURA ZINEGOTZIA

"Herritarrek jakingo dute dirua nora doan"

Kargua hartu berri, Andramaixen ardura izango du Uribarrenek.

Badago berritasunik?

Andramaixetako zapiak eta kamisetak jarriko ditugu salgai Aretxarteko komertzioetan.

Aurten ere izango dira alkate eta alkateorde txikiak?

Bai, alkatea izango da Eider Urkia Madinabeitia eta alkateordea, Hodei Etxebarria Sebastian. Datorren urteari begira aldaketa batzuk egin gura ditugu: abuztuaren 16a Haurren Eguna izendatu eta egun osoa eurei eskainiko diegu, baina pregoia ez dute egingo.

Jaien aurrekontuaren berri egitarauan bertan dator...

Bai, 88.618 euro da. Hala, herritarrek jakingo dute nora doan dirua; horrek eztabaida ekar dezake, eta hori ona da.

Aurten ere Gazte Ekimenarekin batera antolatu dira jaiak, ezta?

Bai, eta eskerrak eman gura dizkiet haiei; baita guraso elkarteko kideei, udal teknikariari eta aurreko Kultura zinegotziari ere.

Irabazi alderdiko ordezkaria minduta agertu da Gobernu Batzordean tokirik ez duelako

EH Bilduko kideek herritarren parte-hartzea bultzatzeko ordenantza eskatu dute

M.A. | ARETXABALETA

Agintaldiko lehen ohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean eta udalbatzako kide guztiak elkartu ziren. Udalean ordezkaritza izateagatik alderdiek jasotzen dituzten diru laguntzak izan zen lehenengo eztabaidagaia. Unai Elkoro alkateak proposatu zuen aurreko agintaldietan legez banatzea: diruaren %40 hauteskundeetan ateratako boto kopuruaren arabera; %35 zinegotzi kopuruaren arabera; eta gainerako %25a Gobernu Batzordeko ordezkaritza kontuan hartuta. Irabaziko Luis Mariano Gomezek, baina, eskatu zuen gaia mahai gainean uzteko, eta oso minduta agertu zen Gobernu Batzordean ordezkaritzarik ez izateagatik: "Gainerako udal alderdien baldintza beretan egon gura dugu, kanpoan geratu garelako herriko hirugarren indar politikoa izanik", zioen.

Gobernu Batzordea osatzen dute EAJko hiru zinegotzik, EH Bilduko batek eta PSE-EEkoak; izan ere, gehienez bost lagun egon daitezke. Alkateak erantzun zion bi aldiz proposatu ziotela sartzeko eta ezetza eman ziela, eta gaineratu zuen: "Batzordean ez egon arren, informazioa berdin-berdin jasoko du".

Diru banaketari dagokionez, ostera, aztertuko dutela beste sistemaren bat posible den aipatu zuen, eta bien bitartean orain artekoa aplikatzea onartu zuten.

Parte-hartze ordenantza

Galderen atalean EH Bilduk eskatu zuen parte-hartze bidez boterea ematea herritarrei, eta horretarako bitartekoak jartzea. Hala, hainbat pauso proposatu zituzten: "Herritarren parte-hartzeari buruzko ordenantza garatzea; araudiaren baitan herri kontsultak egiteko aukera zehaztea; eta instituzioen funtzionamendua eta lan batzordeak herritarrei zabaltzea: ordutegi egokietan bilerak antolatu, hizkera sinplifikatu, informazioa garaiz eta egoki zabaldu…", zioen Irati Pagoaga zinegotziak. Eta prozesu hori "adostasunean" eta "aniztasunean" aurrera eraman nahia agertu zuten.

Bestetik, hondakinen bilketa sistemaren gaineko galdeketa egiteko "ezinbestekoa" dela ordenantza izatea aipatu zuten, eta gertu agertu ziren "adostasunaren bidetik" lan egiteko. Era berean, "zintzotasunean eta diskrezioan" oinarrituta lan egiteko eskatu zioten EH Bilduko kideek Udal gobernuari.

Ibarra kiroldegian udako ordutegia izango dute abuztuan

Abuztuaren 1etik 30era bitartean udako ordutegia izango dute Ibarra kiroldegian. Honako hau da: astelehenetik zapatura 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; domeketan eta egun berezietan –abuztuaren 14a– 09:00etatik 14:00etara; eta hilaren 15etik 23ra –biak barne–, itxita.

M.A.

Charleston doinuak eta akrobaziak

Zirika Zirkus taldeak agurtu du kale antzerkiari eskainitako hilabetea. Musika, charleston dantza, zirkuko akrobaziak eta umorea ekarri dituzte Santa Kurtz kaleko plazara astean, eta herritarrek harrera beroa egin diete, aurretik egondakoei legez.

M.A.

Apar festarekin agurtu dituzte udalekuak

Apar festa eginda esan zieten agur udalekuei eguaztenean 300dik gora neska-mutikok. Txatxilipurdiren ardurapean jardun dute aurten, eta kirol jarduerak, irteerak, jaialdiak, jolasak eta beste ekitaldi batzuk egin dituzte hiru astean.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

NIRE USTEZ

BEÑAT ZAMALLOA AKIZU

Herri bizia eta berritua

Pausoka alboko zelaian egiten ari diren jolasgune bereziaren harira, hausnarketa interesgarriak iritsi zaizkit herriko zelaien erabilgarritasunaz. Zelaietako bat haurrek gozatzeko eremu bihurtu dute. Askotariko neurri eta formadun zelaiak ditugu herrian, eta orain arte ez dakit ba ote zen zelai erabilgarririk eta zapalgarririk herrian. Beharko genituzke, nire ustez.

Herriaren itxura zaintzeaz hitz egingo zen lehenago ere, baina ez dakit herriko politikariek azken kanpainan bezainbat inoiz azpimarratu izan duten. Itxura baino, herriaren erabilgarritasuna zait erakargarriagoa. Dagoeneko ohitu gara espazio antzutuak eta lokal hutsak ikusten herrian zehar, eta iruditzen zait funtzio interesgarria bete dezaketela herriaren biziberritzean. Eta ez naiz fatxadez ari. Badira esperientziak Gipuzkoan bertan eta harago –noski–, era erraz eta merke samarrean ekargarriak eta gauzagarriak izan litezkeenak.

Egunen joanean ohituta, eraikitzen amaitu bako eraikinak ikustera ohitu gara, eta, larriagoa dena, onartu egin dugu hezurdurak bere horretan egon daitezen, behar adina erantzukizun eskatu eta ordainarazi gabe. Erantzuleen berri argiago izango al dugu, irtenbidearen bila hasten direnean... Batez ere, herritarron onurarako mamituko al dira hezurrok…

Herria biziberritzea eraikitzearekin lotarazi digute. Biziberritzea eta arnasberritzea aretxabaletarron ongizatearekin eta herri bizi eta sozialki berritu batekin lotzea mesedegarriago litzaiguke, seguruena; nahiz eta negozio handinahiak nahi dituzten horiek ez aberastu. Horrek eragingo luke itxuran ere. Eta fatxadez ari naiz. Espazio huts, antzutuei eta erabilgarriei begira gaituzte, berriz ere garai igaro berriak noiz itzuliko zaizkien zain dauden artean. Bitartean, denbora ez doa ihesi: aurka datorkigu, baina erabilgarri.

Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzan egin dituzten lehen faseko obrak. | IMANOL BELOKI

Zaharren egoitzako lehen faseko obrak bukatu dituzte

Bigarren solairua berrituta, bisita gidatuak izango dira egunotan

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Jose Arana zaharren egoitzako obren lehenengo faseko lanak amaitu dituzte dagoeneko. Gutxi gorabehera, 115.000 euroko kostua izan dute, eta urtebete eta erdi inguru iraun dute lanek. Bertan, banakako lau gela, hiru komunekin, bat partekatuta, terrazaren egokitzapena eta igogailua ezarri dituzte.

Egoitzaren beheko solairuan dituzten hiru gelak ez dira erabilgarriak izango solairu berrikoak erabiltzen hasten direnean. Bestalde, terraza egokitzeak uste baino kostu handiagoa izan du; izan ere, bertako lurra eta teilatua berritu beharra izan dute. Dorleta Sologaistoa zaharren egoitzako erizainen kudeatzailearen esanetan: "Terraza egokituta, bertan ortu bat egitea da asmoa".

Hiru fase dituen obra horren lehenengoa eginda, hurrengo helburua bigarren faseko obrekin lehenbailehen hastea da; fase horretan, beheko solairuan kendu dituzten hiru gelen lekuan egongela egingo dute, jangela handituko dute eta estruktura aldaketa egingo dute. Baina Dorleta Sologaistoa zaharren egoitzako erizainen kudeatzailearen arabera: "Bigarren fasea ez da presazkoa, egoitzan dauden guztiek disfrutatu ahal izango duten obra izango da, baina oraindik dirua batu beharra daukagu".

Bisita gidatuak egunotan

Zaharren egoitzako patronatuak lehen faseko obrak ikusteko bisita gidatuak antolatzea erabaki du, herritarren laguntzaz egindako obra beraiek ere ikus dezaten. Gaur eta bihar 17:00etatik 19:00etara bitartean egongo dira ateak zabalik zaharren egoitzako bigarren solairu berria ikusi nahi dutenendako.

Hala, gonbidapena egin dute obra ikusi nahi duen oro bertara dadin. Gainera, zaharren egoitzako patronatuko kideak bertan izango dira, edozein galdera edo zalantzari erantzuteko.

Garagardo azoka solidarioa

Bestalde, azken urteotan egin den moduan, aurten ere garagardo azoka solidarioa egingo dute, irailaren 17an. Herritarrek, elkarteek… borondatez egingo dute lan, eta bertan batzen den dirua zaharren egoitzako hurrengo lanak egiteko erabiliko dute.

Xabi Solanoren eta DZren emanaldiaz itxiko dute Errekan Gora jaialdia

Esne Beltza taldearen abestiak akustikoan joko dituzte Hotela tabernako terrazan

I.B | ESKORIATZA

Bihar, zapatua, 18:30ean, izango da Errekan Gora jaialdiko azken emanaldia. Esne Beltza taldeko kide Xabi Solano eta Zigor DZ izango dira oholtza gainean, eta akustikoan hainbat kantu joko dituzte Hotela tabernako terrazan. Gaur, aldiz, 22:30ean, Santa Marina plazan, Kalakan taldea izango da –informazio gehiago 25. orrian.

Fermin Balentziaren kantaldia osasun arazoengatik bertan behera geratu da eta mesede gisa etorriko dira Xabi Solano eta Zigor DZ Eskoriatzara, Esne Beltza taldeko bi kideak, talde izaera alde batera utzita; Xabi Solano –ahotsa, gitarra eta trikitia– eta Zigor DZ –platerak, scratchak, samplerrak–igoko dira taula gainera. Elektronika eta giro akustikoak jorratuko dituzte, Esne Beltza Sound System emanaldia eskainita.

Trikitia eta scratcha batuz

Xabi Solanoren esanetan: "Iaz, urte hasieran Alemanian jo genuen Zigorrek eta biok era honetan, berezitasun moduan, eta orain, berriz, *herriko tabernei* elkartasuna adierazteko ere kontzertu batzuk eman ditugu".

Eskoriatzara Xabi Solanoren ibilbideko kantak ekarriko dituzte, mota guztietakoak. Instrumentu zaharra eta berria nahastuz, emanaldi berezia eskaintzeko asmoz.

Udako argazkien IV. lehiaketa martxan da

Urriaren 1a izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna eta 21ean jakingo da irabazlea

I.B | ESKORIATZA

Ibarraundi museoak laugarren aldiz antolatu du udako argazkien lehiaketa. Parte hartzeko, *ibarraundi@eskoriatza.eus* helbidera idatzi beharko da, eta gehienez bi argazki bidali ahalko dira, izen-abizenak eta izenburua jarrita.

Urriaren 1a izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna, eta urriaren 12tik 16ra bitartean egingo da botazioa. Irabazlea aukeratzeko botoak Garapen Batzordeak, herritarrek Ibarraundiko erakusketan eta Facebook eta webgune bidez emango dituzte.

30 onenekin erakusketa

Aurkeztutako argazkietatik 30 aukeratuko ditu Ekonomia Garapen Jasangarrirako batzordeak, eta argazki horiekin erakusketa egingo dute Ibarraundin urriaren 12tik 16ra bitartean.

Bukatu dira Eskoriatzako udalekuak

Azken festarekin eman die amaiera udalekuei Txirikilla Aisaldi Elkarteak. Atzo goizean umeentzako jolasak-eta izan zituzten herriko plazan eta arratsaldean agur dantzak egin zituzten. Lehenbizi, haurrek begiraleekin batera, eta gero, begiraleek taldeka. Hobetzeko gauzak egon arren, balorazio positiboa egin dute.

I.B

Eskoriatzako Marin auzoko jaiak, Madalenak, izango dira aste bukaera honetan

Bihar, zapatua, 18:00etan hasiko dira Maringo auzoko jaiak, eta jaiei hasiera emateko etxafuegoak botako dituzte. Horren ondoren, festa kanpaiak joko dituzte Arientzako kanpai-jotzaile eskolakoek, eta 21:00etan, auzo-afaria egongo da Leixarrape elkartean. Egunari amaiera emateko, 23:00etan, erromeria izango da Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin. Domekan, berriz, 12:00etako mezaren ondoren, luntxa egingo dute, eta hala amaituko dira Maringo Madalena jaiak.

Iaz, Lexarrape elkartean egin zuten auzo-afarian. | IMANOL SORIANO

Datorren urtera arte!

Alardean 200 herritarrek baino gehiagok hartu dute parte aurten

Kanpotik ere herritar ugari etorri zen Mairuaren Alardea ikustera.

Legorburu zenari omenaldia.

Eskolako patioan umeendako puzgarriak izan ziren.

Hontzaren jaitsiera.

Entsalada errusiarra prestatzen.

Bazkaria elizako arkupeetan *Ez dot moztuko bizarra* taldeak antolatuta.

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Asteburu borobil baten ostean, antzuolarrek agur esan diote festari. "Ekintza guztiak ondo irten dira eta jendearen parte-hartzea ikaragarria izan da; oso pozik gaude. Alardea ikustera kanpotik etorri zen jendea. 200 herritarrek baino gehiagok hartu zuten parte, eta, bero handia egin zuen arren, ikusle asko izan zen", dio Kultura teknikari Jone Larrañagak. Beñardo Kortabarriak alkate gisa lehen aldiz bizi izan ditu festak: "Aurreko egunetan kezka puntu bat banuen arren, ikurrina jasotzean eta herriaren aurrean dantza egiterakoan disfrutatu egin nuen. Bergarako bandaren martxa zabaltzeak badu azaldu ezin den emozio osagai bat; zer esanik ez Mairuaren Alardea Aiherrako alkatearekin eta Nafarroako Legebiltzarreko lehendakariarekin batera udaletxeko balkoitik ikusteak. Normala denez, ezusteko edo arazo txiki batzuk ere izan ditugu, baina jaien balorazioa ona da". Azken orduko aldaketaren bat izan zen, baina emaitzarekin pozik dago Kultura teknikaria: "Domekan gaizki ulertu bat egon zen eta zezentxoak goizeko bederatzietan etorri ziren; inoiz baino jende gehiago azaldu zen, prozesioa ematen zuen. Datorren urtera begira kontuan hartuko dugu aldaketa hori".

Amuarrainak hilda

Ur-jolasetako bitsa garbitzeko ura errekara joan zen domekan; ondorioz, hilda azaldu ziren zenbait amuarrain plaza eta Kalebarren tarteko errekan. Diputazioko errekazainak dioenez, Antzuolako errekak oxigenazio gutxi dauka eta egun hauetako beroak eta ur gutxi eduki izanak ez dio mesederik egin. Xaboiak geratzen zen oxigeno apurra jan duela eta horregatik hil direla amuarrainak esan du. "Herritarrak lasai egon daitezke, erabilitako xaboia ez da osasunerako eta azalerako kaltegarria. Xaboia organikoa da eta guregana ez da etorri kalterik duen umerik", adierazi du alkateak.

Kale afari jendetsua egin zuten Herriko Plazan.

Elektrotxaranga txosnetan. | ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO ETA IMANOL SORIANO

OHARRAK

ERREKA GARBIKETA

Zapaturako erreka garbitzeko dei egin du gaztetxeak. Ondoren, bazkaria egingo dute.

ESKERRIK ASKO

Alardearen elkarteak eta Udalak eskerrak eman nahi dizkiete alardeko partaideei. "Herri izatearen harrotasuna adierazten duen ekitaldian, herritar eta kanpotar askok disfrutatu zuen; eskerrik asko!".

HARRERAREN ZOZKETA

Harrera elkarteak zozketa egin du. Saria, hamar pertsonendako itsaski-jana edo produktu ekologikoz osatutako saskia. Zenbaki sariduna: 785. Bi hilabeteko epean ez bada agertzen, ordezkoa 339 da.

Udal zerbitzuek ordutegi berezia izango dute abuztuan

Opor sasoian ere zenbait aldaketa izango dituzte udal zerbitzuen ordutegiek. Hala, liburutegia uztailaren 30ean itxiko dute eta abuztuaren 31n ireki.

Udal bulegoak, ordea, zabalik izango dira astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara. Bake epaitegiak ere ez du aldaketarik izango: eguenetan 09:00etatik 14:00etara egongo da zabalik.

Kirol instalazioei eta aisialdiguneari dagokienez, Herriko Eskolako patioa zabalik egongo da, ohiko ordutegiarekin, hain justu ere. Herriko pilotalekua ere abuztuan zabalik izango dute herritarrek.

Igogailua eta udaletxeko sarrerako arrapala irailean hasiko dira egiten

MA.A. | ANTZUOLA

Martitzenean ezohiko udalbatzarra egin zuten Antzuolan. Gai bakarra landu zuten: udaletxeko beheko solairuko irisgarritasuna bermatzea eta igogailua jartzea.

Hala, Etxaide enpresak udaletxeko irisgarritasun lanen lehen fasea egitea onartu zuten EH Bilduren eta EAJren aldeko zazpi botoei esker. Alderdi Sozialista abstenitu egin zen.

"Pareko bi eskaintza genituen, baina Etxaide enpresak puntuazioa altuagoa dauka; prezioan ere oso alde txikia dute eta Etxaide merkexeagoa da. Gainera, hamar urteko bermea duen igogailua eskaintzen du", azaldu zuen Beñardo Kortabarria alkateak osoko bilkuraren ostean.

109.626 euroko kostua

Lehen fase honetan, udaletxeko sarrerako arrapala eta igogailua egingo dituzte. 109.626 euroko kostua izango dute lanek. Asmoa irailaren erdialdean lanekin hastea dela dio alkateak. "Bi hilabeteko epean egingo dira lanak eta urtea bukatzerako igogailua jarrita egotea da asmoa. Irisgarritasun lanen lehen fasean, *L* formako arrapala jarriko dute kanpotik udaletxe barrura sartu ahal izateko. Igogailua, aldiz, Correosko buzoiak dauden tokian jarriko dute. Buzoiak kendu eta beste toki batean jarriko ditugu", azaldu du. Bigarren fasea zehaztu eta diseinatu gabe dago. Baina asmoa da beheko solairuan harrera eta bulegoak behera ekartzea. Goian bulego teknikoak eta alkatetza jarri gura dituztela esan du Kortabarriak. Guztia, baina, zehazteke dago oraindik.

Igogailua jarriko duten tokia. | M.A.

Eguazteneko osoko bilkuran EH Bilduko bost zinegotzi eta EAJko bi zinegotzi egon ziren. | ARANTZAZU EZKIBEL

Mendakora doan bidea konpontzea, urgentziazkoa

Eguazteneko bilkuran hartu zuten erabakia: ahalik eta azkarren egingo dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Ezohiko osoko bilkura egin zuten eguaztenean. Zazpi zinegotzi elkartu ziren: EH Bilduko bost eta EAJko bi. Hartutako erabakien artean, Ogasun batzordeari dagokion kreditu aldaketa bat onartu zuten: kreditu aldaketa horrekin, Uribarriko zubitik Mendako baserriraino doan bidea konponduko dute. "Sakabanatutako herria da Aramaio; eta bide asko ditugu egoera txarrean. Kasu honetan, Uribarritik Mendakora doan bidea, lau baserri hartzen dituena, oso egoera txarrean dago. Bidea gehiago ez hondatzeko hainbat neurri hartu ditugu; horregatik erabaki dugu urgentziaz tratatzea gai hori", azaldu du Lierni Altunak. Horretarako, soberakinetik 50.000 euro hartuko dituzte. Tramite administratiboak bukatutakoan egingo dituzte lanok.

Hirigintza arloan, 2016-2017 Obra eta Zerbitzuen Foru Planerako bi proposamen aurkeztea onartu du Udalak: Gureiako azpiegiturak konpontzeko obra –519.000 bat euro– eta Matxinkale zabaldu eta txukuntzeko plana –382.000 bat euro–. "Obra handiak egiteko diru laguntza programa izaten da Foru Plana. Kasu honetan, bi proposamen aurkeztuko ditugu. Diputazioak erabakiko du zeri emango dion garrantzia; ematen digun erantzunaren arabera erabakiko da zer eta zela egin", dio Altuna alkateak.

Euskara ikasteko laguntza

Euskara eta hezkuntza arloan, euskara ikastea sustatzeko diru laguntzak onartu zituzten aho batez: 1.500 euroko partida. "Publikatzen direnetik azaroaren 6ra arte egongo da laguntzak eskatzeko aukera. Egongo diren eskaera guztien artean banatuko da dirua", nabarmendu du alkateak. Baldintza izango da asistentzia %80koa izatea. Gehienez, ikastaroaren balioaren %80 emango diote eskatzaileari. Partida horri beste 1.000 euro gehitu ahal zaizkio: "2005eko ordenantzetan onartu zen partida bat, euskarazko errotulazioa edo bestelako idatziak euskaraz egiteko laguntza eskaintzen duena. Hor ez balego eskaerarik, partida hori pasatuko litzateke euskara ikasteko laguntzetara", dio Altunak.

Ordainsariak

Udal kargua betetzeagatik alkateak jaso beharreko ordainsaria ere onartu zuten –EAJ abstenitu egin zen–. 37.600 euro gordin urteko 14 pagatan banatuta. Irailaren 1etik aurrera jasoko du ordainsaria: lan-jardun osoan egongo da lanean alkatea.

AABn, aldaketak

EAJk argindar enpresako administrazio kontseiluan parte hartzeko egindako eskaerari baiezkoa eman dio Udal Gobernuak: hala, AABko lehendakariordea EAJko Rafael Bengoa izango da. Lehendakaria Lierni Altuna da eta idazkaria Cristina Etxenausia.

Homofobiaren aurkako mozioa

Homofobiaren eta transfobiaren aurkako mozioa onartu zuten: hainbat herrialdetako enbaxadetara adierazpen instituzionala bidaliko dute, herrialde horietan egon diren erasoak gaitzetsi eta neurriak har ditzaten eskatzeko.

Patxi Salaberri euskaltzain urgazle izendatu dute

Patxi Salaberri. | GOIENA

JON BEREZIBAR | ARAMAIO

Patxi Salaberri Muñoa aramaioarra euskaltzain urgazle izendatu zuten uztailaren 17ko bileran. Salaberri Euskal Filologian doktorea da (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Filologia irakaslea. Euskal Herriko Unibertsitateko EUDIA ikerketa taldeko kide da –euskararen bariazio soziolinguistikoa ikertzeko sortutako taldea–. Euskal literatura klasikoan aditua da, XVI. eta XVII. mendeetako idazleak eta obrak ditu aztergai nagusi Salaberriren lanak.

Santixaoak Gureian eta sanestebanak Uribarrin

A.E. | ARAMAIO

Uribarri auzoa jaietan murgilduko da datozen asteetan. Bihar, uztailak 25, santixaoak ospatuko dituzte Gureian. Meza esango dute 12:00etan eta ondoren herri bazkaria izango dute.

Datorren astean, aldiz, Uribarriko sanestebanak ospatuko dituzte. Uztailaren 31n 16:00etan auzolana izango dute; 19:30ean txupinazoa eta kanpai jotzea eta 21:00etan kantu eta bertso afaria Felipe Zelaieta eta Zigor Enbeitarekin. Zapatuan meza esango dute, 12:00etan, eta ondoren bolo txapelketa. 14:00etan txalaparta eta irrintzi txapelketa izango dute eta 17:30ean briska eta mus txapelketak hasiko dituzte.

Domekan, finalak

12:00etan meza esango dute, auzoko hildakoen alde. 12:30ean briska eta mus txapelketen finalak eta sari banaketa izango dira. 14:30ean azken txupinazoarekin agurtuko dituzte jaiak.

Jaietako egun guztietan auzoko artistek egindako eskulanak erakusgai egongo dira.

Irailean ere Sastiña musikaz girotuko dute

A.E. | ARAMAIO

Ekaineko kontzertuen ondoren, iraileko jardunaldiak gertu dituzte dagoeneko Sastiñan. Irailaren 4an izango da lehenengo emanaldia: Serious Business taldeak girotuko du ilunkera.

Blues eta rock doinuak egiten ditu Serious Business Zumaiako hirukoteak. Beste talde batzuetan esperientzia izan duten musikariak dira Aitor Badiola, Maria Armendaritz eta Ander Zulaika. Eta, edan ere, beste talde batzuetatik edan izan dute: batez ere, blues eta rock doinuak dituzte oinarri, baina funk eta jazz ukituak ere antzeman daitezke euren abestietan. Sastiñara joango diren entzuleak gustura geratuko dira zumaiarren musikarekin, eta, abestiak entzuteaz gainera, gerria mugitzeko aukera ere izango dute.

Hurrengo egubakoitzetako emanaldiak izango dira: irailaren 11n The Crazy Wheels Band; irailaren 18an El Sindrome de Sthendal gasteiztarrak; eta irailaren 25ean Esan Ohi Da.

Irailetik aurrera flamenkoa etxeko gaztetxoentzat

Dantza flamenkoa ikasteko aukera izango dute etxeko txikitxoek irailetik aurrera. Dantzaren bitartez gorputz adierazpena lantzea izango da helburu nagusia. Eskolak irailean hasiko dira eta martitzenetan izango dira: 17:30etik 18:30era, Aramaioko kultura etxean. Hasiberriei zuzendutako ikastaroa izango da: estilo horretan hasi nahi duten ume guztiei zuzenduta dago. Informazio gehiago: *maledancing@hotmail.com* helbidean emango dute.

Udal ordezkariak Zuraidera joango dira etzi, domeka

Etzi, domeka, udal ordezkaritza bat Zuraidera joango da. Orain dela hilabete batzuk Zuraideko ordezkariak etorri ziren Aramaiora bisitan. Zuraiden euskara eta euskal kultura bultzatzen duen elkarte indartsu bat dago; eta Lapurdiko herrian bizi den aramaioar bat elkarteko kide da. Hala, hark elkarlanerako bidea proposatu zien Aramaioko ordezkariei; eta, hain zuzen, horretarako baliatuko dute domekako bidaia.

Argazki emanaldiarekin agurtuko dituzte gaur udaleku irekiak

Gurasoak eta senideak gonbidatuta daude, 12:15ean, udal ludotekara

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Azken txanpan dira 2015eko udalekuak. Bost asteotan hamaika ekintza egin dituzte neska-mutikoek, eta berezia izango da azken saioa, gaur. Umeek hamaiketako berezia eta jolasak izango dituzte, eta amaitzeko, 12:15erako, udalekuetan ateratako argazkien emanaldia iragarri dute hezitzaileek. Emanaldi irekia izango da. Gurasoak eta senideak gonbidatuta daude.

Udalekuetako neska-mutikoak Landa urtegian. | ELGETAKO UDALEKUAK

Bost asteko udalekuak

San Juan sua prestatzea izan zen udalekuetako umeen lehen egitekoetako bat. Erretzeko, marrazkiak eta txorimaloa egin zituzten, besteak beste. Ferixa Nagusiko jaiak etorri ziren gero, eta Kaxkajoa prestatu zuten. Eta sanfermin eguneko entzierroa ere udalekuetako umeen eskutik etorri da aurten.

Irteerak, txangoak eta bisitak egin dituzte neska-mutikoek asteotan. Batzuk Elgetan bertan eta beste batzuk Elgetatik kanpo. Bergarako igerilekuan eta Landako urtegian izan dira, eta baita herriko hainbat txokotan eta baserritan ere.

Horma-irudia egin dute kiroldegiko kantxan; *Kirola euskaraz* irakur daiteke bertan. Haziak erein dituzte, ur putzuetan ibili dira... Eta herri kirolak, dantza eta kantu tailerrak, jolas tradizionalak eta zirku ikuskizunak egin dituzte.

Herriko zerbitzuen eta komertzioen abuztuko ordutegi aldaketak

L.Z. | ELGETA

Badator abuztua eta horrekin batera opor sasoia. Urtero moduan, aldaketak izango dira herriko zerbitzu eta komertzio gehienen ordutegietan. Elgetako Udalak aldaketa horien gaineko informazio jasotzen duen taula argitaratu du, herritarrak jakinaren gainean egon daitezen.

ABUZTUKO ORDUTEGIAK

Amagoia Arrrandegia: Itxita abuztuaren 10etik aurrera.

Ana Mari liburu denda: Itxita uztailaren 31tik abuztuaren 30era, biak barne.

Bolatoki taberna: Itxita igandeetan eta jaiegunetan.

Elkoro farmazia: Itxita arratsaldez. Goizez zabalik, 09:00etatik 13:30era. Zapatuetan 10:00etatik 13:30era.

Erdiko denda: Itxita abuztuaren 7tik 23ra.

Espaloia kafe antzokia: Zehazteke.

Harategia: Itxita arratsaldez. Zabalik 08:00etatik 13:00etara.

Haizea taberna: Zabalik hilabete osoan, 21:00ak arte.

Ilea ile-apaindegia: Itxita abuztuaren 9tik aurrera. Salbuespenak: abuztuak 13, 14, 21, 27 eta 28, goizez.

Iñaki taberna: Itxita abuztuaren 10etik 22ra.

Irama: Denda itxita hilabete osoan. Elektrizitatea zabalik.

Julianen kioskoa: Itxita abuztuaren 24tik irailaren 3ra, biak barne.

Kutxabank: Itxita abuztuaren 8tik 23ra.

Liburutegia: Itxita abuztuaren 31ra arte.

Maialde landetxea: Ohiko ordutegia.

Patxi taberna: Ohiko ordutegia.

Ugari denda: Itxita arratsaldez. Zabalik 08:00etatik 13:00etara.

Udala: Itxita 10etik 16ra. Epaitegiak eta gizarte zerbitzuak ohiko ordutegia..

ITURRIA: ELGETAKO UDALA

ELGETAKO MUSIKARIAK

Otxandioko Herri Kanta Egunean

Elgetako koruko kideak Otxandioko V. Herri Kanta Egunean izan ziren domekan. "Primeran pasatu genuen igandean (2015-07-19) Otxandixoko Herri Kanta Egunean: giro ederra, eguraldi zoragarria... Datorren urtean ere han egongo gara!", adierazi dute.

KOMUNITATEA GOIENA
ELGETAKO MUSIKARIAK | ELGETA

OHARRAK

ZUMBA SAIOA ESPALOIAN

Zumba tailerra iragarri dute Espaloia kafe antzokitik gaurko, barikua, 17:00etatik 19:00etara. Prezioa bost euro da.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Azken egunak Unai Endemañoren *Los riffs congelados* argazki erakusketa ikusteko. Kafe antzokian ikusgai zapatura arte.

FAEMINO Y CANSADO

Urriaren 3an izango dira Elgetako kafe antzokian, 22:30ean, *¡Como en casa ni hablar!* ikuskizunarekin. Sarrerak salgai daude antzokian, Pikupe Produkzioak-ek Bergaran duen bulegoan eta *Pikupe.com* eta *Kutxabank.com* atari digitaletan.

Aurten Santixau jairik ez Goimendi-Azurtzan, eta argitzeke dago Salbador Eguna antolatuko den

Goimendi-Azurtza auzotik jakinarazi dute aurten ez dutela Santixau jairik egingo. "Erabaki dugu jairik ez jartzea. Hainbat arrazoirengatik hori erabaki da", jakinarazi dute. Abuztuaren 6ko Salbador Eguna ere, gaur-gaurkoz, kolokan dago. Orain arteko antolatzaileek laga egingo dute zeregin hori, eta ezin dute ziurtatu Salbador Eguna ospatuko denik. Lanean dabilena San Roke eguneko jai batzordea da.

Abuztuan ere Intxortako ibilbide tematikoa egiteko aukera dago, baina aurrez egin behar da eskaera

Debagoieneko Mankomunitateak udarako egin duen eskaintza turistikoaren barruan dago Intxortako ibilbide tematikoa. Bi bisita daude programatuta, hileko lehenengo eta azken domeketakoak. Bisita beste egun batean egin nahi izanez gero, aurrez egin behar da eskaera. Kontaktuak dira *turismo@debagoiena.eus* helbide elektronikoa eta 943 79 64 63 eta 943 71 89 11 telefono zenbakiak. Bertan ematen dituzte argibide gehiago.

LEINTZ GATZAGA

Gasteizko Senideak hartu ditu herriak

ANDER LARRAÑAGA | LEINTZ GATZAGA

Joan den zapatuan, Gasteizko Euskal Preso Politikoen Senideak Gatzagan izan ziren: guztira, 50 senide inguru batu ziren. Herritarrek berotasunez egin zieten harrera; trikiti eta pandero doinuekin poteoa egin zuten herriko kaleetan zehar, eta, ondoren, bazkaria egin zuten pilotalekuan, hogei bat herritarrekin batera; jai-giro herrikoian, primeran ibili ziren guzti-guztiak.

Bazkalostean, Etxerat-en alde lan handia egiteagatik hiru lagun omendu zituzten; horrekin batera, euskal preso eta errefuxiatuak gogora ekarri zituzten. Duda barik, bazkalondo hunkigarria izan zuten.

Berriketan taldea Gasteizko Senideekin Gatzagan egindako bazkarian. | A. L.

Berriketan taldearen saioa

Pilotalekuko oholtza hanka askok zapaldu zuten zapatuan. Jende asko animatu zen presoen alde berba batzuk egitera, baita abesti batzuk interpretatzera ere. Amaitzeko, Berriketan taldearen ikuskizuna izan zuten: Askoa Etxebarrietaren flamenkoa txalapartarekin fusionatzen duen taldea da.

Auto klasikoz beteko dira Gatzagako kaleak bihar

Gatz Museora eta Dorletara bisita gidatua izango dute Araba Classic Club elkarteko kideek

A. L. | LEINTZ GATZAGA

Araba Classic Club-ek, Arabako Ibilgailu Klasikoen Elkarte Kulturalak, 21. urteurrena ospatzeko egitarau potoloa prestatu du biharko. Egitarau horren barruan, Leintz Gatzagara bisita egingo dute elkartekoek, eta auto klasikoen erakustaldia egingo dute, bide batez; guztira, 25 auto eta 50 bat lagun inguru izango dira. Hori horrela, antzinako auto klasikoak Gatzagako kaleetan zehar egongo dira ikusgai goiz osoan.

Goizean, 10:15ean iritsiko dira autozale elkartekoak herrira, eta, mokadutxoa hartu ostean, 11:00 inguruan, Gatz Museoa eta Dorletako Santutegia bisitatuko dituzte. Eta gero, euren auto klasikoekin Gasteizerako bidea hartuko dute elkarteko kideek; izan ere, Santiago eguna dela-eta, jaieguna dute Araban bihar, eta hiriburuko sagardotegi batean bazkalduko dute guztiek batera. Horren ostean, berakatzak erosiko dituzte, ohitura arabarrari eutsita.

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

LAURA ALUTIZ
Arrasate / Otalora Lizentziaduna,18 solairuartea
687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA
TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA
(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA
(AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

TRIATLOIA

Asier Barrainkua, Argider Isasti eta Beñat Arnaiz | Triatletak

"Distantzia luzeko triatloi batean arlo fisikoa eta mentala daude, eta bietan sufritzen da"

- Gasteizko triatloian bizi izandakoak kontatu dituzte ikasturteko azken 'Harmailatik' saioan
- Arnaiz eta Barrainkua lasaiago ibiliko dira orain; Gandiako ironmanera doa Isasti

XABIER URZELAI | ARRASATE

Gorputza egun batez muturrera eramateko hainbat hilabetez buru-belarri lanean ibili ostean, bailarako hiru triatleta horiek –ibarreko beste askok bezala– pozik amaitu zuten Gasteizko triatloia. Arnaizek, gainera, podiuma zapaldu zuen, *half* kategorian hirugarren sailkatuta. Barrainkua eta Isasti, ostera, ironman distantzian lehiatu ziren. Proba egunari ezer kendu barik, aurreko hilabeteotako lanean dago benetako meritua.

Hasteko, zenbat bider pasa zitzaizuen burutik proba bertan behera uztea?

Asier Barrainkua: Bada, ez nuen halako pentsamendurik izan. Nire bigarren ironmana izan da eta aurrekotik hainbat gauza zuzendu gura nituen. Duela bi urte ere Gasteizen lehiatu nintzen, eta orduan bai pasa nuen txarto, maratoiko bigarren zatian, batez ere; oraingoan, gehiago gozatu dut.

Argider Isasti: Nik ere ez nuen halako momentu txarrik pasa. Igeriketako zatia da niretako txarrena, eta oraingoa gogorra egin zait. Hamaikagarren ironmana izan da, eta uste dut lehenegoan bakarrik pasatu nuela lehen sektorean horren txarto.

Beñat, zu larri ibili zinen.

Beñat Arnaiz: Bai, niri behin baino gehiagotan pasatu zitzaidan lasterketa bertan behera uztea. Igeriketako saioan izan zen, antolatzaileen kayakera helduta ere egon nintzen, eta proba utzi gura nuen ere galdetu zidaten. Igeri egiten hasi eta zenbat kolpe, zenbat jende gainetik... Larri ibili nintzen. Baina etxekoak eta lagunak nituen Gasteizen zain, eta ezin nuen proba horrela amaitu.

Izan ere, gauza bat da gorputza halako esfortzurako prestatzea, baina burua?

Arnaiz: Nire kasuan, denboraldia txarto hasi nuen, eta ez nuen txarto amaitu gura. Banekien Gasteizen lagunak eta etxekoak nituela zain, eta aurrera egiteko ahalegina zor niela.

Eskuman, berbetan, *half* kategorian hirugarren sailkatu zen Arnaiz; ezkerrean, Barrainkua; eta erdian, Isasti. | X.U.

Gertukoak lasterketa ikusten daudela jakiteak lagunduko du...

Barrainkua: Hor bi arlo daude, fisikoa eta mentala, eta bietan sufritzen da. Eguneroko entrenamenduan lehenengo arloa lantzen dugu, baina ez bigarrena, ez garelako halako egoeretan aurkitzen.

Eta orain bai, ondo errekuperatuta?

Isasti: Eguneroko jardunerako bai, baina azken bi egunetan mendiko bizikletan ibili naiz, eta nekea igartzen da oraindik.

Pozik geratu zarete egindako lanaz? Arnaiz bai, podiumera igo ostean...

Barrainkua: Bai, oso pozik. Aurreko ironmanean egindako akatsak ez errepikatzea zen helburua. Esaterako, duela bi urte bizikletako azken tartea oso poliki egin nuen, korrikako sektorera freskoago iristeko, eta hor denbora asko galdu nuen. Edo bizikleta gainean ez nuen behar moduan jan. Halakoak zuzentzera joan nintzen, eta pozik geratu naiz [11:08:53].

Oliver Hernandez arrasatearra, bizikletako sektorean [9:43:21]. | IMANOL SORIANO

Isasti: Nire urteko helburu nagusia Soplaoman proba ondo prestatzea zen –irabazi egin zuen lasterketa–, eta behin hura eginda egia da Gasteizko probarako erlaxatu egin naizela. Tartean izan dut, baita ere, Xterra triatloia, eta gorputzaldia mantentzea zen helburua. Baina bai, oso gustura geratu naiz egindako lanaz [10:03:58].

Halako lasterketetan gehienon borroka norberaren buruarekin egoten da. Beñat, zuk aurrealdeko postuengatik borrokatzeko zortea duzu.

Arnaiz: Banekien lasterketara indartsu iristen nintzela, eta etxean aurreko egunetan ohartuta zeuden urduri nenbilela; apenas egiten nuen lasterketaz berba. Igeriketako sektore txarraren ostean –75. postuan irten zen uretatik–, bizikletan gauza bakarra egin nezakeen, egurra eman hasieratik. Zorionez, ondo sentitu nintzen, baita korrikako tartean ere. Eta hirugarren nindoala ikusi nuenean, ez arriskatzea erabaki nuen.

Distantzia luzeko triatloiak erakartzen zaitu, Beñat?

Arnaiz: Ez pentsa... Nirea amaituta ikusle moduan egon nintzen, eta jendea zelan helmugaratzen zen ikusita...

Gustura ikusiko genuke zulo batetik zelan antolatzen zareten horrenbeste entrenatu ahal izateko.

Barrainkua: Nik horren aurrean esker oneko berbak baino ez ditut, etxekoei zor diet dena. Izan ere, azkeneko hilabeteetan gure entrenamenduek eragin zuzena dute familiarengan, batez ere asteburuetan. Gainera, alabak ere triatloiak egiten ditu, beti ibiltzen zait zelan nabilen galdezka, eta horrek asko animatzen nau.

Isasti: Nork bere formula du. Nik ez diot emazteari baimen berezirik eskatzen, urte osokoa izan beharko lukeelako, eta urte askotarako, gainera. Hortaz, etxekoendako jasangarria den zerbait izan behar du. Lanean zortzi ordu egin behar ditugu, eta etxekoei ere denbora eskaini behar zaie. Hortik aurrera, egunero puzzleak egiten ibiltzen naiz: gauez entrenatzen, bizikletari argi fokua jarrita... Eta kontziente izanda denbora ona egiteko entrenamenduekin itsutzen banaiz, akaso, azken lasterketa izango dela.

TRIATLOIA

Antxintxika hasi da 2016ko denboraldia prestatzen

Antxintxika Triatloi Taldekoak hasi dira datorren urtean pentsatzen. Hala, duatloi edo triatloiak gertutik ezagutu gura dituztenendako deialdia egin dute: "Ahalegin berezia egin gura dugu gazteak eta emakumezkoak kirol honetara gerturatzeko", adierazi dute. Hala, interesatuek 688 63 51 53 zenbakira deitu edo idatzi *txoske@yahoo.es* helbidera.

FUTBOLA

UDA hasi da liga prestatzen

Hirugarren Mailara igotzeak duen *sarietako* bat da liga oso goiz hasiko dutela, abuztuaren 23an. Hala, Aretxabaleta hasi da liga prestatzen. Oraingoz, Markel Lete (Antzuola), Markel Iltzarbe (Bergara) eta Jokin Gorostola (Zumaia) dira aurpegi berriak. Eta Haritz Igartua kapitainak beste urtebetez jarraituko du.

MIRARI ALTUBE

FUTBOLA

Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritza Agorrosin futbol zelaian. | JOKIN BEREZIARTUA

Eibarren eta Real Unionen arteko partidua Agorrosinen

Mendilibarren mutilek eta Irungo taldeak gaur jokatuko dute lagunartekoa Bergaran, 19:00etan

JOSU BILBAO | BERGARA

Eibarrek eta Real Unionek lagunartekoa jokatuko dute gaur, 19:00etan, Agorrosinen, Bergara Kirol Elkarteak antolatuta. Armaginek denboraldiaurreko hirugarren partidua jokatuko dute. Celtic taldearen aurka 1-4 galdu zuten, armaginen 75. urteurrena ospatzeko lagunartekoan, eta atzo, Logroñes CF izan zuten aurkari Jose Luis Mendilibarren gizonek. Gaur, gipuzkoarren arteko derbia jokatuko dute Bergarako Agorrosin futbol zelaian.

Partidurako txartelak lortzeko, arratsaldeko seietan irekiko dute futbol zelaiko leihatila, eta sarreren prezioak hauek izango dira: 10 euro Bergara Kirol Elkarteko kideendako; 5 euro gazteendako, erretiratuendako eta langabeendako; eta 15 euro beste guztiendako.

Agorrosinera joaten diren zaleei jatekoa eskainiko diete atsedenaldian, eta bukaeran, herriko gazteek eta zaleek Eibar taldeko jokalariekin argazkiak ateratzeko eta solasaldia izateko aukera izango dute.

Bergarako partiduaz gain, Eibarrek beste bi lagunarteko jokatuko ditu abuztua heldu aurretik. Uztailaren 30ean Mirandesen aurka arituko da eta hilaren 31n, Osasunaren kontra, Oliteko futbol zelaian.

2015-2016 DENBORALDIKO ENTRENATZAILEAK

Gorengo maila: Mikel Juaristi
1. erregionala: Lander Ugarte, Manex Goiti
Gazteen ohorezko maila: Jon Soto, Mikel Gallastegi eta Mikel Oregi
Gazteen lehen maila: Zehazteke
Ohorezko kadeteak: Aitor De Benito eta Gotzon Jimenez
Kadeteen lehen maila: Jon Arantzabal, Mikel Zulueta eta Aitor Elizburu Sierra
Ohorezko infantilak: Josu Diaz, Igoitz Retes eta Aitor Lazkano
Infantil txikiak: Zehazteke
Infantil parte-hartzea: Brigi Gonzalez eta Manolo Ortiz
Alebinak: David Ortiz eta Carlos Romero
Emakumezkoen gazteen maila: Jose Ramon Beristain eta Aitor Beitia
Emakumezko kadeteak: Zehazteke
Emakumezko infantilak: Amaia San Torcuato eta Maider San Torcuato
Emakumezko alebinak: Enrique Nieto

Lehenengo Mailan

Iragan martitzenean Auzitegi Gorenak Eibarrek maila gorenean jarraituko duela berretsi zuen, eta Elx ofizialki Bigarren Mailara jaitsiko dela konfirmatu zen. Armaginen aldeko hirugarren epaia izan da. Izan ere, denboraldiaurrea luzea egiten ari zaie epaitegietan izan dituzten gorabeherak direla eta. Gainera, oraindik Elxek bi aste izango ditu Auzitegi Gorenean beste helegite bat aurkezteko, eta merkataritzako epaitegian ere zigorra bertan behera uztea eskatu ahal izango du.

Bada, Bergara Kirol Elkarteko Manu Diaz kirol zuzendariak albistea une bikainean heldu dela azpimarratu du: "Albiste pozgarria da, guretako, Eibar Lehenengo Mailan mantentzea. Eta, gainera, polita izango da Eibar egoera berezi honetan etortzea Agorrosinera".

Fernando Oregiri omenaldia

Eibarren eta Real Unionen arteko lagunartekoan Fernando Oregiri omenaldi ekitaldia egingo dio Bergara Kirol Elkarteak: "Kirol zuzendaria edo koordinatzailea izan da urte askoan Bergaran, eta orain dauden jokalari gehienak haren taldeetatik pasatu dira. Guk uste dugu horrelako ekitaldiak edo omenaldiak pertsona sasoi betean eta onean dagoenean egin behar direla. Lagunartekoan, urrezko ikurra emango diogu", azaldu du Manu Diazek.

Emakumezkoen partidua

Abuztu bukaeran, Superliga mailako Reala eta Logroñes taldeen arteko norgehiagoka Agorrosinen jokatuko dela baieztatu du BKEko kirol zuzendariak: "Eguna zehazteko dago, baina, guretzat, oso garrantzitsua da. Emakumezkoen futbolaren bandera hartu nahi dugu, eta, nahiz eta instalazio ugari ez eduki, apustu hori mantendu nahi dugu. Horregatik, opari moduan partidu hori antolatuko dugu. Gainera, polita izan da, Reala eta Logroñes euren borondatez etorriko direlako. Nesken festa hori antolatzeaz oso harro gaude".

TXIRRINDULARITZA

Ulma eta Bolintxo taldeak batuta Iruñeko proban

X.U. | ARRASATE

Abuztuaren 4tik 7ra Iruñeako Itzulia egingo dute, eta talde indartsua osatu aldera bailarako gazte mailako bi talde batuko dituzte: Ulma (Oñati), eta Bolintxo (Bergara). Xabier Murgiondo, Ekaitz Txintxurreta, Julen Umerez, Aritz Kortabarria eta Mikel Arregi izango dira lehiatuko diren bost ziklistak.

Basalgo eta Ugarrixa

Gaztetxoenei begira, bihar, zapatua egingo dute Basalgoko 33. Igoera –1997an jaiotakoak izango dira nagusienak, eta 2008an jaiotakoak gazteenak. Eta domekan egingo dute Ugarrixako 2. Igoera. Bi lasterketak 12:00etan hasiko dituzte eta izen-emateak ordubete lehenago hasiko dituzte. Askotariko sariak egongo dira.

ARETO FUTBOLA

Hamar talde izango dira bihar Eskoriatzan

X.U. | ARRASATE

Bihar, zapatua, Estagol eta La Masia taldeen arteko partiduarekin hasiko dute (11:00etan) Eskoriatzako II. Areto Futbol Txapelketa. Eta, ordu horretatik aurrera etengabean partidu mordoa izango dira Luis Ezeizako kantxan. Hala, lehenengo faseko azken partidua 20:30ean jokatuko dute Marinteam eta La Fabrica taldeek, eta hortik aurrera fase finaleko partiduak jokatuko dituzte. Guztira, hamar taldek eman dute areto futbol txapelketan izena.

FUTBOLA

Andoni Ugarte: "Sansen lana ondo egitea dagokit niri"

Oñatikoak normal hartu du Realarekin debutatu izana, "nahiz eta urduritasuna igartzen den"

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Realarekin debut ez-ofiziala egin zuen zapatuan Andoni Ugarte oñatiarrak Real Union taldearen aurkako derbian [0-0]. 20 urteko jokalariak erdiko atzelari lanetan jardun zuen eta gustura geratu zen egindako lanarekin: "Lasai egoten saiatzen zara, gauzak erraz eginda. Ez zen emaitza ona izan, baina arlo pertsonalean gustura geratu nintzen", adierazi dio aste barruan GOIENAri.

Oñatikoa 11 urterekin hasi zen txuri-urdinen harrobian jokatzen eta iaz lehen urtea izan zuen Sansen; Bigarren B Mailari eusteko lanean jardun zuten, eta baita helburua lortu ere.

Azken orduko erabakia

Sanseko hainbat jokalarik lehenengo taldeaz entrenatzeko gonbita jaso zuten egubakoitzerako: "Ez zen lehenengo aldia, eta entrenamendu horiek bereziak izaten dira. Hasi aurretik Asier Santanak –Moyesen laguntzailea– esan zigun lehenengo taldeaz entrenatuko ginela, eta entrenamendu saioaren ostean esan zidaten zapatuan lehenengo taldeaz egongo nintzela. Momentu horretan lasai egon gura izaten duzu, baina urduritasun apur bat sumatzen da, egia esan".

Ugarte eta Zurututza, Real Uniongo kontrarioaz. | REALSOCIEDAD.COM

Hala, segituan igarri zion Oñatikoak zapatuan berdegunean egongo zela: "Iñigo [Martinez] bakarrik zegoen zentral moduan, eta hark ezkerrean jokatzen du; horrenbestez, jokatzeko aukerak izan nitzakeela ikusten nuen". Eta halaxe izan zen, partidua osorik jokatu zuen-eta Ugartek: "Lasai zaudela erakustea lehenesten duzu, gauzak erraz eginda, eta ardurak esperientzia handiagoa dutenek hartzen dituzte. Ez zen emaitza ona izan, baina arlo pertsonalean gustura geratu nintzen".

Burua Sansen

Esperientzia positiboa izan den arren, Oñatikoak badaki zein den bere lekua: "Sansen gauzak ondo egitea dagokit niri, hori da nire lekua. Ez da komeni lehenengo taldera iritsi beharraz obsesionatzea. Halako aukerak iritsiko dira, eta aprobetxatzen saiatuko gara, baina Sansen urte ona egin gura dut, bai talde ikuspuntutik, eta baita arlo pertsonalean ere progresioa izanda".

Debagoieneko eta gertuko eskarmentu handiko artisten lanak Aroztegi aretoan

Belaunaldi bereko margolarien eta eskulturagileen lanak gaurtik abuztuaren 12ra bitartean ikusgai

Rikardo Azkargorta, Pello Alberdi eta Bingen de Pedro erakusketarako guztia prest uzten. | AMAIA TXINTXURRETA

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

Belaunaldi bereko Debagoieneko artista batzuek Eibarko beste hainbat artistarekin egin izan dituzten afarietan sortu zen talde-erakusketak egiteko ideia. "Bakarkako erakusketak egin izan ditugu gehienok, taldekakoak ere bai, baina azken horiek, erakundeek edo galeriek antolatuta; lotzen gaituen adiskidetasunak eta bat egiten dugun korronte artistikoak bultzatuta, erabaki genuen elkarrekin lan egitea", azaldu du Rikardo Azkargortak, Bergarako margolariak.

Gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan 19:00etan inauguratuko dutena taldearen laugarren erakusketa da. *"Hiperasia* izenburuarekin izan zen lehenengoa, Eibarren; Durangon, berriz, bigarrena, *Ibilgonia;* segidan etorri zen Zumaiako *In Oxford;* eta *Produzio nazionala* da Bergarakoa.

Eskulturak eta margolanak

40 eta 60 urte bitarteko ibilbide handiko artistak dira Aroztegi aretoan batutako guztiak. "Bakoitzak lan bakarra erakutsiko du, ez dago-eta gehiagorako tokirik. Eta, gainera, gustuko obraren bat topatuz gero, erosteko aukera ere izango da, egilearekin harremanetan jarrita".

Erakusketako artisten eta obren ezaugarriak

FERNANDO DE VICENTE
(Durango) Margolaria.
Pintura espresionista abstraktua egiten du. Bi metroko lana erakutsiko du, zintzilikatuta beharrean, lurrean ezarrita.

PELLO ALBERDI
(Elgeta) Margolaria.
Olio margoak egiten ditu. Zatikatutako azalerako zatien artean sortzen den tentsioa da haren obraren definizioa.

MARINA BARRENA
(Eibar) Margolaria.
Abstrakzioan oinarritutako pintura egiten du. Berniz eta pigmentuekin plastikotasun atmosferiko handia lortzen du.

ASIER LASPIUR
(Eibar) Instalazio egilea.
Aroztegin erakutsiko duen lana gizakiaren hauskortasunaren metafora da.

JOSE ANTONIO AZPILIKUETA
(Eibar) Margolaria.
Olioan egindako figurazio teknikoa. Pintzelkada indartsuekin egindako Eibarko pertsonaia baten irudia erakutsiko du.

MARINO PLAZA
(Eibar) Eskulturagilea.
Zama ironiko handiko egiturak egiten ditu.

VICENTE IRIONDO
(Eibar) Margolaria.
Tenpera-pintura egiten du. Lerroa da haren lanetan oinarri nagusia; bi arlo banatzen dituen muga den lerroa da hori.

ALBERTO IBAÑEZ
(Eibar) Margolaria.
Pintura abstrakzio espresionista egiten du. Grisak protagonista diren obra trinkoa.

AITOR ETXEBARRIA
(Mendaro) Eskulturagilea.
Hondakinekin, zementuarekin, berunarekin... askotariko materialekin egindako *Povera* ezaugarridun obra.

JOSE FELIX IGARTUA
(Deba) Margolaria.
Formen erritmoarekin eta orbanekin jolas eginda egiten du lan, hainbat irakurketa sortuta horrela.

JOSE RAMON ELORTZA
(Elgoibar) Margolaria.
Elementuen abstrakzio geometrikoa; urrunetik airean datozela irudikatzen dute.

JUAN LUIS BAROJA COLLET
(Eibar) Eskulturagilea.
Metalekin egindako eskulturak. Soldaduraren bitartez mundu naturalaren figura eta forma alegorikoak sortzen ditu.

BARBARA STAMMEL
(Alemania-Getaria) Margolaria.
Gizakien aurpegiak du gaitzat. Modu zakarrean eta izaera inpresionistarekin egindakoak dira.

KEIXETA
(Zumaia)
Eskulturagilea eta margolaria.
Eskulturagilea eta margolaria denak, egunerokotasunarekin lotutako elementuak eta seriean ekoiztutakoak arte bihurtuta.

AITOR SARASKETA
(Eibar) Margolaria.
Serigrafia abstraktu seriea erakutsiko du. Koloreak du protagonismo osoa, informazio emozional kodigoak sortuta horrela.

RIKARDO AZKARGORTA
(Bergara) Margolaria.
Figurazio surrealista izaera duen akuarelaz egindako obra. Koadroan agertzen diren elementu sinbolikoen arteko elkarrizketa.

BINGEN DE PEDRO
(Bergara) Margolaria.
Ikusmen-nahasketarako espazioa sortzen duten hiru dimentsioko elementuak.

IÑIGO ARREGI
(Arrasate) Eskulturagilea.
Euskal eskultura korrontearen oinordekoa. Burdina lantzen du, eraikitzeko eta euskal eskultura ulertzeko beste modu bat erakutsita.

JUAN LUIS GOIKOLEA
(Arrasate) Margolaria.
Margolari espresionista. Elementu eta klabe sinbolikoekin betetako lanak egiten ditu.

ITURRIA: RIKARDO AZKARGORTA

Serbiako eta Euskal Herriko dantzak elkarrekin gaur Monterron parkean

Portugaleteko folklore jaialdiaren lagin batekin gozatzeko aukera 22:30ean

Serbiako KUD Branko Cvetkovic taldearen dantzekin gozatzeko aukera izango da Monterron parkean . | ELAI ALAI ELKARTEA

A. A. | ARRASATE

15 eta 26 urte bitarteko 40 dantzarik osatzen dute gaur, egubakoitza, Arrasatera etorriko den Serbiako KUD Branko Cvetkovic dantza taldea. Biolinaren, kontrabaxuaren, akordeoiaren, danborraren eta zeharkako flautaren doinuen gainean, hainbat zonatako dantzen erakustaldia egingo dute. "Zazpi dantza ezberdin egiten dituzte; ijitoen dantzen itxura dutenak daude horien artean. Euren emanaldietan, baina, musikak garrantzi handia du; aipagarria da neskek, dantza egiteaz gainera, abestu ere egiten dutela une berean. Dantza mistoak dira, mutilek eta neskek elkarrekin dantzatzen dute", dio Aintzane Angulok, Serbiarren begiraleak.

Ikusgarriak dira, Anguloren esanetan, dantzarien arropak ere: "Neskek prakak erabiltzen dituzte, eta buruan koroa eta belo antzeko bat daramate. Eskuan, berriz, zapi bat izaten dute. Mutilei dagokienez, bonbatxo itxurako prakak, gerrikoa eta alkandora zuria daramate".

Etxeko Lore Gazteak ere bai

Herriko 70 dantzari ere igoko dira Monterron parkeko agertokira –euria bada, Amaia antzokian–. "Taldearen berrogeita hamar urtetako ibilbideko kideak gaude, gaur egungo eta garai bateko dantzariak elkarrekin egingo dugun saioa izango da, beraz, gaurkoa, ilusio handiarekin prestatu duguna", esan du Maddi Etxabe dantzariak.

Hiru taldetan banatuta, bederatzi dantza egingo dituzte: "Hainbat tokitako euskal dantzak batuko ditugu: agurra hasteko; besteak beste, fandango eta arina gero, eta bukatzeko, txulalai bat".

Arrieta artista handia gogoan Bergaran eta Donostian

Bergaran erakusketa zabalduko dute datorren eguenean eta Donostiako San Telmo museoan, berriz, margolan-foruma egingo dute abuztu hasieran

UBANE MADERA | BERGARA

Simon Arrietaren (Bergara 1915-Bilbo 1969) *El picador* artelanaren gaineko margolan-foruma egingo du Migel Anjel Elkoroberezibar (Bergara, 1966) ikerlari eta irakasle bergararrak abuztuaren 2an, domeka. Donostian da hitzordua, San Telmo museoan, hain zuzen ere, museo horretako fondoan dagoen Simon Arrietaren margolan bakarra delako *El picador*. Hitzaldia hileroko lehen domeketan egiten den *Hileko obra* zikloaren barruan programatuta dago; zehazki, Bergarako margolariaren mendeurreneko ekitaldietako bat da hori. 12:00etan hasi eta 90 minutuz jardungo du 1951n margotutako artelanaren eta Simon Arrietaren gainean Elkoroberezibarrek.

Arrietaren "kapritxoa"

Ikerlari bergararrak emandako xehetasunen arabera, Arrietak Madrilen margotu zuen *El picador* koadroa. "Antonio Sanchez toreatzailearen tabernara joan ohi zen, Zuloagak berak ohi zuen moduan, eta han ezagutu zuen pikadorea, *Arturillo*, gerra aurretik oso ospetsu egin zena. Arrietak margotu zituen *kapritxo*-en artean kokatu beharko genuke, hau da, enkargukoa ez zena (...) Arrietak Madrilen ospea zeukan, erreferentziazko erretratugile bilakatu zen. Aristokraziak, toreroek eta pertsonaia ospetsuek hark egindako erretratu bat nahi zuten. Ia bi metroko koadro figuratibo errealista horretan, planoetan egindako definizioa nabarmendu beharko genuke, koloreaz eta argiaren tratamenduaz gain".

Madrilen eta Donostian

Abuztuaren 2ko hitzordua aukera aparta da Arrietaren *kapritxo* horren gainean ilustratzeko, San Telmoko deposituan bakarrik egon da-eta margolana: "Jatorri euskalduna duen Madrilgo familia batek utzi zuen deposituan. Arrietak Madrilgo Arte Ederren Elkargoko Minerva Galerian 1952an erakutsi zuenean erosi zuten. Arrietak koadro guztiak saldu zituen erakusketa hartan. Arrakasta izugarria izan zuen", esplikatu du Elkoroberezibarrek.

Edozein modutan, margolana bera ezin izango da bertatik bertara ikusi. Elkoroberezibarrek berak ere argazkiak baliatu beharko ditu haren gainean jarduteko: "Azken urteotan San Telmokoek ez dituzte deposituko obrak aurrez aurre erakusten segurtasun neurriak direla eta. Beraz, argazkiez baliatu beharko dut azalpenak emateko. Bide batez, Arrietaren bizitza eta obraren ibilbidea eskainiko dut hitzaldian".

'Simonen ondarea'

Bergarako pintore batzuek Arrietaren omenezko erakusketa antolatu dute Bergarako Laboratorium gizarte museoan, Arrietak pintura-lanbidea eta pintura irakasten erakutsi zielako. Guztiek izan zuten bere kultura sustatzaile jokabidea edo egiteko modua barneratzeko aukera. Eta horregatik, orain, eurek barneratutako artearenganako interes hori bera zabaltzen jarraitu nahi dute euren lanekin. Erakusketa uztailaren 30ean zabalduko dute, 19:00etan.

Migel Anjel Elkoroberezibar, Antonio Arrillaga, Luis Laskurain eta Juanjo Altuna, San Telmoko gordailuan. | ELKOROBEREZIBAR

Asier Altunaren 'Amama' Urrezko Maskorrerako lehian egongo da

JON BEREZIBAR | BERGARA

Sail ofizialean eta sari nagusirako lehian, Donostiako 63. Zinemaldian egongo da Asier Altuna bergararraren film berria. Altunak bakarka zuzendu duen lehen fikziozko lana da *Amama* eta Kandido Uranga, Klara Badiola eta Ander Lipus dira protagonistetako batzuk.

Atzo, eguena, iragarri zituzten Donostiako aurtengo zinema jaialdian ikusteko egongo diren filmak, Madrilen iragarri ere. Sail ofizialean, Altunarenarekin batera, Pablo Agüero, Cesc Gay, Marc Recha, Federico Veiroj, Agusti Villaronga eta Alex de la Iglesia zuzendarien filmak proiektatuko dituzte.

Iragana eta oraina...

Amama filma gatazkari buruzko familiarteko istorioa da. Hiriaren eta landagunearen, iraganaren eta orainaren, gurasoen eta seme-alaben arteko gatazkena, hain zuzen ere. Bizitza ulertzeko bi modu kontrajarri eta mundua isiltasun elokuenteenetik begiratzen duen amona bat dira istorioaren ardatzak. Iraia Elias, Amparo Badiola, Ander Lipus, Manu Uranga, Kandido Uranga eta Klara Badiola dira filmeko protagonistak.

Kalakan taldeko hirukotea; Xan Errotabehere da ezkerrekoa. | KALAKAN

Xan Errotabehere | Kalakan

"Bilatzen dugu jendea senti dadin etxeko txokoan bezala"

Gaur, egubakoitza, Kalakan taldeak kontzertua egingo du Eskoriatzako Santa Marina plazan

U.M. | ESKORIATZA

Eskoriatzako Errekan Gora jaialdia egunotan bukatuko da, punta-puntako gonbidatuekin: gaur, egubakoitza, Kalakan taldeak jardungo du, 22:30ean, eta bihar, berriz, Esne Beltzako kide Xabi Solanok eta DZk saioa eskainiko dute (informazioa 17. orrian). Xan Errotabehere Kalakaneko kideetako batek aurreratu du Eskoriatzan egingo dutela musika herrikoa, "30-40 urteko mutil-gazteen prismatik ikusita eta sentitutakoa (...) Nahi du esan nahiko xumea izango dela: perkusio pixka bat, ahots asko, kantariak garelako batez ere, instrumentu bakar batzuk –txirula, alboka, txalaparta, noski–, eta saiatuko gara jendea gure munduan sarrarazten".

Helburua, beraz, gertutasuna da?

Eszenografia aldetik ere hori bilatzen dugu: zerbait xumea, jendea senti dadin pixka bat bere etxeko txokoan bezala, eta elkarrekin saiatzeko partekatzea kasik ordu eta erdiko kontzertua.

Eta oinarria, musika-kantu tradizionalak?

Argi eta garbi. Iparraldean garai batean sinistu izan dugu, nik adibidez ikastolan ikasi dudalako, baina gogoratzen naiz garai hartan oraindik barnealdean leku batzuetan euskaraz kantatzea ez zegoela horren modan, edo gure aitona-amonek ez zutela egiten, eta saiatu nahi dugula erakutsi tradizio hori hor dagoela, ez dela beldurtu behar transformatzea izorratu gabe oinarria, zentzua; baina testu askok oraindik badutela zentzua. Betidanik hori egin dugu eta horretan segitzen dugu, konposizio pixka bat aurkitzen da, baina nahiko minimoki.

Horrek esan gura du ikusleekin hartu-eman zuzena nahi duzuela?

Bai. Argi da artista, kantari, musikari bat, antzezle bat denean agertoki gainean, derrigorrezkoa du edukitzea publiko bat, eta kontzertu bat ez da inoiz zerbait ematen hutsean (...) beharrezkoak dira bai oholtza gainean direnak, bai publikoan direnak. Eta garrantzitsuena da saiatzea komunikatzea kantu bakoitzeko, momentu bakoitzeko emozioa publikoari, eta publikoak askotan, ongi pasatzen baldin badu gutxienez, transmititzen dizu hori. Hori defendatzen dugu eta horretarako ari gara saiatzen klub ez handiegietan jotzea, atxikitzeko hurbiltasun bat publikoarekin, harreman bat, komunikazio bat. Kontzertu bukaeretan diskoen salmenta txoko bat ematen dugu eta gu beti etortzen gara horra, hitz egiteko, jendeak nahi badu zerbait banatu, gustatu zaiona ez duena maitatu... harremana, transmititzea kantu horiek, hitz horiek, harreman hori sendotzeko.

Diskoak kontzertuetan bakarrik saltzen dituzue?

Hori da. Pixka bat baserri txiki bateko gazta produzitzaile batekoak bezala gara. Gure apustua hori da. Balio askoz handiagoa du, adibidez, norbait etortzen denean kontzertu bukaeran taldearen diskoaren erostera, horrek esan nahi du-eta gustatu zaiola kontzertua. Eta garrantzitsua dena da kontzertuan pasatzen dena. Diskoa da produktu bat. Ongi da. Egin dugu diskoa, baina nahi dugu bakarrik kontzertu bukaeretan saldu. Garrantzitsua da publikoa etortzea, eta partekatu behar den momentua kontzertua da.

"Garrantzitsuena dena da kontzertuan pasatzen dena"

1. ETXEBIZITZAK

103. ERRENTAN EMAN

Ajo (Kantabria). Bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Garajea eta igerilekuarekin. Hondartza gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 607 41 14 43

Arrasate. Erdialdean apartamentu kapritxosoa ematen da errentan. Berria da. Logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Trastelekua ere bai. Pertsona batendako nahiz bikoteendako apartekoa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 639 17 49 52

Pineda (Tarragona). 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo uda sasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zenbakira edota idatzi posta elektronikoa honako helbidera: oskar.carrascal@gmail.com.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan erdigunean. Grupo San Juanen, San Andresen edo inguruan. Pertsona bakarrentzat izango litzateke; beraz, etxebizitza txiki batekin nahikoa dut. Hilean 400 euro ordain ditzaket gehienez. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 28 91 28

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 01 05 84

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 09 46 26

Oñati. Bi oñatiar errentan hartzeko etxebizitza bila. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 685 73 06 80

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Erdigunean logela ematen da errentan. Telebistarekin eta sarrailarekin Interesatuok deitu zenbaki honetara: 603 14 28 89

Arrasate. Erdigunean dagoen etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 82 69 77

Arrasate. Gizon arduratsu eta ez erretzaileak logela errentan hartu nahiko luke. Presazkoa da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 00 86 55

Arrasate. Logela ematen da errentan Juan Carlos Guerran. Hilean 250 euro, gastuak barne. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699 78 87 36

Arrasate. Neska errentan hartzeko logela bila. Bertako pertsonekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 73 87 95

Donostia. Ikasleen artean etxebizitza osatzeko jende bila nabil. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 61 09 03

Gipuzkoa. Bikote batek logela behar du errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 20 06 03

Oñati. Logela ematen da errentan erdigunetik oso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona arduratsua eskatzen da. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 74 29 49

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Pertsona euskalduna behar dugu umeak zaintzeko eta etxean laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 636 10 44 31 edo 943 08 20 42

Oñati. Etxeko garbiketa lanak egiteko pertsona euskaldun baten bila gabiltza. Interesatuok deitu telefono honetara: 690 14 06 57

402. ESKAERAK

Arrasate edo Aretxabaleta. 25 urteko neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Esperientzia handiarekin eta Haur Hezkuntzako ikasketekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 17 33 61

Arrasate edo Aretxabaleta. Etxe, elkarte eta abarren garbiketak egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile lanak ere. Gainera, pertsona nagusiak eta egoitzatan bizi direnak paseoan ateratzeko gertu nago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 84 41 94

Bergara. Emakume bergararra gertu ume eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta informe onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntza ikasten ari naiz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686 61 29 99

Bergaran umeak zaindu. 25 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaintzeko prest nago. Haur Hezkuntzako ikasketak ditut eta haurrekin urte askotako esperientzia. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 17 33 61

Debagoiena. Arrasateko emakumea naiz eta garbiketa lanetan, sukaldari laguntzaile eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Lan hauetan eskarmentua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 13 96 46

Debagoiena. Arrasateko familia batekin etxean bertan lanean aritu naizen gizon bat naiz. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago, etxean bertan bizitzen, zein orduka. Erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 25 95 46

Debagoiena. Arrasaten bizi den eta pertsona nagusien zein umeen zaintzan eta garbiketa lanetan esperientzia duen neska arduratsua naiz. Orduka edo lanaldi erdian lan egitea gustatuko litzaidake. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 85 48 45

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu sukaldean lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 637 18 07 23

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Esperientzia eta aurrez lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 19 38 74

Debagoiena. Etxeko laguntzaile titulua daukan gizona zaintza lanak egiteko gertu. Nagusiak zaindu, lagundu eta abar. Gidabaimena daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 634 09 55 46

Debagoiena. Garbiketan, eraikuntzan, margotzen eta abarrean lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 609 63 38 21

Debagoiena. Mutil arduratsua, esperientzia eta erreferentzia onak dituena, nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanak egiteko. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Baita asteburuetan ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 642 03 51 84

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzeko gertu nago etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 46 17 94

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketan edo antzeko lanetan jardungo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Lege paperekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 64 16 09

Debagoiena. Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziaduna. Nagusiak zaindu eta paseoan ateratzeko ere gertu nago, baita orduka garbiketa lanak egiteko ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska arduratsua, erizain laguntzailea, nagusi, gaixo edota umeak zaintzeko gertu. Baita orduka ere. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 23 58 15

Debagoiena. Neska espainiarra, esperientziaduna, nagusiak zaindu eta etxe garbiketak egiteko gertu. Egun osoan zehar lan egin dezaket: egunez edo gauez.Interesatuok deitu zenbaki honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Neska gertu gauetan pertsonak zaintzeko edo orduka garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 645 58 71 61

Debagoiena. Neska lanerako gertu: etxean bertan bizi izaten edo bestela. Berehala hasteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 622 59 39 87

Debagoiena. Neska lanerako gertu: ume eta nagusiak zaindu edo taberna, atari eta abarrak garbitzen. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz zein orduka. 631 28 22 03

Debagoiena. Pertsona nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 85 03 84

Debagoiena. Sukaldaria naiz eta lan bila nabil. Zerbitzari lanetan ere aritu izan naiz. Ume eta nagusiak ere zain ditzaket. 685 64 85 64

Debagoiena. Ume eta nagusien zaintzan, tabernan, sukaldean, garbiketan eta abarrean lan egingo nuke. Baita baserrietan ere. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Autoa daukat. 697 20 00 86

Sasi garbiketak. Mutil euskalduna desbrozadora lanak egiteko prest. Pinudi, pista zelai edo edozein lan egiteko prest. 658 73 79 02

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Irailetik aurrera DBH 4. mailako ikasketekin lagunduko didan norbait behar dut. Batez ere matematikan eta euskaran. 695 70 58 33

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Podenco Andaluz txakurra. Bergarako San Martzial auzoan Podenco Andaluz arrazako txakurra agertu zen orain bizpahiru hilabete. Emea da eta marroi argi kolorekoa. Jabeak deitu dezala zenbaki hauetara: 943 76 37 58 edo 608 03 51 93 (Asun)

Txoria galdu Aretxabaletan. Txoria, Agaporni espeziekoa, galdu zen ekainaren 22an. Berdea eta laranja da eta 'Hiart' jartzen duen eraztuna dauka eskumako hankan. Otzana da eta jendearekin egoten ohituta dago. Aurkitu edo ikusi baduzu, eskertuko genuke deitzea. 615 78 08 18 (Manu)

8. DENETARIK

801. SALDU

Lursaila salgai. Gorla gainaren azpian. 3,5 hektarea. Bi borda egiteko aukera. Bat zutik, teilatu batik. Ura eta todoterrenoarendako pista. 35.000 euro. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 17 45 57 (Aitor)

802. EROSI

Klarinetea. Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 650 39 20 87 (Ines)

808. BESTELAKOAK

Trikitia. Trikitia hartuko nuke errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 659 76 08 81

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

AMETS TABERNA ERRENTAN
Arrasaten. Erdigunean eta bezero askorekin.
Sukalde industrialarekin.
Legedira egokituta.
Tel.: 685 73 50 30

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Aranerreka 79m², 3 logela, trasteroa, garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 159.850 €
- Aranerreka 87m², 3 logela, trasteroa. Garajea aukeran. PREZIO JEITSIERA. 110.000 €
- Aranerreka 90m², 3 logela, trasteroa. PREZIO JEITSIERA. 129.000 €
- Koldo Eleizalde, 76m², 3 logela. Terrazarekin. 115.000 € NEGOZIAGARRIA.
- Bolun 129 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 95.000 €. PREZIO JEITSIERA.
- Lizaria, duplexa, 111m², 3 logela. 222.445 € PREZIO JEITSIERA.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000 €
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garajea eta trastelekuarekin. 150.000 €
- Espoloia 95 m², 3 logela. Trastelekua. Garajea aukeran. 225.000€ PREZIO JEITSIERA.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m²ko terrazarekin. 132.600 €
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m²ko terrazarekin. 107.100 €
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m²ko terrazarekin. 115.000 €
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekua. Berria estrenatzeko. 150.000 €
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN

ANGIOZAR:
- Duplexa 170 m², Garajea, txokoa eta 180 m²ko lur sailarekin.
- Etxebizitza 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €
- Borda 70m². Lur sailak, zuhaitzak eta pinudiarekin. Inguruo ondo prestatuta. 90.000 €
- Baserria 233 m². Lur sailak eta bi etxebizitza egiteko baimenarekin. 250.000 €
- Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.

OSINTXU:
- Osintxu 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.
- Osintxu 61m². 3 logela eta trasteroa. BERRITZEKO. 43.000€. AUKERA BIKAINA

ANTZUOLA:
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000€
- Sagasti 90 m², 3 logela. Oso ondo. Garajearekin. 242.050 €
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €
- Aiherra 83m². 3 logela. Igogailua eta balkoia. Oso ondo. Prezio ona.

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Edurne
Abuztuaren 23an, 8 urte. Zorionak, printseza, etxekoen partetik. Muxu handi bat.

ARETXABALETA
Maddi Alarzia Iturri
Abuztuaren 22an, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat familia guztiaren eta, bereziki, tia Kontxiren partetik.

ESKORIATZA
Rebeca Romero
Abuztuaren 18an, 37 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat, familiaren partetik! Mua!

OÑATI
Mikel Guridi Murua
Abuztuaren 14an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Egun politta izan deizula! Patxo potolo bat etxeko danon partetik!

ANTZUOLA
Garazi Diosdado Lizarazu
Abuztuaren 7an, 7 urte. Zorionak, printzesi! Oso ondo pasatu eguna eta muxu pila bat Iratiren, aitatxoren eta amatxoren partetik!

BERGARA
Unai Beistegi Frias
Abuztuaren 5ean, 4 urte. Zorionak, Unai! Ondo-ondo pasatu zure laugarren urtebetetze eguna eta patxo handi-handi bat etxeko guztion partetik.

ARRASATE
Aner Martin Ayani
Abuztuaren 3an, 6 urte. Zorionak, *guapisimo*, zure seigarren urtebetetzian! Edarto pasatu zure egunian eta baita oporretan be! Muxu pila-pila familixa guztixaren partetik.

BERGARA
Maialen Garcia Urbieta
Abuztuaren 2an, 4 urte. Zorionak, Maialen! Ondo-ondo ospatu zure laugarren urtebetzea eta muxu handi bat etxeko danon eta, bereziki, Naroaren partetik.

OÑATI
Laura Ferrero Perez
Abuztuaren 1ean, 2 urtetxo! Zorionak! Egun zoragarria pasa dezazula etxekoekin! Bereziki aitatxorekin eta amatxorekin! Muxu pila, bereziki, Paularen partetik.

ARETXABALETA
Uxue Ibabe
Uztailaren 30ean, 8 urte. Zorionak, poxpolin! Heldu da horrenbeste desiratzen zenuen eguna. Ondo pasatu eta tori txokomarrubizko mila patxo, etxeko guztien partetik.

ESKORIATZA
Zoe Silva Martins
Uztailaren 29an, urtebete. Zorionak, Zoe! Oso-oso ondo pasatu zure egunean eta muxu asko amatxo-aitatxo, amama, osaba-izeba eta lehengusuen partetik.

OÑATI
Noa Mugarza Urizar
Uztailaren 28an, 4 urte. Zorionak gure etxeko txikiñari! Egun eder-ederra euki daizula. Jarraitu zure poztasun hori gure artian banaketan. Muxu potolo bat eta infinitura!

BERGARA
Mara Aranes Albisua
Uztailaren 27an, 8 urte. Zorionak, Mara! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo bat etxeko guztien partetik.

ARETXABALETA
Irene Sandoval Antxia
Uztailaren 26an, 14 urte. Zorionak, Irene! Musu pila bat zuretzat eta ondo pasatu zure eguna Jakan.

BERGARA
Ander Ortiz Lizarralde
Uztailaren 26an, 5 urte. Zorionak, mutiko handi! Primeran ospatuko dogu zure bosgarren urtebetetzea. Patxo handi-handi bat, etxeko danen partetik.

ARRASATE
Lander Diaz Fuentes
Uztailaren 26an, 10 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo ibili zure egunean!

OÑATI
Izaro Agirre Zoilo
Uztailaren 25ean, 7 urte. Zorionak, *guapisima*! Muxu potolo bat eta zazpi tirakada belarritik. Ondo-ondo pasatu eta indarra hartu kandelei putz egiteko. Muxu bat Marenen partetik.

ARETXABALETA
Ana Maria Aretxaga
Uztailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, amama! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta tori patxo handi-handi bat, etxeko guztien partetik.

ARETXABALETA
Gorka Alarzia
Uztailaren 25ean, urtebetetzea. Urretxuko mutilik azkarrenarendako, zorionak eta muxu bat Maddiren eta Markelen partetik.

ARRASATEESKORIATZA
Soraya Barbero eta Maria Gallego
Sorayak uztailaren 25ean eta Mariak 30ean, urtebetetzeak. Zorionak, petardak! Familia guztiaren partetik. Maite zaituztegu.

ARRASATE
Iker Avila Legorburu
Uztailaren 25ean, 5 urte. Zorionak, Iker! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik!

ARRASATE
Irati Horrillo Tierno
Uztailaren 25ean, 4 urte. Zorionak, Irati! Besarkada handi bat eta patxo pila bat familia guztiaren partetik. Asko maite zaitugu!

BERGARA
Jurgi Larrea Perez
Uztailaren 24an, 5 urte. Zorionak, Jurgi! 5 urte, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat familia guztiaren eta bereziki Aneren, Eleneren, Eriken, Noraren eta Iratiren partetik.

OÑATI
Paula Juliette Arias
Uztailaren 23an, 3 urtetxo! Zorionak, poxpolin! Asko maite zaitugu, laztana. Zorionak eta muxu pila familiaren partetik, batez ere, amatxok eta aitatxok!

ARETXABALETA
Oihan Llodio Soraluze
Uztailaren 23an, 2 urte. Zorionak, polit hori! Ondo pasatu urtebetetze eguna eta patxo handi bat etxekuen partetik!

BERGARA
Oier Gantxegi Gallastegi
Uztailaren 23an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Jada bi urtetxo. Muxuak.

ARAMAIO
Maria eta Libe Ayastuy Martinez
Mariak 10 urte, uztailaren 23an eta Libek 7 urte, uztailaren 1ean. Disfrutatu zuen urtebetetzia... Eta ondo pasatu oporrak, *parejita*, Arrasateko aitxatxa eta amamen partetik. Patxo toto bana.

ESKORIATZA
Itxaso Lopez Feijoo
Uztailaren 22an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Etxekoen eta izeben partetik, ederto pasatu eguna!

OÑATI
Marta Zubiagirre
Uztailaren 22an, 7 urte. Jaso ezazu gure familiaren izenean zorion agurrik beroena. Urte askoan horrelaxe jarrai dezazula, bihotz-bihotzez. Muxu handi bat, denon partetik.

ARRASATE
Unax Beitia Jara
Uztailaren 22an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Primeran ospatuko dugu. Mila muxu, familiaren eta, batez ere, Malenen partetik.

ARETXABALETA
Eñaut Betegi
Uztailaren 22an, 8 urte. Zorionak, Eñaut! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egune! Patxo handi-handi bat etxeko danon partetik!

ARETXABALETA
Nora de Cesero Eraña
Uztailaren 21ean, 7 urte. Zorionak, potxola! Muxu handi bat, etxekoen eta lagunen partetik.

BERGARA
Maren Lezeta
Uztailaren 21ean, 9 urte. Zorionak, printzesa! Mila zorion hainbeste maite zaituen familiaren partetik. Aiur, Noa, aitatxo eta amatxo. Egun polita pasatu, bihotza!

ARETXABALETA
Esther Cabero
Uztailaren 18an, urtebetetzea. Zorionak, tia Esther! Egun on-ona pasatu eta muxu asko etxekoen eta, batez ere Julenen, Haizearen, Eiderren, Egoitzen eta Izadiren partetik!

ARETXABALETA
Garazi eta Nahia Diez
Nahiak uztailaren 18an, 8 urte eta Garazik uztailaren 30ean, 12 urte. Zorionak, bikote, zuren urtebetetze egunean eta muxu potolo bat etxekoen partetik.

ARAMAIO
Oihan Azkarate Arriolabengoa
Uztailaren 18an, 10 urte. Zorionak, laztana! Amandrea, amama, aitaita, amatxo, aitatxo eta Hegoi.

BERGARA
Ane Arana Mendizabal
Uztailaren 24an, 2 urte. Zorionak, Ane! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat danon eta, bereziki, Garaziren eta Markelen partetik.

OÑATI
Peio Axpe Elkoroiribe
Uztailaren 27an, 8 urte. Zorionak, mutikote! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu handi bat etxekoen partetik. Jarraittu holaxe, *guapo*.

OÑATI
Eider Erostarbe, Martin Arregi eta Joane Arriaran
Eiderrek 6 urte uztailaren 31n, Martinek 2 urte abuztuaren 3an eta Joanek 3 urte abuztuaren 12an. Ze ondo pasaitten dozuein alkarrekin! Ederto ospatuko dittugu zuen urtebetetziak. Zorionak hiruroi eta muxu bana familixa danaren partetik!

Urte askotarako!

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.
Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi:
izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
Ordezkaritzak
Zatoz ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

ASTEA GOIENAN

GOIENA

Abuztuan ere albistegia egunero

Goiena telebistak bertako informazioa eskaintzen jarraituko du abuztuan ere. Albistegia astelehenetik egubakoitzera egunero eskainiko da, 10:30ean hasi eta bi orduan behin. Modu horretara, inguruko albisteen berri jasotzeko aukera izango da.
'Berriak'
Egunero, 10:30

GOIENA

Aretxabaletako Andramaixak

Abuztuaren 14an hasiko dituzte jaiak Aretxabaletan, eta eguneko ekitaldi nagusiak jasoko dituzte egun horietako albistegietan. Gero, abuztuaren 22an, Andramaixen gaineko saio berezia izango da, jaietako momentu onenak jasoko dituena.
'Aretxabaletako jaiak'
Abuztuak 22, 11:30 eta 21:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 24
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Ikusmira
17:15 Ikusi irratia
18:00 Udakoak
18:30 Erreportajea: Jon Salaberri
19:00 Udakoak
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
22:45 Debagoiena zuzenean
23:15 Berriak
23:45 Amaia DJ
00:15 Debagoiena zuzenean
00:45 Berriak

ZAPATUA, 25
10:00 Amaia DJ
10:30 Udakoak
11:00 Debagoiena zuzenean
12:00 Astea iruditan
12:00 Amaia DJ
12:30 Zorion Agurrak
12:35 Ikusi irratia
13:30 Onein
14:00 Pedalka
14:30 Zorion Agurrak
14:35 Astea iruditan
14:45 Debagoiena zuzenean
15:45 Galdegazte
16:15 Jaiak: Antzuolako jaiak
17:00 Pauso bi
17:30 Pedalka
18:00 Ertzak
18:45 Astea iruditan
19:00 Debagoiena zuzenean
20:00 Pedalka
20:30 Pauso bi
21:00 Debagoiena zuzenean
22:00 Astea iruditan
22:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
22:45 Pedalka
23:15 7 Akorde
23:45 Debagoiena zuzenean
00:45 Astea iruditan

DOMEKA, 26
10:00 Debagoiena zuzenean
10:55 Astea iruditan
11:00 Zorion Agurrak
11:00 Sasoi betean
11:30 Ertzak
12:15 Jaiak: Antzuolako jaiak
13:00 Debagoiena zuzenean
14:00 Zorion Agurrak
14:05 Astea iruditan
14:15 Ikusi irratia
15:15 Pedalka
15:45 Zorion Agurrak
15:50 Amaia DJ
16:15 Ertzak
17:00 Pauso bi
17:30 Zorion Agurrak
17:35 Astea iruditan
17:45 Jaiak: Antzuolako jaiak
18:30 jazzber
19:45 Galdegazte
20:15 Onein
20:45 Pedalka
21:15 Jaiak: Antzuolako jaiak
22:00 Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
23:00 Astea iruditan
23:05 Debagoiena zuzenean
00:00 Pedalka
00:30 Astea iruditan
00:35 Debagoiena zuzenean
01:30 jazzber

ASTELEHENA, 27
10:00 Debagoiena zuzenean
11:00 Erremeixuak
11:30 Pedalka
12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Onein
13:40 Jaiak: Antzuolako jaiak
14:30 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Galdegazte
16:00 Udakoak
16:30 Berriak
17:00 Ertzak
18:00 Pedalka
18:30 Berriak
19:00 jazzber
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
22:00 Pedalka
22:30 Berriak
23:00 Galdegazte
23:30 Erremeixuak
00:00 Sasoi betean

MARTITZENA, 28
10:30 Berriak
11:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Berriak
13:00 7 Akorde
13:30 Amaia DJ
14:00 Pedalka
14:30 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Onein
16:00 7 Akorde
16:30 Berriak
17:00 Galdegazte
17:30 Udakoak
18:00 Amaia DJ
18:30 Berriak
19:00 Ikusi irratia
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Galdegazte
21:30 jazzber
22:45 Berriak
23:15 Jaiak: Antzuolako jaiak
00:00 7 Akorde
00:30 Berriak

EGUAZTENA, 29
10:30 Berriak
11:00 Galdegazte
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Berriak
13:00 Onein
13:30 Galdegazte
14:00 Onein
14:30 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Pedalka
16:00 Pauso bi
16:30 Berriak
17:00 Ahotsenea
17:30 Sasoi betean
18:00 Galdegazte
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 7 Akorde
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Ahotsenea
21:30 Galdegazte
22:00 Pedalka
22:30 Berriak
23:00 Sasoi betean
23:30 Ertzak
00:45 Berriak

EGUENA, 30
10:30 Berriak
11:00 Amaia DJ
11:30 Pedalka
12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Berriak
13:00 Erremeixuak
13:35 Sasoi betean
14:00 Pauso bi
14:30 Berriak
15:00 Debagoiena zuzenean
15:30 Jaiak: Antzuolako jaiak
16:15 Berriak
17:10 Onein
17:30 Ertzak
18:30 Ikusi irratia
19:30 Pedalka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Jaiak: Antzuolako jaiak
21:45 Amaia DJ
22:30 Berriak
23:00 Udakoak
23:30 Erreportajea: Ehunmiletako G2H lasterketa
01:00 Amaia DJ

ARRASATE IRRATIA

Kalakan ikuskizuneko protagonistak gaur Arrasate Irratian

Eskoriatzako Errekan Gora jaialdiaren barruan, gaur, egubakoitza, Kalakan taldeak ikuskizuna eskainiko du Santa Marina plazan, doan. Emanaldian parte hartuko duten protagonistak izango dira *Uda giroan* irratsaioan ikuskizunaren berri ematen 11:00etako elkarrizketaren tartean.

Irailaren 1ean itzuliko da Arrasate Irratia zuzeneko saioekin

Gaur, egubakoitza, goizeko hamarretan eskainiko dute opor aurreko azken zuzeneko irratsaioa. Eta, hain zuzen ere, oporren ostean, irailaren 1ean itzuliko da berriro 107.7ko uhinetara *Uda giroan* irratsaioa. Bitartean, 24 orduz musikarekin disfrutatu ahal izango da Arrasate Irratian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 24	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Zapatua, 25	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Domeka, 26	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
Astelehena, 27	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Martitzena, 28	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Eguaztena, 29	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Eguena, 30	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26
BERGARA			
Egubakoitza, 24	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 25	ZABALA	Barrenkale 25	943 76 16 87
Domeka, 26	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 27	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 28	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 29	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 30	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
OÑATI			
Egubakoitza, 24	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 25	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 26	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 27	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 28	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 29	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 30	GARATE	Kale Barria 42	943 78 05 58

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA

Max. 24º
Min. 13º

ZAPATUA, 25
Freskatu egingo du. Zerua lainotuta egongo da eta euria egingo du zapatuan. Posible da trumoiak ere izatea.


Max. 26º
Min. 16º

DOMEKA, 26
Hobera egingo du eguraldiak domekan. Atertu egingo du eta ez da euririk espero. Ostarteak zabalduko dira.

EUSKAL HERRIA

Sonia eta Aitor

Sonia eta Aitor uztailaren 25ean ezkonduko dira. "Heldu da eguna, azkenean! Ondo pasatu eta gora ezkonberriak! Zorionak, bikote, Arrasateko Aitziren, Sergioren eta Azuren partetik! Portzierto, Pakito gonbidatuta egotia espero dogu".

Josu eta Nagore

Legazpiko Josu eta Arrasateko Nagore uztailaren 25ean ezkonduko dira Legazpiko Mirandaolan. "Ondoren, Zumarragako Etxeberri jatetxean afaria eginda ospatuko dugu. Zorionak, bikote, kuadrillaren partetik!"

URTEURRENA

Julian Cabero Ramos

2005eko abuztuaren 16an hil zen, 60 urte zituela.

Urteurreneko meza abuztuaren 16an izango da, 11:30ean, Aretxabaletako parrokian.

Joana zara gure ondotik izarretara urruti, baina zurekin bizitakoa bihotzean dugu beti.
Etxekoak

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2015eko uztailaren 24an.

URTEURRENA

Asier Mendia Alonso

2014ko uztailaren 27an hil zen, 35 urterekin.

Zure emazteak, seme eta alabak, gurasoek eta anai-arrebek beti eramango zaitugu gure bihotzetan.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 26an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eta urte honetan gure ondoan egon zareten guztioi bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
Antzuolan, 2015eko uztailaren 24an.

OROIGARRIA

Lorentxo Altube Bolinaga

Uztailaren 16an hil zen, 82 urte zituela.

Ondarea zaintzen, berreskuratzen eta erakusten egin zenuen lanari esker jarraituko dute gure arbasoen ohiturek gure oroimenean bizirik.

Mila esker, Lorentxo.

Ibarraundi museoa. Eskoriatzako Udala.
Eskoriatzan, 2015eko uztailaren 24an.

ESKER ONA

Josefa Ibarrondo Otadui

(Uxarte jatetxekoa)
Migel Juantorenaren alarguna

Arrasaten hil zen 2015eko uztailaren 8an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2015eko uztailaren 24an.

ESKER ONA

Patxi Kortabarria Araistegi

Presentacion Legorbururen alarguna

Uztailaren 19an hil zen, 100 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2015eko uztailaren 24an.

HILETA

Carmen Iñarra Ganchegui

Carlos Gutiérrez Oxinalderen alarguna
Atzo, uztailak 23, hil zen, 82 urterekin.

Seme-alabak: Rosana, Mari Carmen eta José Azcárate, Pedro eta Nerea Cerrejón, Carlos eta Belen Maiztegui. Bilobak: Patrizia, Miren. Anai-arrebak: Jesus, Jose Mari eta Maria Angeles. Ezkon anai-arrebak: Luis (†) eta Silvia (†), Sara (†) eta Perfecto (†), Gerardo (†) eta Berta (†), Maria Jesus eta Fernando (†), Mari Paz eta Pedro; ilobak, lehengusuak eta beste senide guztiek:

Azken agurra eta hileta elizkizuna Bergarako San Pedro parrokian izango da, gorpua bertan delarik, gaur, egubakoitza, uztailak 24, 19:00etan, etorri nahi duenarentzat.

Helbidea: Iberdrola subestazioa-Mizpirualde egoitza.
Familiak Oroiloren hartuko zaituzte gaur, egubakoitza, 11:00-13:00 eta 15:30-18:10 bitartean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2015eko uztailaren 24an.

HILDAKOAK

Josefa Ibarrondo Otadui. Arrasaten, uztailaren 8an. 90 urte.
Isabel Larrañaga Agirrezabal. Bergaran, uztailaren 16an. 79 urte.
Roberto Urtzelai Herrera. Aretxabaletan, uztailaren 17an. 86 urte.
Asun Gabilondo Alberdi. Bergaran, uztailaren 18an. 96 urte.
Antonia Rueda Montero. Arrasaten, uztailaren 18an. 92 urte.
Jeronimo Perea Bergara. Arrasaten, uztailaren 18an. 84 urte.
Patxi Kortabarria Araistegi. Antzuolan, uztailaren 19an. 100 urte.
Luis Gutierrez Lopez. Arrasaten, uztailaren 22an. 84 urte.
Dorotea Amo Castellejo. Bergaran, uztailaren 23an. 87 urte.
Carmen Iñarra Gantxegi. Bergaran, uztailaren 23an. 82 urte.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

Maria Begoña eta Alfredo Enrique

Begoña Gorospe eta Enrique Ibaibarriaga orain dela 40 urte ezkondu ziren, San Inazio egunean. "Euren seme-alaba Iñigok eta Leirek, urtero bezala, aurten ere, egun berezi hau ospatzeko bapo bazkaltzera/afaltzera gonbida gaitzaten esperoaz, zorionak, bikote, eta patxo handi bana!".

Oscar eta Yolanda

Oscar Sanchez eta Yolanda Alonso zapatuan, uztailaren 25ean, ezkonduko dira Morales de Toron (Zamora). "Azkenean, heldu da desiotako eguna! Muxu eta besarkada bat Velasco taldearen partetik. Ondo pasatu bidaian eta zoriontsu izan, bikote!".

Julen eta Esti

Datorren zapatuan, uztailaren 25ean, Esti eta Julen Aieteko Gurutzeaga parrokian ezkonduko dira. "Ondoren, denok elkarrekin Palacio de Aiete hotelean ospatuko dugu. Zorionak, tio Julen eta tia Esti! Oso zoriontsu izan zaitezte elkarrekin eskutik helduta hasten duzuen bidaia honetan. Besarkada handi bat maite zaituztegunon partetik, baina, bereziki, Eiderren eta Eleneren partetik".

Eneritz eta Maikel

Zapatuan, uztailak 18, Gure Ametsa jatetxean ezkondu ziren. Pitufo & Cia familiaren partetik: "Emozioz beteriko egun honengatik esaten dizuegu gure ahotik eskerrik asko, bikote, guztiagatik, maite zaituztegula ez dago zertan berriz esaterik. Ba al da hau azalduko duen hitzik? Eskerrik asko eta eman inbidia apur bat Kanarietatik!".

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIOAN

Dinosaurioen artean ibiltzen
Abuztuaren 4an: 22:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Rey gitano
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Pixels
Egunbakoitza: 16:30, 18:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

Una historia real
Egubakoitzetik domekara: 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Lio en Broadway
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 21:00.

Mi familia italiana
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Del reves
Egubakoitza: 17:30, 19:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:00.

Amy
Egubakoitzetik domekara: 22:30.
Astelehenetik eguenera: 21:00.

Ant-man
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 12:00, 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Una dama en Paris
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 18:50, 20:40.

Los Minions
Egubakoitza: 16:30, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00.

El cumpleaños de Ariane
Egunbakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 18:50, 20:40.

BOULEVARD

Ant-man
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 17:00,18:15, 19:30, 22:00.

Ant-man 3D
Egubakoitza eta zapatua: 23:15.
Egubakoitzetik eguenera: 20:45.

Pixels
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik eguenera: 18:00, 20:10, 22:20.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:50.

Pixels 3D
Egubakoitzetik eguenera: 19:00.

Solo quimica
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguenera: 17:10, 19:40, 22:10.

Rey gitano
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik eguenera: 17:05, 19:35, 22:05.

Del reves
Egubakoitza eta zapatua: 00:00, 00:45.
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 18:00, 19:30, 20:15, 21:45, 22:30.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:30, 21:45.
Astelehena: 18:00, 20:15, 22:30.
Martitzena eta eguena: 17:45.

Los Minions
Egubakoitza eta zapatua: 00:50.
Egubakoitzetik eguenera: 18:20, 20:30, 22:40.
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:10.

Eliminado
Egubakoitzetik eguenera: 20:45, 22:35.

Terminator Genesis
Egubakoitzetik eguenera: 19:30, 22:15.

Ahora o nunca
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

Eternal
Egubakoitza eta zapatua: 23:40.
Egubakoitzetik eguenera: 21:15.

Jurassic world
Egubakoitzetik eguenera: 17:00.

Los Minions 3D
Zapatua, domeka eta eguaztena: 16:00.

Espias
Zapatua, domeka eta eguaztena: 15:45.

Del reves 3D
Egubakoitzetik eguenera: 18:30.

Magic Mike XXL
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

KRITIKA

Gizakien emozioak

DEL REVÉS ★★★☆☆
Zuzendaria: Pete Docter
Herrialdea: AEB.
Mota: Pixar etxearen animaziozko pelikula.

Sarritan tarte bat egiten diegu animaziozko filmei. Pixar taldeak, azken urteetan, hainbat lan aipagarri aurkeztu ditu: *Toy Story*, *Buscando a Nemo*, *Los increibles* eta *Up*. Film guztiak oso arrakastatsuak izan dira, bai ikusle kopuruan eta baita kritikarien artean ere. Horren adibide *Del revés* dugu. Filma Cannesko Zinemaldian aurkeztu zen eta harrera ezin hobea izan zuen. Kasu honetan, Pixarkoak 11 urteko neskatila baten barruan sartzen dira. Buru horretan bost motatako emozioak nahasten dira: poza, tristura, beldurra, nazka eta amorrua, hain zuzen ere. Neskatila Minnesotatik San Frantziskora bizi izatera joan da. Toki ezezagun batera heltzea ez da gauza erraza izaten: etxe desberdin batera joan, lagunak utzi eta lagun berriak egin, oroimenak, herrimina... Denbora pasa behar du egoerari buelta emateko. *Del revés* pelikulan prozesu hori bi ikuspuntutatik ikusiko dugu: kanpotik, neskatila egoera berrira nola moldatzen den; eta barrutik, berriz, neskatilaren buruan emozio talde desberdinak nola bateratzen diren. Poza eta tristura kanpoan geratzen dira eta ahalegina egin beharko du berriz bere tokira bueltatzeko. Poza eta tristura gizakiaren izaeran daude.

Normala denez, pozik egotea askoz hobea da. Dena den, *Del revés* filmean tristuraren pisua aldarrikatzen da. Egokiena pozik egotea bada ere, tristurako momentuak aproposak izan daitezke pertsonen arteko loturak sendotzeko. Filma nahiko abstraktua da. Pixarrekoek arriskua hartu dute pelikula originala, desberdina eta berritzailea burutzeko. Alde horretatik, *Del revés*-ek bere helburua lortu du: animazio mailan beste aurrerapauso bat ematea. Baina ez du hasieran aipatutako filmen maila lortu. Haiek une gozagarriagoak zituzten: biziagoak ziren, magiarekin eta pertsonaia gogoangarriekin.

ANTONIO ZABALA

WWW.INFOROCK.NET

ARETXABALETA Vendetta, abuztuan Andramaixetan
Abuztuaren 13tik 17ra ospatuko dituzte Andramaixak Aretxabaletan. Jai egitarauan musikak minutu asko izango ditu: Def Con Dos, Los Zopilotes Txirriaos, Eskakeitan eta Vendetta, besteak beste. Azken bi horiek abuztuaren 15ean.
Abuztuaren 15ean, Herriko Plazan, 22:30ean.

BERGARA Mü Mbana & Cristobal Montesdeoca
Berumuga musika zikloaren azken emanaldia egingo du bikoteak. Mü Mbanak hainbat balada abestuko ditu Cristobal Montesdeocaren pianoaren doinuekin. Balada batzuk berorrek sortutakoak dira eta beste batzuk, beste abeslari batzuek utzitakoak. Bertsioak ere egingo ditu. Doan.
Gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:00etan.

NON-ZER

UZTAILA 24
ABUZTUA 20

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

MUSIKA

OÑATI Ganbara Abesbatza
Abuztu bukaeran Italiara, Arezzora, joango da Ganbara, hango nazioarteko lehiaketan parte hartzera. Italiako kontzerturako prestatu dituzten obrak izango dira emanaldiaren oinarri. Sarrerak, bost euro.
Etzi, domeka, Santa Anan, 20:00etan.

ARRASATE Transilvanians taldea
Europan barrena egin duten biraren azken emanaldia izango da Arrasatekoa. Reggae doinuak oinarri dituen *Echo, vives & fire!* diskoa aurkeztuko dute.
Uztailaren 27an, Arrasate tabernan, 19:30ean.

BERGARA Antonio Lizana
Jazz kontzertua egingo du. Saxofoiaren laguntzarekin *Quimeras de mar* diskoa aurkeztuko du. Euria egiten badu, Seminarioko karpan egingo du emanaldia.
Abuztuaren 5ean, Oxirondon, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

BERGARA Debagoieneko eta Debabarreneko margolariak eta eskultoreak
Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute erakusketa. Besteak beste, bost debagoiendarren lanak ipini dituzte.
Abuztuaren 16ra arte, Arkupen.

OÑATI Arizmendiarrietari buruz
Haren jaiotzaren mendeurreneko ekitaldia. Arantzazuko basilikaren aurrean panela ipini dute, Arizmendiarrietaren ekintza nagusienak jasotzen dituena. Aurretik, Donostia, Bilbo eta Arrasaten egon da.
Irailaren 25era arte, Arantzazun.

ARETXABALETA Pintura lanak
Ainhoa Caberoren ikasleek egindako lanak ikusteko azken egunak.
Uztailaren 29ra arte, Arkupen.

ELGETA Argazkiak
Los riffs congelados izeneko argazki bilduma ikusteko azken egunak.
Uztailaren 25era arte, Espaloian.

OÑATI 'Oñati oroitzapenean'
Oñatiko antzinako hogei argazkiren erakusketa.
Irailaren 14ra arte, Ulman.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'
Bixente Barandiaranen lanak.
Harresi aretoan ikusgai.

JAIAK

BERGARA Santiago jaiak
Gaur, egubakoitza, etxafuegoekin hasiko dituzte Basalgon Santiago jaiak. Bihar, meza (11:00), txirrindulari igoera (12:00), luntxa (12:30) eta Xabier Amuritzarekin eta Igor Elortzarekin bertso bazkaria (14:30) egingo dituzte; eta etzi, domekan, meza (12:30), luntxa eta jolasak eta auzoko erretiratuendako eta jai batzordekoendako bazkaria (14:30) egingo dituzte.
Aste bukaeran, Basalgo auzoan.

BERGARA Santa Ana jaiak
Boluko, Arruriagako eta Burdiñateko auzotarrak jaietan murgilduko dira. Gaur, egubakoitza, sardina-jana eta Cafe Irlandes taldearen dantzaldia egongo dira. Bihar, zapatua, patata-tortilla lehiaketa, puzgarriak eta auzo-bazkaria, besteak beste. Etzi, domeka, pilota partiduak, meza, mus txapelketa, puzgarriak eta ginkana.
Aste bukaeran, Bolu auzoan.

MADRID.ORG

ARRASATE Harearekin egindako irudi magikoak
Udazabal zikloaren azken ikuskizuneko protagonista Borja Gonzalez izango da, *Borja Ytuquepintas* ikuskizunarekin. Pianoa, txotxongiloa, pantaila eta, batez ere, harea dira Gonzalezek erabiliko dituen elementuak.
Bihar, zapatua, Herriko Plazan Nagusian, 22:30ean.

VIMEO.ES

ESKORIATZA Errekan Gora
Aste bukaeran bukatuko da aurtengo Errekan Gora. Egubakoitzean Kalakan taldearen txanda izango da, Santa Marina plazan, 22:30ean, eta zapatuan, Xabi Solanorena eta DZ DJarena. Azken bi horiek Esne Beltza taldeko kideak dira, eta taldearen hainbat kantu joko dituzte.
Bihar, zapatua, Hotela tabernan, 18:30ean.

WWW.GUREGIPUZKOA.NET

ESKORIATZA Maringo jaiak
Madalena jaiak ospatuko dituzte. Bihar, zapatua, etxafuegoak eta Arientzako kanpai-jotzaile eskolakoen saioa, auzo-afaria eta Jainaga eta Narbaitzarekin erromeria egingo dituzte. Domekan, meza eta luntxa auzotarrendako.
Aste bukaeran, Marin auzoan.

ARAMAIO Santixao jaiak
Gureia auzoan ospatuko dituzte: 12:00etan meza eta ostean herri bazkaria.
Bihar, zapatua, Gureian.

DEIA

ARRASATE Gatzagarren liburuaren aurkezpena
Lau urtetako lana biltzen duen liburua erakutsiko du Josefe Diaz de Tuestak. *Gatza, Leintz Gatzagako herritarren erretratuak* liburuan herritar guztien argazkiak batu ditu.
Gaur, egubakoitza, Kajoi tabernan, 19:30ean.

ESKORIATZA Jose Aranaren egoitzara bisita
Eraikina eraberritzeko lanen lehenengo fasea bukatu ostean, herritarrei erakusteko ateak irekiko dituzte gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua. Bakarkako gela berriak abuztuan zabalduko dituzte.
Aipatutako egunetan, 17:00etatik 19:00etara arte.

DEBAGOIENA Plastiko bilketa
Baserrian sortutako plastikoa batuko dute. Hain zuzen ere, siloa estaltzeko, belar boletarako eta berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko eraberotegietako plastiko zuria batuko dituzte herri bakoitzean zehaztutako lekuetan.
Uztailaren 28an, zehaztutako lekuetan, 16:00etan.

OÑATI Odol ateratzea
Udan egon daitekeen odol beharra estaltzen laguntzeko, odol-ateratze berezia egingo dute Oñatin. Autobusa Foruen plazan egongo da. Bestalde, hileroko hurrengo ateratzea irailaren 11n egingo dute ikastolan.
Abuztuaren 17ean, 17:00etatik 20:00etara.

OÑATI Haurren danborradan parte hartzeko
Parte hartu gura duten hirugarren eta laugarren mailetako neska-mutikoendako izen-emate epea zabalik: *oinatikotanborradatxikia@gmail.com* helbidean edo kultura etxean goizez. Entseguak irailaren 1etik aurrera.
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

LEHIAKETAK

ESKORIATZA Udako argazkien lehiaketa
Ibarraundi museoak deitutako lehiaketa. Edonork parte har dezake, gehienez bi erretratu bidalita. Lanak aurkezteko epea urriaren 1ean bukatzen da, *ibarraundi@eskoriatza.eus* atarian. Hiru sari banatuko dituzte, adinaren arabera: 15 urtera arte, 16tik 49ra arte eta 50 urtetik gora. Sariak axtrokitan banatuko dituzte.
Urriaren 1era arte, aipatutako helbidean.

ARRASATE 'Maite ditugu maite, Debagoieneko bazterrak'
Debagoieneko edozein arlo, gai edo errealitate islatuko duten argazkiak izango dira protagonista Erein Da Janek deitutako lehiaketan. Besteak beste, herri bizitza, lehenengo sektorea edota paisaia argazkiak –pertsonako gehienez bi– *ereindajan@bagara.net* helbidera bidali beharko dira irailaren 30a baino lehen.
Irailaren 30era arte.

BERGARA Udako euskarazko postalak
Jardunek deitutako lehiaketan, postalaren edertasuna, edukia, originaltasuna eta idazkera baloratuko ditu epaimahaiak. Lanak entregatzeko azken eguna irailaren 18a da, Jardunen bulegoan.
Irailaren 18ra arte, Jardunen.

AZOKA

BERGARA Baserritarren azoka
Abuztuko lehen eguaztenean baserritarren eta bertako produktuen azoka egingo dute. Askotariko produktuak erosteko aukera egongo da.
Abuztuaren 5ean, Oxirondo, 18:00etan.

KIROLA

BERGARA Eibar eta Real Union nor baino nor gehiago
Agorrosinen jokatuko dute lagunarteko partidua.
Gaur, egubakoitza, Agorrosinen, 19:00etan.

DEBAGOIENA Iruñeako Itzulian
Ulma eta Bolintxo taldeetako ziklistek –Xabier Murgiondo, Ekaitz Txintxurreta, Julen Umerez, Aritz Kortabarria eta Mikel Arregi– batera parte hartuko dute Iruñeko Itzulian.
Abuztuaren 4tik 7ra.

ABUZTUAN ERE INFORMATUTA
▸ *Goiena.eus* atarian
▸ Goiena telebistan

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Maulanda jatetxeko eskalopedun plater konbinatua.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 *edo* ***Puntua.eus*** *edo Whatsapp:* ***688 69 00 07***

goienakluba

goiena

2015-07-24

BUKATZEKO

Aitor Payros, estratigrafian maisua

- Nazioarteko sari garrantzitsuena jaso du Euskal Herriko Unibertsitateko geologo eta ikerlari bergararrak
- Asteon eman diote, Austrian, STRATI2015-II izenarekin egin duten kongresuaren barruan

MIRARI ALTUBE | BERGARA

Estratigrafia alorrean nazioartean ematen den sari garrantzitsuena jaso du Aitor Payros bergararrak, Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlariak. Austriako Graz hirian egindako STRATI2015-II kongresuan eman diote. Lau urtean behin banatzen dute sari hori eta Europako hirugarrena izan da jasotzen.

"Harropuzkeriarik gabe"

Getxoko Gorrondatxe hondartzako labarrak hamar urtetan ikertu ostean deskubritu du estratuak datatzerakoan zegoen akatsa: "50 urtean ontzat emandako denbora geologikoaren eskalako zati bat hankaz gora jarri genuen. Eta ez urte haietan gai horretan inork lan egin ez zuelako, guk egindako lan mota hori ohikoa baita. Baina inor ez zen konturatu eskala horrek akatsak zituela, hiru milioi urte baino gehiagokoak", jakinarazi du Payrosek.

Leioan egin zituen Geologia ikasketak, baita ikerketa doktoretza tesia ere. Gero, irakasle eta ikerlari jarraitu du han; horregatik, ez da arraroa Bizkaiko kostaldean aurkitzea bergararra: "Getxoko labarrak unibertsitatetik hamabost minutura daude, eta geologikoki bikainak dira". Deskubritutakoa handia izan arren, apaltasunez hartu du: "Guk gure lana egiten dugu, beste edonork bezala. Zortea izan genuen, bilatzen ari ez ginen zerbait aurkitu genuelako eta aurkikuntza horrek garrantzia zuelako. Gainera, beste ondorio batzuk ere ekarri dituelako. Beraz, pozik bai, baina apaltasunez, harropuzkeriarik gabe. Gu izan beharrean beste norbaitek begiratu izan balu toki eta modu egokian, saria berea izango zen", dio. Eta gaineratu du: "Hori bai, begiratzen jakin beharra zegoen. Uste dut Pasteur izan zela esan zuena zorteak prestatuta dagoenari laguntzen diola. Zorionez, prest geunden, eta zortea gure alde".

Aitor Payros, saria jasotzen, martitzenean, Austrian. | AITOR PAYROS

Aitorpenak beste poz batzuk ere ekarri ditu: "Gure alternatiba zuzena zela onartu zenean lasaitasuna hartu genuen, eta baita nolabaiteko errekonozimendua ere. Gerora izan ditugu beste poz batzuk ere; adibidez, guk lan egindako tokia adin horretako arroketarako munduko erreferente izendatu izana".

Naroa Martinez ikaslea, saritua

Martitzenean jaso zuen saria, Austrian, kongresuan elkartutako adituen aurrean. "Hasieran, lotsati eta urduri samar egon nintzen, nire arloko aditu handienak zeudelako eta normalean jende mota hori urrunetik ikustera ohituta gaudelako, ez talde barrutik. Hankak dardarka sentitzen nituen! Dena den, badirudi esker oneko hitzaldia ondo irten zela", dio. Pozak, baina, ez dira horrekin bukatu; izan ere, haren ikasle Naroa Martinezi ikasleen arteko aurkezpen onenaren saria eman diote kongresuan. "Antolatzaileek esan duten moduan, oraingoan euskaldunok dena irabazi dugu!".

Familiarekin joan da eta kongresua bukatutakoan merezitako oporraldia hasiko du: "Eman didatena bezalako sariak jasotzea ez da ohikoa, ez zait besterik tokatuko. Beraz, bizitzan behin izanda, familiarekin etorri naiz Austrian zehar bidaiatxo bat egiteko".

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Konponbidearen bidean

Aitortu behar dut txundituta gelditu nintzela, irratian, Grazi Etxebehereren adierazpenak entzun nituenean. Bere etxea miatzen ari zirela jakin zuenean sanferminetatik bueltatu zen, eta, atxilotu egingo zutela jakinda, bere burua armagabetu nahi duen talde bati lagundu besterik egin ez duela eta ez dela damu esan zien komunikabideei. Gatazka luze honen konponbidean nork bere alea jarri behar duela.

Lasai agertu zen telebistan. Zuri-gorriz jantzita eta konbentzituta, egin zuenarekin eta esaten ari zenarekin. Eta bazekien non bukatu zezakeen eta kartzela zer den, lehen ere egona baita bertan.

Asteburuan irakurri dut hiru atxilotuei *Gara*-k egindako elkarrizketa. Hirurek norabide berean hitz egiten zuten. Gatazkaren konponbidearekin konprometituak agertu ziren. Konponbiderako armagabetzea gauzatu behar dela eta horretan lagundu nahi zietela adieraziz.

Agintari eta arduradun politiko askok baino heldutasun askoz handiagoa erakutsi dute. Hau lezioa eman digutena Baxenabarreko hiru euskaldun horiek.

Bejondaiela!